

Adostutako eredu baten bila (edo amaigabeko eztabaida aspergarria gainditu guran)¹

Kepa Altonaga

0. SARRERA

“Saiakera zientifiko literatur generoa da, tipia, baina zahar eta ohoragarria”. Lehenago ere [1: 128] erabili izan dut Stephen Jay Gould-en aipamen hori erakustera emateko zeintzuk diren mugituko naizen alorraren munarriak. Hasieratik argitu gura dut prosa zientifikoaren gainean arituko naizela, nahiz eta hemen aipatuko diren hainbat kontuk hedadura zabalagoa har dezaketen. Prosa zientifikoaren eredu baten bila abiatuko gara, baina, hain zuzen ere, prosa zientifikoaren *adostutako* eredu baten bila. Hau da, onartu egiten ari naiz euskaraz era desberdinak (bi?) dauzkagula, aldameneko hizkuntzek

¹ Eskerrik beroenak Olaso Dorrea Fundazioari, Lacomberen biblioteka kontsultatzeko eskuzabaltasunagatik, eta bai Euskaltzaindiako Azkue Bibliotekari ere. Bestalde, zorretan nago hainbat pertsonarekin eskaini dizkidaten era askotako laguntzengatik: Fidel Altuna, Martxel Ensunza, Jose Ramon Etxebarria, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Jazinto Iturbe, Jurgi Kintana, Ana Miranda, Juan Carlos Odriozola, Fernando Plazaola, Gillermo Roa, Jesus Mari Txurruka, Piarres Xarriton eta Iban Zaldúa.

modu bakar batean plasmitzen dutena gauzatzeko. Jakina, prosa zientifikoaren izaerak berak [2] badirudi eredu bakarrera daroala, eta ez elkarren lehian dauden zenbait eredutara, besteak beste babelizazio bidean jarriko gaituztenak [1: 143].

Jose Ramon Etxebarriak [3: 64] 1970. urte inguruan kokatu du euskal prosa zientifikoaren abiapuntua. Banako aitzindarien ekimentzat jo ditu Jose Ramonek ordura arteko idazlan urriak, eta gure zientzia-prosaren historiaurrea direla kontsideratu du. Ostera, banakakoa barik talde-lana izatea litzateke historiaren abiapuntua markatuko lukeen irizpidea, hots, ahalegin kolektiboa. Ildo horretan, Jose Ramonen periodizazioaren ondarea testatu aldera, eta bai, aldi berean, aitzindari ilun horien idazlanak ezagutarazteko asmoz, bizpahiru ekarpen egin ditut –[4], [5], [6]–; badute ondorio argi bat hemen aipatzekoa: eredu-gabezia. Alegia, gure prosaren prehistoria horretan saio guztiz txalagarriak egon arren, gai zientifikoak lantzeko orduan meritu handiko idazlanak itxuratu dituztenak, aitzindari horiek guztiak ez ziren gai izan zientzia-prosarako era bakar bat plasmatzeko, ostekook erabiltzeko moduko *eredu bat* bideratzeko.

Horrela izanik, hasieratik bertatik 1970. urteko lagun-taldeak zientzian erabili beharreko euskararen gaineko mintegiak antolatu zituen; presazko ataza zen, ahalik eta lasterren korritu behar baitzen inguruko hizkuntzetan azken mende bietan eginiko bidea [3: 69]. Ahalegin kolektibo horretan, Jose Ramonek dioskunez, «nolabaiteko “estilo” bat –“estilo zientifiko”– sortzen ari ginen guztion artean». Eta honezkero joan zaigun iragan horretatik gaur egunerainoko saltoa eginez, 30 urtekoa, ondokoa ere esan digu: “*prozesu asintotikoan* goazela sumatzen dut, asintotatik geroago eta hurbilago, hara hurbildu nahiz, baina iritsi gabe” [3: 72].

Gaur-gaurkoz, beraz, nahikoa eratuta daukagu prosa zientifikoaren eredu. Alabaina, hezurmamitu dugun kanon horretan badago kezkarri suertatzen zaidan alde bat, lexikoarena hain zuzen.

Beste inoiz ere aritu izan naiz puntu larri horri buruz [1: 140-149; 5: 131-135; 7: 55-69], eta jadanik azpimarratu dut Xabier Amuritzak gure azken hiztegien gainean eginiko kritika guztiz pertinentea [8]. Xabier Amuritzaren ustez, euskal lexiko modernoaren arazoaren iturburua, neurri handi batean, mendebaldeko kulturaren komunak diren hitzen multzoa da, edo hobeto esateko, hitz horien “auzia ahul eta motz planteatzen dela”, saihebidia hartzen dela. Haren hitzetan esanez:

Inguruko hizkuntza hain ezberdin eta indartsuek komunki daukaten unibertso kontzeptuala euskara bezalako hizkuntza txiki eta ia agoniko bat bere baitatik asmatzen hastea ausarkeria suizida bat da. Horrek ez du inola ere esan nahi neologismoen baliabidea ukatzen dudarik. Baina, irizpide orokor gisan, gure erdarez gainera, ingelesak edo alemanak mailegatzeko eskrupulurik ukan ez dutena euskarak saiheste-ari kamuskeria deritzot.

Zoritarrez horixe egin dugu. Eta zer lortu da? Hizkuntza guztia deskolokatzea. Indefinizio etsigarria. Anbiguotasun gogaikarria. Azkenean auzia lehen bezain airean, baina askoz nahasiago gelditzea. (...)

Baina auzia ez da horretan amaitzen. Erdal hitz horiei euskal ordainak ematean, soluzio berdinak edo berdintsuak emango balitzaizkie, gaitz erdi genuke. Okerrena da askotan bakoitzak soluzio ezberdinak ematen dituela. Edo neologismo diferentea asmatzen dute edo gutxi-beherako euskal hitz bat esanahi horretara korriarazten dute, bakoitzak hor ere aukera ezberdinei tiraturik. Hiztegitik hiztegitira diferentzia handiegiak ageri dira eta ez dauka bestela izaterik. Behin enbor komuna errefusatuz gero, zaila da banaka kointzidentzia osoa lortzea.

Ez dira txikikeriak aurreko aipuan aurkitu ditugunak: “indefinizio etsigarria”, “anbiguotasun gogaikarria”, “ausarkeria suizida” eta horrelakoak egotzi dizkio euskal hiztegi-intzari; labur esateko, hizkuntza guztia *deskolokatuta* daukagula. Eta guk geuk zer erantsiko diogu Amuritzak idatzitakoari? Ba, jakina, hizkera estandarreko indefinizio, anbiguotasun eta ausarkeria horiek larriago bihurtzen direla esparru teknikoan: testu edo diskurtso zientifiko batean zehaztasun-falta terminologikoa oso negatiboa da, zeren, zehaztasun-falta terminologikoa zehaztasun-falta kontzeptualarekin lotuta agertzen baita gehiengotan.

Halandaze, gure artean mugitzen diren ikuspegi garbizalea eta ikuspegi mordoiloizalea elkarrengana hurbiltzen eta bateratzen ahaleginduko naiz oraingo honetan, hots, ikuspegi biok elkarrekin egokitzen ahaleginduko naiz, ea behingoz badugun *amaigabeko eztabaida aspergarria* [9: 64] gainditzerik. Hurrengo orrialdeotan, amaigabeko eztabaida aspergarri horretako episodio bitan geldituko gara tarte batez, arazoaren zer-nolakoaz eta nondik-norakoaz jabe gaitzen, ea era horretara ganorazko irtenbideren bat aurkitzen diogun, ikuspegi kontrajarrientzat onargarria izan daitekeen soluzioraino eroango gaituena.

Lehenengo eta behin, historiara joko dugu, eta konturatu egingo gara aspaldidanik datorkigula gaur eguneko eztabaida ia berbera, eta etorri, gainera, ia-ia termino berberetan. Aurkeztuko dugun lehen auzia ez dagokio bete-betea zientzia-prosari, baina oso argigarri suertatuko zaigu hainbat aldetatik.

1. JAUNGOIKOAREN HITZA ZELAN ADIERAZI

Oso erabilia izan da, Juan Irazusta Hernialdeko erretoreak 1742an Iruñean gipuzkeraz argitaratutako dotrina, eta gutxienez hogeita hamalau aldiz berrargitaratu da; areago, badago noizko eta 1932ko

edizio bat [10]. Ezaguna denez, Gaspar Astete-ren *Catecismo de la Doctrina Cristiana* (Madrile, 1599) arrakasta handiko liburua izan da gure artean, eta Rementeriarri irakurri diodanaren arabera [10], hogei-ta hamar aldiz baino gehiagotan euskaratu da, euskalki guztietara gainera. Nolanahi ere, Irazustarena omen da itzulpen horien artean zabalkunde gehien-edo eduki izan duena, tartean askoz ospe handiagoko itzultzailearik bazegoen arren, hala nola, Agustin Kardaberaz (1760) edota Juan Antonio Mogel (1805).

Arrakasta gorabehera, Irazustaren itzulpenak destainazko esanak bildu ditu euskaltzaleen artean. Izan ere, Juan Mateo Zabalaren eskuizkribuko juzgua –“está en muy mal bascuence” [11]– hant-hemenka aipatu da, esaterako Villasanteren *Historia de la Literatura Vascan* edota Auñamendi entziklopedian, eta mesede eskasa egin dio haren ospari. Juzgu horren oihartzuna Azkuerenganaino ere iritsi zen, eta bere hiztegiaren aitzinsolasean honako hau diosku, barbarismoen kontrako azalpenen epigrafean [12: xvi]:

Que l'on juge de cette définition du saint nom de Dieu, extraite littéralement, et sans modification d'orthographe, du Catéchisme du Père Astete, traduction guipuscoane perpétrée par quelqu'un dont le meilleur ouvrage fut de cacher son nom: JAUN BAT INFINITAMENTE PODEROSO, SABIOA, JUSTUA, PRINCIPIOA ETA FIÑA GAUZA GUZTIENA.

Júzguese de esta definición del santo nombre de Dios, extraída literalmente, y sin cambio de ortografía, del Catecismo del P. Astete, traducción guipuzkoana perpetrada por uno que lo mejor que hizo fué ocultar su nombre: JAUN BAT INFINITAMENTE PODEROSO, SABIOA, JUSTUA, PRINCIPIOA ETA FIÑA GAUZA GUZTIENA.

Dagoeneko irakurleak asmatu duenez, esaldi ezin-barkatuzko hori Irazustaren dotrinatik hartua da, jakina, eta seguruenaz Don Resuk Tolosan 1889an argitaratutako ediziotik jasoko zuen, hain

zuzen ere Azkue Bibliotekan kontserbatu den aletik. Azkuek bestelakorik badiosku ere, argitarapen horrek badakar ekarri “perpetratzailearen” izena [13]. Bestalde, Koldo Mitxelenak ere badarabiltza Irazustaren izena eta obra beste hiztegi baten atarikoan [14], baina, egiten dion lehen aipamen tazittoa ohiko bidetik badoa ere (*doctrina barregerri* [14: viii]), geroagoko iruzkin agerikoak ez dira gutxietsi eta deskalifikatzeoak, itzulpena txukunegia ez izatearena orduko giroan kokatu eta ulertzeko baino [14: x-xi].

Dirudienez, ba, Irazustaren itzulpena ez da suertatu denen gogokoa. Baina, behin eta berriro eduki izan dituen argitalpenen historia luze horretan, badago jazokune bat hona ekarri gura dudana, esangura berezikoa baita gure harirako. Kontua Coro Rubio-ren *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales* liburuan ikusi ahal duzu xehetasun gehiagoz [15: 446-449].

Aipatu liburuan irakur dezakezunez, Errezil, Albiztur, Bidania eta Goiaz-eko artzapez-barrutitik salaketa bat bideratu zen 1855ean, adieraziz:

...los vicios y defectos de que está lleno el Catecismo del Padre Astete en vascuence, que actualmente se usa en los pueblos de este arciprestazgo, tanto por la mala y aun ridícula versión vascongada, como por la manera en que se imprime dicho catecismo, abusando los impresores de hacerlo hasta el grado de que arbitrariamente y a su antojo van introduciendo en cada reimpresión variaciones notables contra todo lo dispuesto en esta materia, de suyo tan importante, por el Santo Concilio de Trento.

Congregación Ordinaria del Clero esker oneko agertu zen luzatu zuen erantzunean, estimatuz artzapez-barruti horretako ardura “por la conservación en su pureza de la doctrina contenida en el Catecismo aprobado de dicho Sr. Astete y de nuestra hermosa lengua vas-

congada”. Eta ez hori bakarrik, batzorde bat ere izendatu zuen, kati-ximan egon zitezkeen oker guztiak zuzen zitzaizkien. Dirudienez, Irazus-taren itzulpenak eztabaida sakona sortu zuen eraturako batzordearen baitan, eta berorrek ezin izan zuen adostutako erabakirik onartu. Edozelan ere, Frantzisko Gorostegik, batzordekidea eta Bidaniako erretorea zenak, Asteteren ordezkari itzulpen bat atondu zuen bere aldetik, eta 1867an Gasteizen argitaratu.

Kontua, segun-antza, ez zen denen gustura joan, eta katixima berria bera baino lehenago, Gorostegik zortzi orrialdeko prospektu bat kaleratu zuen [16], haren agerpena justifikatu eta kontrako iri-ziak baretzeko. Besteak beste, honelaxe dio:

3.^a En dicha traducción se descartará la multitud de pala-bras castellanas, que se ve en las diferentes ediciones que están en uso, sustituyéndolas con las correspondientes vascongadas; haciéndolo empero con sumo tino y prudencia para no caer en un purismo, que deje en pié el mal que se trata de reme-diar [ulergarritasuna]; teniendo al efecto muy en cuenta, que siempre que una palabra castellana sea más clara é inteligible que su correspondiente vascongada, se debe preferir aquella á esta; porque la claridad en un *Catecismo* es circunstancia prin-cipalísima, que debe procurarse cuanto se pueda. [16: 3]

Eta bizpahiru pasarteren ostetik honelaxe segitzen du:

...¿Cómo podrían entender ni poco ni mucho las palabras *Divinidaddea*, *Trinidaddea*, *perseveratu*, *revelatu*, *sabioa*, *media-neroa*, *clementea*, (y peor aun *clementisimoa*: el vascuence no tiene superlativos en *ísimo*) *verdaderamenté* (tampoco tiene adverbios en *ente*) y otra infinidad de palabras parecidas á esas, que se encuentran en nuestro expresado *Catecismo*?... No las entenderían, en la suposición dicha, mejor que nuestros labriegos, que al pronunciarlas no saben absolutamente, ni

pueden saber lo que dicen; siendo tristísimo observar, que ellos usan en el *Catecismo* muchísimas palabras de que, por desconocidas, no se sirven nunca en el lenguaje común; resultando de aquí que no comprenden lo que dicen en la doctrina precisamente, que es lo que más les interesa saber y comprender. ¿Qué falta hacen por otra parte en el *Catecismo* aquellas palabras, verdaderos barbarismos para un vascongado, pudiendo en lugar de ellas decir en su bella y limpia lengua: *Jaungoicotasuna, Irutasuna, iraun, aguertu, jaquintsua, bitartecoa, biotzberaa, eguiaz?* [16: 4-5]

Dena dela, eztabaidak aurrera jarraitu zuen, eta Eusebio Lópezek, berau ere batzordekidea zena eta Tolosako inprimatzailea, Gasteizeko gotzainari idatzi zion 1880ko urtarrilean, Gorostegiren itzulpena kritikatu, eta, jakina, Irazustaren itzulpena berriro argitaratzeko lizentzia eskatu. Tolosako inprimatzailearen ustez, “jatorragoa” izan nahi zuen Gorostegiren itzulpena –kasurako, *Jaungoicua dan partetik* erabili beharrean *Jaungoicua dan aldetik* emanez–, akats doktrinaletaraino iristen zen batzuetan. Horixe iradoki digu Eusebio Lópezek ondo pasartean, Coro Rubiok oin-ohar batean damaiguna [15: 447]:

Es un argumento pueril el que se emplea para combatir la traducción hecha por el Sr. Irazusta cuando no tenemos en bascuence términos propios o los ignoramos para expresar ciertos conceptos, especialmente sobre los dogmas. Y si se me dice que podía sin embargo haberlo hecho en vascuence más correcto contesto que el traducido por el Sr. Irazusta es más claro e inteligible que el del Sr. Gorostegui y que no tiene los defectos gravísimos en que ha incurrido éste. Por ejemplo, antes se decía en el Credo ...concebitu zan Espiritu Santuaren..., ahora el Sr. Gorostegui nos quiere enseñar a decir...sortua izan zan Espiritu Santuaren... Sortu quiere decir crear, inventar, pasar del no ser, etc. Así se dice Jaun-

goicoac egin zuan mundua eta gauza gustiac ere berac sortuac dira, que quiere decir Dios hizo al mundo y todas las cosas han sido creadas por Él. Si se quiere pues decir que el hijo de Dios N.S.J.C. fue sortua en este sentido, que es el sentido genuino de la palabra y tal como lo entendería todo vascongado, es una verdadera herejía porque viene a negarse la hipóstasis divina. (...) Pero Sr. D. Francisco, ¿dónde ha aprendido U. esa teología? ¿Persona de Dios! ¿En qué catecismo o autor católico ha visto U. ese modo de expresarse? ¿Pues U. mismo no nos ha dicho que hay tres personas en Dios cuando nos ha explicado el misterio de la Trinidad como U. la llama? Porque hasta ahora nosotros, ignorantes, decíamos Trinidad Santísima, pero esta voz de Santísima U. ha excluido de su catecismo sin duda por parecerle bárbara y nombra U. a secas Trinitadea, y aun para quitar a esta palabra su barbarismo porque huele a Castellano o a latín a Irutasun guciz santua le junta U. como correctivos el Irutasuna...Trinidade... Irutasuna voz vascongada significa así como cosa de tres.

Coro Rubiok beste zati interesgarri batzuk ere atera ditu Eusebio Lópezen eskutitz beretik; beste bat bakarrik aldatuko dugu hona [15: 448]:

Pero Sr. D. Francisco, si vamos a variar hasta las palabras sacramentales que tenemos para designar nuestros dogmas ¿cómo nos vamos a entender en adelante? Por Dios, no alborote tanto y déjenos vivir con nuestros barbarismos de lengua porque antes que vascongados somos católicos.

Ohartu garenez, katiximen aferaren kontakizunean hainbat topiko agertu zaizkigu, oso arruntak izaten direnak prosa zientifikoaren inguruko eztabaidetan. Batetik, Frantzisko Gorostegik euskararen txukuntasuna eta ulergarritasuna ekarri ditu autura zelan edo halan.

Bestalde, Eusebio Lópezek beste kontu askoren artean ezin argiago erakutsi digu, zehaztasun-falta terminologikoak heresiaraino eraman gaitzakeela, hau da, zerua galdu eta infernuko leizean betiereko sutara kondena gaitzakeela, zehaztasun-falta kontzeptuala adierazteaz gainera, jakina.

Eusebio Lópezen argudioak zuzenak baldin badira, dogma katolikoa hausteraino iritsiko litzateke, teologiaren alorrean *kontzebitu* barik *sortu* aditza erabiltzeak dakarren desegokitasun semantikoa. Hala izanik ere, gure egungo hiztegietan –[14], [17], [18]– ez duzu *kontzebitu* aurkituko, eta berorren ordez *sortu* sarrerara bidaliko zaituzte, hau da, infernurako bidean jarriko zaituzte. “Orotarikoa” begiratuko bagenu [19: 764], esan gabe doa, bertan bai topatuko duzu *kontzebitu*:

Documentado desde Leizarraga tanto al Norte como al Sur, aunque su uso es algo más frecuente al Norte. En el siglo XX su uso disminuye notablemente. (...)

Antzeko zeozer esan beharko genuke Gorostegik aipatu dizkigun adibideen gainean, eta, jakina, aipatubako hainbat eta hainbat kasutan. Horrelaxe-edo joan gara historian zehar gure lexikoa *deskolokatu*. Amuritzarekin bat nator, eta kamuskeria deritzot horrenbesteko eskrupuluekin ibiltzeari; areago, hizkuntzaren historiari uko egitea da hori. Ausartzia gehiago beharko genuke gure planteamenduetan.

Prosa zientifikoaren gainean dihardugularik, ematen du lekuz kanpo gabiltzala aspaldi bateko katiximen gorabeherak aztertzen, baina, nire ustez, oso ilustratiboak suertatzen dira. Zer esanik ez, dotrinen kasuan ozta-ozta zirriborratuta agertzen zaizkigun fenomenook, beste barnatasun batekin kutsatzen dute zientzia-prosa, edota, behintzat sentiberagoak gara, hurbilagoko alorra dugu-eta. Alabaina, batzuetan iruditzen zait, neurri batean, dotrinen joan-etorri horietan ondotxo islatuta dauzkagula zientzia-prosaren buruhausteak.

Nolanahi, kristau ikasbideen kontu hau amaitzeko, salto batean XX. mendearen hasieran kokatuko gara, eta Villasantek dioskuna arin batean laburtuko dut [20: 401-403]. Dirudienez, 1912. urtean *Jaungoiko-Zale* elkarteak eratu zen, eta, helburu nagusi, dotrina euskaraz irakastea zuen. Sasoi horretan, Bizkaian bakarrik bost dotrina desberdin erabiltzen ziren (Markina aldean, Mogelena; Durango aldean, Artzadunena; Orozkon, Laudiokoa; Gernika aldean, Busturiakoa; Arratian, berea). Elkartek, ganorazko ezer egitekotan, katiximen batasuna behar zela deliberatu zuen, eta horrela, katixima erreformatu ostean, Eguskitza jaunak eta Manuel Lekuonak burutu zituzten, hurrenez hurren, bizkaierazko eta gipuzkerazko bertsiok. Orduko jazokunen haria albora utzita eta emaitzak aztertuz, ikusi zer dioskun aita Villasantek:

...estando el ambiente cargado de preocupaciones puristas, era de temer que éstas pesasen más de la cuenta sobre los redactores. (...) Por fortuna, los redactores supieron mantenerse en cierto término medio, lo cual quiere decir que a veces también cedieron al prejuicio etimológico, que no debía haber contado para nada en esta materia. Así, la popularísima palabra “pekatu” (pecado) se intentó sustituirla por “oben”, “birtute” por “onoimen”, “gloria” por “aintza”, “penitentzia” por “oben-neke”, “misterioa” por “ezkutuki”, “Pasioa” por “Nekaldia”, “frutu” por “arnari”, etc. Otras veces se escamotea la dificultad, recurriendo a un rodeo por no mentar un vocablo de origen románico que en el caso parece indispensable; así, por ejemplo, al hablar del examen de conciencia, se le llama, sin más, “azterketa” dejando a un lado la voz “conciencia”, que no se quería citar en vasco por ser latina, y al no tener equivalente indígena se optó por no emplear el nombre ni ningún equivalente de él. El pueblo, sin tales escrúpulos, dice, como es sabido: “kotchientziako esamiña”. “Komunioa” (Comunión) fue sustituido por “Jaunartzea”, que, aunque

inteligible, no siempre tiene la practicidad del otro vocablo; “Konfesioa” por “Aitortza”, etcétera. En vez del usadísimo “obeditu” (obedecer) se emplea “esana egin”, también usual, pero menos preciso y exacto.

Horraingo aipua. Konturatu zarenez, zientzia-prosari buruzko eztabaidetako hainbat kontu agertu zaizkigu Villasantek katiximen gainean idatzitakoan, eta, izan ere, horko esaldi batzuk geure alorrean ia hitzez hitz errepikatzeko modukoak dira.

2. ZIENTZIAREN MINTZOA EZIN BATERATUZ

Hogeigarren mendearen hasieraraino iritsi gara katiximen inguruko gorabeheren hatzean. Hor geldituko gara une batez, eta erakutsi egingo ditugu, Jose Ramon Etxebarriaren periodizazioaren arabera euskal prosa zientifikoaren historiaurreko aitzindari biren ekarpen bana, zeinek bere aldetik darabilen ereduaren arteko urruntasunaz kontura gaitezen.

Euskarazko prosa zientifikoaren basamortu kiskalian, halako batean, ia-ia urte berean idazle bik, bata hegoaldekoa bestea iparraldekoa, gai berberaz idatzi zuten. Batetik, Jokin Zaitetik 1933an *Kizkiña* argitaratu zuen [21]; berrezarpen lexikal horrekin izendaturiko artikuluan, zelulari buruzko oinarritzko datu batzuk aurkezten ditu, orduko edozein testu-liburutatik hartuak diruditenak. Bestalde, Jean Etxepare medikuak *Zelulak* plazaratu zuen *Eskualduna* aldizkarian 1934an [22]; gaia era dibulгатiboan landuta dago, sasoi hartako irakurle xeheari zuzenduta, eta artez-arte irakurtzen da, euskalkia delata egon daitekeen oztoporen bat aparte.

Zaitetik (ikus: 1 eranskina) eta Etxeparek (ikus: 2 eranskina) sujet kasik berbera aukeratu zuten ia-ia urte berean; hala ere, gaia azaltzeko orduan nekez topa daitezke hizkera desberdinagoz ehundutako

testuak. Hizkuntza-eredu erabat kontrajarriak darabiltzate Zaitegik eta Etxeparek. Ez dirudi hizkuntza berekoak direnik ere: euskalkien arteko aldeak ezer gutxi dira, aipatutako testu bien arteko trokak eta amildegia aintzat hartuta.

Jokin Zaitegiren *Kizkiña* irakurtzean (ikus: 1 eranskina), niri testua ininteligiblea bainoago intrantsitiblea begitandu zait; esan gura dut ulertu egin dezakezula neurri batean irakurri ahala, astiro-astiro, baina behin eta berriro aurkituko dituzu irakurketa bera zailduko duten behaztopa-harriak, irakurketa benetan deseroso bilakatuko dizutenak. Eta zailtasuna, izatez, ez dator inondik inora Zaitegik darabilen gaia berez gatxa delako, behintzat biologia pixkatxo bat ikasi duenarentzat. Testuak dioskuna unibertsitatera joan baino lehena-go azaltzen da batxilergoko azken urteetan, eta beraz, ia edozeinek ulertzeko modukoa litzateke. Gure deserosotasunaren arrazoia, nik uste, Villasantek aurreratu digu arestian, XX. mendearen hasieran kokatu gaituenean, alegia, “...estando el ambiente cargado de preocupaciones puristas, era de temer que éstas pesasen más de la cuenta sobre los redactores”. *Jaungoiko-Zale* elkartekoek oreka mantentzen jakin ote zuten dudarekin gelditu naiz gorago; oraingo honetan, Zaitegik euskaratutako testua begien aurrean daukagularik, uste dut garbiegi gelditu zaiola. Ulergaitza.

Izenburutik bertatik abiatuta, Zaitegirena oztopo-lasterketa bat da behaztopa-harritik behaztopa-harrira. Beste ezer baino lehen, titulua bera argitu beharrean aurkitu da Zaitegi, eta, horrela, zelula esateko *kizkiñ* erabiliko duela diosku, nolabaiteko berrezarpen lexikalera jota:

I. *Kizkiñ-itza*.—Uda bero ta sargoria da. Basetxe aurreko larriñoan lanean ari dira. Mutillak, oyuka, ta aiton kolko-beltz arnas estuak, ardo zatoa arinduz, lanerako bizkortzen dira. Larrain bazterrean aurtxo txikia negarrez dago, gari-mintzak yo dulako.

Larrindu ostean, algotzez bilduta gelditzen dan gari-alea artu ta zuregana urreratzen dan aiton orri galdetu egiozu: Eskuetan daukadan gari-ale au nola deritzazute? *Kizkiña*, erantzungo dizu.

Beraz, kizkiña, algotzez jositako gari-alea duzu. Baña, nik izen au, oso egokia zait-eta, doiztarrak «zelle» eta españarrak «célula» deritzatena adierazteko darabilket.

II. *Kizkiña zer da?*—Zeatz-zeatz, argi ta garbi ulertu deza-zun txiki-ikuskiña artu ezazu... [21: 60]

Azkuek markatutako bidetik, Zaitegi ere ahaleginduko da hitz arrotzen euskarazko ordain garbiak bilatzen eta aurkitzen. Hau da, *sinesmen* berba jatorra edukita *fede* berba “arrotzaren” beharrik ez dugun bezalaxe (eta beraz ez dugu Azkueren hiztegian topatuko [12]), euskararen harrobiko *kizkiñ* horrek bete dezake, Zaitegiren ustez, *zela* hitzaren eginbearra (eta hortaz, euskaraz ez dugu behar).

Badago hor Azkueren printzipio oker bat, “purismo-eskola” baten sortzaile bihurtu zena euskal literaturan [9: 71]. Villasantek dioskunez, purismo horren jarraitzaileek ez zituzten neologismo arantarrak onartzen, “baina hor zebiltzan beti hitz jatorren bila”, nahiz eta “zabaleria eta sustrai ttipikoak” izan, erdaratiko elementuak baztertzeko; Villasanteren esanean, Olabide da eskola horretako segitzaile argienetako bat, eta joera horretakotzat dauzka Orixe, Andima Ibinagabeitia eta Zaitegi.

Zaitegiren *Kizkiña* bete-betean kokatzen da ildo horretan, eta, lexikoa (= *itz-sorta*) gehienbat Olabideri jarraituz osotu duela adierazi arren, batzuetan testuan bertan azaltzen du erabiliko duen hitzaren nondik-norakoa:

Kizkin-mamian alderdi bi berezi ditzakegu: bata, uraren antzekoa, urin eta gantz urtuaren edukoa; beraz, *kizkin-mami*

uriña deritzakegu. Bestea, berriz, sendo ta ermoa duzu: gatzatu ta mamitutako esnea, gogortu ta ziatutako odola Lapurdin «pirikorna» deritzate. Guk berriz, kizkin-mamia ageri dan alderdi gogorra *kizkin-mami-pirikorna* deritzakegu.

Pirikornaren egitamua, aztertu dezagun. Irakiten dagon esnea zoratu ta galdu danean, azal-gaña pikor ta aletxoz yosita ageri oi da. Aletxo oyek nere jaioterrian, «lapatsak» generitzan. Pirikornaren egitamua Altmann jakintsuaren iritxiz *lapats-egitamua* da. Bütschli ta beste batzuen ustez, pirikornaren egitamua, *apar-egitamua* duzu. [21: 64-65]

Izatez, inpresioa atera dezakezu, Zaitegi artikuluaeren mamiak berak baino gehiago arduratzen duela, mami hori euskaraz adierazteko erabiliko duen kodearen azalpenak:

XII. *Kizbilla*.– Zer-edo-zer txiki, xe ta mea danean *kiza* ta *kizi* dala diogu. Adibidez, ile-kiza, euri-kiza t. a. Kizkin-mamian ere, zer-edo-zer xe ta txiki baduzu: beraz, kiza deritzakegu. Gañera, biribila duzu. *Mendibil* itzak mendi-biribil, opil-itzak ogi-biribilla adierazten duten ezkerok, *kizbil* itzak kiza-biribila adieraziko du. Kizkin-mamian ageri dan aletxo biribila duzu kizbilla. Margo-gaien gurarik ez du izaten eta kizkin-gunaren urbilean izan oi da. Kizkiñaren bizialdi berezietan izarren antzera argi-izpiak yarioan agertzen da kizbilla. [21: 65]

Azalpenak azalpen, nik neuk Zaitegik artikulua-amaieran damai-gun hiztegiara jo behar izan nuen, jakin ahal izateko *kizbil* delako hori *zentrosoma* dela, zeren-eta, neologismoaren eraketa ri-ra bai argitu badigu ere, testuan ez baita ondo zehaztu hitzberri horrek zer demontre izendatzen duen, hau da, ea zelularen zein egiturari dagokion. Alegia, ez da ikusten denominazio horrek zein nozio daroan aldean, zein kontzeptu ordeztzen duen. Dena esateko, akats hori ez da bakar-baka-

rriik zorioneko *kizbil* horrekin gertatzen, izan ere, testuko berba gehienak gutxi-aski zehazgabeak dira, eta atzeko hitz-sortaren laguntza barik nekez ulertzen da unean uneko hitzarekin Zaitetik zer adierazi nahi duen. Testua lausoegia suertatzen da.

Eskuetan dugun *Kizkiña* irakurtzean, konturatu zarenez, ez duzu inolako elementu aloktonorik detektatu, eta, hain zuzen ere, horrexek zaildu digu irakurketa: garbiaren garbiaz, testuan ia-ia dena berria izan da, eta kode berri hori oso-osorik deszifratzen nekatu behar duzu burua; alabaina, kodea lausoegia da, ez da zorrotza, eta soilik gutxi-gorabehera ulertzen da, berez zehatza eta mehatza izan beharrekoa. Kontura gaitezen, bada, oraingo honetan zehaztasun-falta terminologikoak, infernuko leizera barik, ulertezintasunera kondenatu gaituela, zehaztasun-falta kontzeptualera. Eta, ez dago esan beharrik, zientzia-alorrean pekatu mortala da zehaztasun-falta kontzeptuala.

Behaztopa-harririk behaztopa-harrira ibiliko gara Zaitetirekin, ezin ulertuz. Alabaina, aurreko epigrafean katiximen gorabeheretan geldiu netxoa egin dugunean ikusi bezala, orduko eztabaida *Divinidadea, Trinidadaea, perseveratu, revelatu* eta horrelakoen ordezkoen ondandean zentratu da; berba bitan esateko, *kontzebitu* edo *sortu*, bietariko bat. Nolanahi ere, termino “arrotzak” (*Trinidadaea* kasurako) hein batean irabazita eduki izan du bere txokoa euskara baitan, eta gerora, euskal harrobiko ordaina asmatu zaionean (*Irutasuna*), berau haren hegapean joan da, haren eskutxotik ikasi dugu, eta hark eman dio duen esangura (“teknikoa”). Areago, sarri askotan elkarren ondoan agertu dira biak, termino berria behaztopa-harri ez suertatzeko. Gorostegik *Trinidadede edo Irutasun guciz santua* dioenean, *Trinidadede* horrek damaio esangura ondoko *Irutasun* galgarri horri: berez, behaztopa-harrira litzateke *Irutasun*, eta *Trinidadede*, ostera, pausu-harrira, beste ulertzen lagunduko duena.

Zaitetik ez du pausu-harririk kokatu bere testuan, eta ia-ia ito egin gara erreka horretan, irakurritakoa ezin ulertuz. Eskerrak ez

dela testua batere sakona izan. Dena dela, Zaitegi ez da etorri Gorostegi bezala dagoeneko euskara baitan sartuta eta gutxi-aski sustraituta dauden berbak ordeztara. Zaitegi berba aloktono horiek “guztia” ukatzera dator, langa jartzera dator. Jakina, aspaldian gauzatuta dago azaldu digun gai horren alorreko teknolektoa; izatez, urratsez urrats joan da osotuz Europako mendebaldeko komunitate zientifikoan, baina, antza, ez du euskararen baitan sartzeko astirik eduki, elizaren teknolektoarekin gertatu denaren kontrara.

John Faber mediku naturalistak 1625ean zizelkatu zuen “mikroskopio” berba, lehentxoago eraturiko “teleskopio” ospetsuagoaren antzera [23], eta horren ostetik gaineratu dira zitologiaren alorreko terminoak, milaka kontatzen direnak. Baina, 1625etik aurrera Europako hizkuntza nagusietan bueltaka dabilen berbak, ku-ku bakar bat egin zuen euskaraz mende bi geroago, eta berriro desagertu zen. Hain zuzen ere, 1827an eman zen argitara Iruñean *Erle gobernatzalleen guidariya, edo erleac gobernatceco modua*, Fray Joaquín de Santa Bárbara kameldarrak gaztelaniaz ondutakoaren itzulpena; bada, liburu horretan agertu zen lehen aldiz mikroskopio hitza euskaraz (*beguiratu cien biai microscopioarequin, eta etzuan aen artean diferenciaric batere arquite* [24: 52]), eta hori, Xabier Kintanaren hipotesian [24: xiii], Ignazio Balentin Pagadizabal izeneko itzultzaile ezkutuko baten eskutik. Alabaina, mikroskopio pausu-harria eskueran eduki arren, itxuraz Arnaud Abadia jaun kalonjeak ez zuen baliatu laborantzari eskainitako artikulu gogoangarrietan, eta berorren ordeztara perifrasi behaztopagarrietara jo zuen (= *bixta ainitz azkartzen duten berina batzu*) [5]. Nolanahi, arestiko pasarte batean ikusi dugunez, Zaitegik “txiki-ikuskiñ” erabili du, eta atea itxi gura izan dio mikroskopio delakoari. Dena dela, 1921ean Azkuek “sogailuxko” erabili zuen, baina, berorren ondotik “mikroskopio” pausu-harria kokatuz [25]. Bide beretik-edo, Gerhard Bahr euskaltzale legazpiarrak “xikikusle” erabili zuen 1922an argitaratutako artikulu batean [26].

Halandaze, Zaitegik lexiko berria osatu nahi du zitologiaren eta, oro har, biologiaren alorrerako, baina, erabat bestelakoa Europako hizkuntza nagusietan erabiltzen den teknolektoarekiko. Eta, hain zuzen, bestelakotasun horrek bihurtu digu *Kizkiña* ininteligible eta inpraktikable. Nazioarteko teknolektoan aspaldian finkaturik dauden terminoak zelan edo halan moldatu eta geureganatu beharrean, Zaitegik hiztegi hori goitik behera garbitu nahi izan zuen, eta ondorioz, pausu-harriak izan behar zirenak behaztopa-harri bilakatu zizkigun. Garbitu ordeztu lardaskatu, Villasanteren eran esateko [9: 63]; eta areago: “Hortik joaz, zer moduzko kultura egin daiteke hizkuntza batean? Honelako tresneria eskas eta zehaztugabeaz, ezer gutxi, inolaz ere” [9: 85]. Mitxelenak beste era honetara laburbildu zuen kontua: “Mirestekoa da, benetan, nola zenbait idazlan eder –Lizardiren poesia, esaterako– sortu ziren garai horretan, hiztegia horrela murriztu eta soildu ondoren” [27].

Jean Etxeparek ez zuen Zaitegiren bidea ederretsi, eta, izatez, badi-rudi hein batean *Zelulak* artikulua Zaitegiri ihardetsi diola, eta badiotsola gauzak izendatzeko beste modu bat dagoela:

Eskualdunaren irakurleak badaki, elgarri lotuak diren izpika batzuek egiten dutela gure gorputza. Izpika horiek deitzen ditugu zelulak, bertze mintzai gehienen ara bertsurat.

(...)

Guneka, eta gunetik gunera beren itxuraz, moldeaz daukaten eremuaz berexak dira zelulak, hala nola harresi batean harriak. Berexak dira oraino beren egitekoaz: larrukoek ez dute lan edo eginkizun bera ukanen, nola buru-muinetaoek.

Arras izpika ttipiak dira zelulak. Mikroskoparen ararteko baizik ez ditzazkegu ikus. Milimetra bat zonbat den badakigu orok; asma ere dezakegu zombatekoa ditaken milimetra baino mila aldiz ttipiagoko zer bat. Jendearen baitako zelula gehie-

nek, milimetraren milagarren partean hamabortz alditarik ehun alditaraino daukate bakotxak, nunbait han [22: 75-76].

Horrelaxe hasi zuen *Eskualduna* aldizkarian 1934an argitaratutako artikulua, eta bertan aurkitu ditugu, besteak beste, “zelula” eta “mikroskopia”, argi eta garbi arbuaiatuz Zaitegiren egiteko modua. Areago, praxi horrez gainera Jean Etxeparek lehenagotik ere 1928an idatzia zuen:

Nola deitzen diren ere poxika hek on da ikas dezazun, azken mendetik hunat zerbait dakitenek mihian baiterabilizate noiz nahi, eta ez baita zuzen egon ziten zu, beharriak idekirik, entzuten alferretan. Anglesek delako izpika horier emana dute izentzat *cel*, espainolek, *celula*; frantsesek, *cellule*. Bertze mintzai gehienetan ere holatsu dituzte deitzen.

Guk euskaldunek ez daiegu behinere eman izenik, ausartatu eskasean naski. Hanbat burua berotu gabe, iduri zait deitzen ahal gintuzkela frantsesek eta espainolek bezalatsu, erranez izpika txar hoitarik bakotxarentzat *zelula* bat dela.

Izen bat gauza baliosa da. Oroit eta ez sekula ahantz, gure gorputza egina dela, ile puntetarik hasirik zangoetako eri muturretaraino, egina dela *zelulaz*, hala nola harresi bat.

Zelula edo *cellule* norbaitek aipatuko dauzularik, jakinen duzu hemendik aitzinat zertaz zaitzun mintzo, gehiagoko xehetasunen beharrik gabe [28].

Jean Etxeparek nazioarteko bidea hobetsi du, eta, hain justu, “burua berotu gabe” ikusi duzunez: seinale, Aldudeko bazterreraino iritsi zela zebilen eztabaidaren oihartzunen bat edo beste. Eta bide beretik “mikrobio” eta beste termino horietariko asko erabili zituen. Nolanahi, Jean Etxepare ez zen lehena izan mikrobio hori euskaraz erabiltzen, “Orotarikoak” adierazten duenaren kontrara. Izan ere,

goratxoago aipatu dugun Arnaud Abadia lotsorak “...*mikrobe* deitzen diren aberetcho hek ez daitezkeela lanean har. Beraz *mikrobe* haukiek...” idatzi zuen 1905ean [29: 28], eta berorren antzera “*Mikrobe* deitzen diren aberetchoak, baita pozoinda dezaketekeen edozein gaijak mihatzen edo ikhertzen dire” irakur daiteke Felitz Kanpan Baionako botikarioaren propagandan [30].

Alabaina, luzaroan Piarres Lafitte euskaltzainaren iritzietara plegatu izan dugu Jean Etxepareren balioa, eta, eman ere ematen zuen Lafitte izan dela Etxepareren irakurle bakarra, izatez haren zentsurataile porrokatua izan delarik. Hortaz, Lafitteri *Etxepare jauna laster jarri zen eskuara garbiari; hainitzak ere badaude ez ote zuenetz azkenean garbiegi* irakurri genionean [31: 12], esaldia hitzez hitz hartu eta Etxepare medikua garbizaleen zakuan sartu genuen beste barik. Seguru nengoen, orobat, Pierre Buruzainen eragin teutonizatzailea jasoko zuela bere hurbileko inguruan [6], eta horrez gainera ezin da ahaztu hegoaldeko orduko giroa. Lafittek honelaxe azaldu digu kontua:

Gerlatik landa, Etxepare jauna nehoiz ez bezalako kar batekin lotu zen berriz ere eskuarari. Broussain Hazparneko eskualzale suharrak sustaturik, itzuli handi bat egin zuen mendiz haraindiko Eskualerrian barna: gogo-bihotzak bete zitzaizkon hango argiaz, hango lurrez, hango anaiez, eta *Eskualdunak* ager-arazi zituen haren oharpen politak. Orduetik beti hango berri jakin-nahia egon zen, izan zadin politika-berri, ala liburu-berri. Adixkide minak ere egin zituen, hiri hetako jaun eskualdun zintzo eta argituen artean. [31: 16]

Zer esanik ez, pentsatu izan dut hegoaldeko purismo eta txukuneria guztiak kutsatuko zitzaizkiola gehiago edo gutxiago, eta, izan ere, M. J. Kerexetak [32] egiaztatu du hein batean eragin horren zer-nolako: Etxeparek berak asmatutako neologismoak (*eiken, goipularri, zaintzozte...*), mugaz honantzako era askotako hitzak (*enda, olerki, askatu, gizairudi, gizadi, udaletxe, ekandu, ikuskizun...*), eta, bestalde,

garaiko beste idazleek baino hiztegi baxenabartarragoa (*sargi, fleit, ukare, botiges, uzkaili...*). Halaber, Emilio Lopez Adanek bildu du medikuntzaren arloan Etxeparek baliatu zuen lexikoa [33], eta hor, Azkueren joera garbizalea suma daiteke, besteak beste.

Halandaze, hegoaldeko kutsaduraren uste horrexek ez dit utzi buruan sartzen, Etxeparek berak behin baino gehiagotan esplizituki idatzi duena: “burua berotu gabe” - “bertze mintzai gehienen ara bertsurat” - “bertze guziek bezala zendako ez ginuke behar deitu guk?”. Etxepareren idazlanetan horrelakoak behin eta berriro aurkitu arren, niretzat enkriptatuta-edo egon da adierazpen horien zentzua, eta ez dut ikusi begi-bistakoa dena. Alegia, Etxepareren euskara bai da garbia, baina ez da garbizalea, konturatu zarenez (2. eranskina).

Okerreko pertzepzio batekin ibili gara. Hobeto legoke esatea *tin-koegia dela eta dorpea idazle honen euskara* [34: 7], eta, seguruenez, izate horrek sortu du Etxepareren gaineko inpresio faltsu hori. Areago oraindik, duela gutxi ohartu gara Jean Etxepare Seber Altuberen jarraitzailea dela, hau da, garbizalea ez izateaz gainera joera hori oso kaltegarritzat daukala. Oraintsu jakin izan dut, bai Etxepare eta bai Altube Gernikan egon zirela Eusko Ikaskuntzaren III. kongresuan, 1922an, eta, “adixkide min” bihurtu ote ziren egiaztatzerik eduki izan ez badut ere –baiezkoan nago–, hona ekarri ditugun aipuetan argi dago Etxeparek bere egin dituela, Altubek han aurkeztutako ideiak [35], euskararen hiztegegintzaren desbiderapena salatzen zutenak. Izan ere, Etxepare medikuak behin eta berriro egiten du nazioarteko terminoen alde, Altubek plazaraturiko ideiei eutsiz. Gesu batean aurkeztuko ditugu ideiak.

3. ASINTOTAN GORA ELKAR HARTUTA

Urteak joan, urteak etorri, gure zientzia-prosa ahalegin kolektiboa izatera iritsi zen 1970. urtearen bueltan, hasieran aipatu dugunez [3].

Orduan abiaturiko lagun-taldeen lehenengo emaitzetariko bat *Natur Zientziak hiztegia* izan zen, Jakinek 1976an plazaratu zuena [36].

Ni neu liburu horregaz hasi nintzen euskarazko kontuetara hurre-ratzen, eta, besteak beste berorretan aurkitu nituen, egokitu zitzaizki-dan lehen hiztegi-hutsuneetarako erantzunak, Leioako ZEKTren aba-roan (Zientzietako Euskal Kultur Taldea). Bere orrialdeetan ikasi nituen *giltzurringaineko kutxatila, zihilketa, bizitzagatiko burruka, janzkiberrikuntza, gongoila, barrabil zorroa, guruina, lekuzaldakuntza, bestejalea, lorautsa, lubeltza, oskol-janzkia, ehoardatz tintagaitza, epite-lio geruzatu solairuzkoa, hun mintza, zoikaztegia, ugaztuna, hautespen naturala* eta beste maaaaakina bat, eta, areago, bere lerroetan adoretu nintzen, handik aurrera euskaraz azaltzeko ordura arte erdaraz jaso nuen guztia. Kontua da hasierako erabilera usua lantzean-behingoa bilakatu zela apurka-apurka, eta ia konturatu barik apal batean utzi genuen, agortuta-edo.

Goizean berriro koiu dut orduan ondo baino hobeto forratu nuen hiztegia, eta, oroitminaren lehen printzekin batera, nor-eta Zaitegi begietaratu zait haren orrialde horituak pasatu ahala. Sarrerarik sarre-ra nabilela aurrera eta atzera, Zaitegiren ereduaz idatzita dagoela izan da nigan gailendu den inpresioa. Atarikoan *ehundaka eta ehundaka hitz erdaratiko horietakoak* (onartu) *direla* irakurri arren [36: xxxix], eta egia da atea zabaldu egin zaiela, zenbat eta hiztegia gehiago iraku-ri biziago egin zait *Kizkiñarekin* aurkitu diodan antza. Beste era batera esateko: nahiz eta *ehundaka eta ehundaka* pausu-harri kokatu, *Natur zientziak hiztegia* behaztopa-harriz mukuru dagoela begitandu zait gaurko perspektibatik.

Hala ere, asmoa desberdina da oraingo honetan. Zaitegiren asmoa euskararen esparrua langatzea bazen ere, *Natur zientziak hiztegiaren* atarikoak behin eta berriro diosku *erdaratiko hitza gorde eta erabili dugu, euskarazkoa argitzaille bezala jarritz* [36: xl]; ageriago beste aipu honetan:

...euskarazkoak erdaratikoa esplikatzeko laguntzen du: adibidez, *entomofilo* hitza erdaratik hartu da, baina ondoan ematen da *insektuzale* euskarazkoagoa; *geofilia* onartzen da, baina *lurzaletasuna* hitza alboratzen zaio; *habitat* hitza ez da baztertzen, baina *bizigu* hitzari ere bidea ireki nahi zaio; *hipoge* (sic) beharrezkotzat jotzen da zientzi mailan, baina *lurpekoa* hitza, laguntzaile bezala, egokitzen jotzen da; *pelagiko* esaten da, baina baita *itsas-zabal* ere; *anfibio* baztertzea zaila gertatzen da, baina beste *bizierabiko* hitza (eta *ur-lehortar* eta *urlutar* ere bai) egokiak izan daitezkeelakoan jartzen dira. [36: xxxviii-xxxix]

Asmoak asmo, hiztegia ezin beteago dago “laguntzaile eta argitzzaile” bizkarroi horietariko, eta, ondorioz, Zaitegirena ematen du, edulkoratuta baina. Izan ere, “laguntzaile eta argitzzaile” horiek larregi hazi eta leku gehiena bereganatu dute aipatu hiztegiaren. Neuri aspaldi bateko Gorostegi eta bere *Trinidad edo Irutasun guciz santua* gogorarazi didate, baina, “irutasun” modukoek azken batean irentsi egin dituzte “trinidad” erakoak. Konturatu orduko, beraz, morroiak nagusitu. Zurkaitzak errotu.

Laguntzaile eta argitzzaile izateko eratutako hitzberri autoktono horiek nagusitu eta errotu egin ziren, baina, *Natur Zientziak hiztegiaren* orrialdeetatik askatuta, alor guztietara zabaldu dira gehiago edo gutxiago, eta, denok dakigunez, bakar-bakarrik ibiltzen dira gehienetan, eta ez benetako termino aloktonoaren eskutik. Kontua da Zaitegiren joera hori nabarmenegi agertzen dela gure artean sari askotan, eta, horrenbestez, aloktonoari esparrua murriztu nahiz, sari askotan jitoan ibiltzen gara zehaztasun-falta terminologikotik zehaztasun-falta kontzeptualerantz, dibagatzen, Xabier Amuritzak kritikatu bezala. Urrunago joan barik, irakurri berri dugun aurreko aipuan agerturiko adibide autoktonoetan kontura gaitezke desmasiaz.

Zientzia-prosaren eredurako, nik neuk, askoz egokiago deritzot Etxepareren joerari, hots, nazioarteko terminoak parra-parra maile-

gatzeari [7: 55-69]. Alabaina, aspaldikoa da Zaitegi/Etxepare dikotomia euskaldungoaren baitan, eta, antza, ikuspegi biak joan-etorrian dabilta marea bezala-edo, baina, beti presente ageriago edo kuku-tuago eta, okerragoa dena, beti alferreko lehian. Honezkero, bada, nahitaezkoa da drogan ibiltzeari utzi eta joera antagoniko bi horiek bideratzea, biak elkar hartuta. Esan gabe doa, erdibidea izan ohi da erremedioa muturreko jarrera bi elkartu nahi direnean, eta, beraz, joera biak gardainatzea da soluzio baterako abiapuntua. Hau da, zelan edo halan bateratu beharko ditugu Zaitegi eta Etxepareren ikuspegiak: bientzako leku edota zeregin egokia bilatu beharko dugu. Adostutako eredu bat itxuratu beharrean gaude, ea azkenik ebazten dugun gure amaigabeko eztabaida aspergarria.

Ildo horretan, erdibidea esatean ezin da pentsatu konponketa salomoniko batean, halatan non, joera bakoitzari “ume” erdia baitagokio besterik gabe. Ganorazko eredu bat planteatzeko, derrigorrezkoa da zer behar dugun jakitea, eta horretarako joera bakoitzak zer eskaintzen digun. Ahaleginduko naiz eztabaida koordinatu horietan kokatzen.

Nire ustez, hizkuntzaren duintasuna azpimarratu nahi izatea litzateke Zaitegiren bideak duen birtute nagusia, baina, Altubek dioskunez [35: 80], Juan Irazusta Hernialdeko erretorearen osteko “erderakadaz jositako ta euskerazko izenik ere merezi eztaben lotsagarritzko liburu batzuk (...) bestalderantzeko gogo larregiko bat” sortu zuten, alegia, “erderatiko itzai iguin neurritz kanpokoa”, muturrekoa. Eta, dakigunez, tantaka hasi zen hitzberrien isuria uholde bilakatu da, gure hiztegiak gainezka egiteraino; Mitxelenak zorrotz antzeman zion: “hor egoten dira azkenik inoren onginahiak, apetak eta ezjakinak asmatu dituen bitxikeriak, odolik ez duten hutsaren hurrengo iratxoak, hain zuzen ere ingelesez *ghost-words* deitzen dituztenak” [27: 41]. Geure honetan, behaztopa-harri –eta bai zurkaitz ere– esan diegu *ghost-word* horiei.

Hau da, hizkuntzaren duintasunaren ideiarekin batera, adostutako eredurako makina bat iratxo, makina bat behaztopa-harri dauzka-gu han-hemenka agertu direnak, eta euskararen baitan nolabaiteko bidea egin dutenak. Horientzako leku aproposa bilatzeak ez du esan gura, ez horixe, euskararen teutonizazio-prozesuari [1: 143-144] oniritzia eman diogunik. Izan ere, ez zaigu batere komenigarria iruditzen, *Kizkiña* delakoan ikusi bezala, termino zientifikoak “etxeko” ordainez ematea, era sistematiko batez. Ikusi dugunez, guztiz kaltegarria suertatu zaigu historian zehar, eta erokeria litzateke oraindik ere horretan tematzea. Jakina, gaur egun inork ez bide du erabateko teutonizazioaren alde egiten, baina, horren zantzuak edonon aurkituko dituzu txitean-pitean.

Esate baterako, eta batere asago joan barik, *Hiru mila Hiztegia* hartuta [17], paradigmatikoa bilakatu zaigun adibidea bilatuko baze-nu, alegia, *carnívoro* terminoa begiratzen baduzu erdarazko sarrere-tan, ordain posible birekin egingo duzu topo, *haragijalerekin*, jakina, eta, zer esanik ez, *okelajalerekin*, hiztegia Made in Bizkaia da-eta. *Hiru milak* ez du *karniboro* ematen, ordain bi horiez gainera. Eta modu berean, soilik aurkituko dituzu *belarjale* eta *orojale*, beraz, atea itxi zaie baita, *herbiborori* eta *omnivorori* hurrenez hurren. Badirudi egileak teutonizazioaren tentazioan erori direla, eta, horrenbestez, ale-manetz bezala-edo, termino horien kultur erroak euskal harrobiko osagaiez ordeztu dituzte. Kontua da, soil-soilik horrela eraturako “laguntzaile eta argitzaile” horiek opesten zaizkiola, kontzeptu horiek euskaraz zelan esan bilatzen dabilenari: bilatzaile horri ukatu egiten zaio, hain zuzen ere, termino kanonikoaren aukera. Gorago esan bezala, morroiak nagusitu egin dira, zurkaitzak errotu. Ez naiz hemen luzatuko azaltzen horrelako zurkaitzak noraino desegoki izan daitez-keen (ikus [7: 55-69]).

Beste asko ere gisa horretara topatuko dituzu *Hiru milan*: *autok-ono* barik, *bertako*; *azefalo* barik, *burugabe(ko)*; *aurifero* barik, *urre-*

dun; akuifero barik, *urdun; anelido* barik, *eraztundun; ekimosi* barik, *ubeldura; hipokondrio* barik, *saihespe; intsektiboro* barik, *intsektujale...*

Nolanahi, ugariagoak dira binaka-edo datozenak, dela termino kanonikoa aurretik eta beronen ondoan “laguntzaile eta argitzaileak”, dela alderantziz. Esaterako: *arrainjale, iktiofago/ saprofago, usteljale/ alejale, garaujale, graniboro/ gizajale, antropofago, kanibal/ oskoldun, krus-tazeo/ eztendun, himenoptero/ errule, obiparo/ erremin, bihotzerre, pirosil/ sukar, pirexial/ metatartso, oinorrazil/ sexagesimal, hirurogeikako, hirurogeitar/ tetrapodo, koadrupedo, lauhankako/* eta abar. Jakina, ez dira falta termino kanonikoa soil-soilik damaiguten sarrerak, eta, izan ere, badi-rudi begi-kolpe batez hauexek direla arruntenak. Esate baterako, kati-ximen gorabeherak ikusi ditugunean aipatutako *hipostasi* delakoa, edo *heliofilo* eta *hidrofilo*, harrigarriro zurkaitzik gabe datozkigunak.

Alabaina, bilaturiko terminoaren “maila” beheratu ahala, soil-soilik euskarazko ordainak aurkitzeko probabilitatea izugarri emendatzen dela ikusiko duzu, eta horrela, mendebaldeko kulturak komunak diren hitzei atea itxi nahiz-edo, hiztegi guzti-guztia –euskararena, ez bereziki *Hiru mila– deskolokatuta* daukagu [8], bai hizkuntza-ma-lak eta bai berben esangurak ere edozein modutara nahastuta. Eta lehengora itzulita, nire ustez, horrek guztiorrek eredu teutonizatzaile baten eraginpean idatzita egotearen itxura ematen dio sarri askotan gure zientzia-prosari, alde aurretik horretarako asmo kontzienterik egon ez arren. Izatez, neuk, lexiko-kontuetan eredu argi baten gabe-zia sumatzen dut beste ezer baino gehiago, azken batean, “auzia ahul eta motz planteatzen dela”, Xabier Amuritzaren hitzetan adierazteko.

Jakina, zenbait idazlanek kristoren eragina eduki izan dute teutonizazio lausotu horren alde, baina, ez horrenbeste plazara ekarri diz-giguten argudioen onezia dela-eta, sinatzaileen izen handiaren ondorioz baizik (ikus [37: 113], [38], [39: 34]). Areago, egileak euskaltzainak izateak gaitzespen instituzional moduko baten itxura sortu du, oso dudazkoa dena Euskaltzaindiaren jardun arruntari begira

(Hiztegi Batua, barbarako), baina nahikoa eraginkor hainbat eta hainbat ikasle, irakasle eta hizkuntza-zuzentzailearen begietan. Neurri batean bedeinkazio moduko bat eman diote teutonizazioari oro har, eta, hein berean-edo, nabarmenago geratzen da termino arrotzen erabiltzailea, deskalifikatuta. Alde horretatik, idazlan horiek txarrerako suertatu dira, zeren, haize berria hauspotu baitiote, apurka-apurka bada ere gesalduz zihoan joera teutonizatzaileari, eta merezi duena baino garrantzi gehiago aitortu zaio.

Nik neuk, Etxepareren naturaltasuna hobetsiko nuke, eta maileguari leku zabalagoa eskainiko nioke, “burua (larregi) berotu gabe”. Leku hori zein izan daitekeen, Petöfi-k proposaturiko eskeman zehaztuko nuke [40], [41: 85-87], [1: 134]. Alegia, komunikazio zientifikoan maila desberdinak daudela onartuz, hau da, edozein gai sakontasun desberdinez azal daitekeela onartuz, maila bakoitzak hizkera-modu bat eskatuko du, lortu nahi den zehaztasunak derrigortuta. Petöfi-k lau maila definitu ditu, hots, a-tik d-rainoko gradazioa, halatan non, diskurtso zientifikoaren zehaztasuna galduz baitoa argitasunaren alde: nolabait, a mailako idazlanak erabat espezializatuak izatean guztiz kriptiko eta ulergaitzak izango dira irakurle arruntarentzat, eta b eta c mailetan pixkanaka argiago suertatuko zaizkio, d mailako idazlan dibulgatibo erraz-errazetaraino.

Eskema horretan, esan gabe doa, *haragijale*, *belarjale*, *orjale* eta era horretako berba askok (ez guztiek!) badute euren toki egokia sailkapeneko behe-mailetakoko diskurtsoetan, eta, halaber, goi-mailakoe-tan badute euren *karniborok*, *herbiborok*, *omniborok* eta kultur errozko gainerakoek. Jakina, idazleak berak ikusi beharko du kasuan kasu zein termino-mota aukeratu, idazki ahalik eta ulerterrazenak ehuntzeko, aldi berean zehaztasun kontzeptualari muzin egin gabe. Idazleak berak deliberatuko du zein komunikazio-maila komeni zaion.

Petöfi-k lau sakontasun-maila bereiztu ditu goitik beherantz bere sailkapenean, aipatu bezala. Dena dela, maila horiek ezari-ezarian

aldatzen direlarik, ezin da euron arteko banaketa argirik ezarri, eta Hoffmann-ek, lau barik, bost maila (a-tik e-raino) ikusi ditu gradazio horretan, hurbilketa-modu bera erabili arren [42: 62-65] (ikus 1. taula).

	<i>Nivell d'abstracció</i>	<i>Forma lingüística</i>	<i>Àmbit</i>	<i>Participants en la comunicació</i>
A	més elevat	símbols artificials per a elements i relacions	ciències fonamentals teòriques	científic ⇔ científic
B	molt elevat	símbols artificials per a elements; llenguatge general per a les relacions (sintaxi)	ciències experimentals	científic (tècnic) ⇔ científic (tècnic)
C	elevat	llenguatge natural amb terminologia especialitzada i sintaxi molt controlada	ciències aplicades i tècnica	científic (tècnic) ⇔ directores científicotècnics de la producció material
D	baix	llenguatge natural amb terminologia especialitzada i sintaxi relativament lliure	producció material	directores científicotècnics de la producció material ⇔ mestres ⇔ treballadors especialitzats
E	molt baix	llenguatge natural amb alguns termes especialitzats i sintaxi lliure	consum	representants del comerç ⇔ consumidors ⇔ consumidors

1. taula: Zientzia-prosaren zehaztasun-mailak, Hoffmann-en arabera [42: 64].

Sailkapenak sailkapen, ideia bat da hemen azpimarratu gurako genukeena, alegia, maila bakoitzak hizkera-modu berebizikoa duela, forma linguistiko bereizgarria, eta, hain zuzen ere, horrexek ahalbide-tuko digu era desberdinetako hitzekin jokatzeari, sakontasunean gora edo behera egiten dugunaren arabera. Ideia berberera iristeko, baina, beste bide batetik abiatuko gara orain, eta horretarako plebifikazio delakoa aurkeztuko dugu [1: 144-146].

Ingelesezko testuetan sarri askotan ikusten dugu, termino zientifiko kanonikoen ondoan bestelako ordezeko arruntak erabiltzen dituztela txitean-pitean. Kasurako, arestian aipatu dugun *karniboro* horrekin batera, edota gabe, *flesh-eating* eta *meat-eating* ordainak aurkituko dituzu. Era horretako adibideak milaka agertzen dira ingelesezko idazlanetan; adibidez, 2. taulan metatu ditugu *The Song of the Dodo* dibulgazio-liburu zoragarrian David Quammen-ek erabili dituenetarikoa hainbat eta hainbat [43].

Nolanahi, baten batzuek ez dute oso gogo onez hartzen “termino bernakular” edo *folk-term* deritzen horien erabilera teknikoak, eta, ildo horretatik, zientzi hiztegiaren plebifikazioaz mintzo dira [44: 7-29]. Plebifikazio izenak berak nolabaiteko errefusa adierazten digu, plebea gogoraraziz, eta, izan ere, Nybakken-ek makina bat desabantaila egotzi dizkio, gehienbat plebifikazioak aldean daroazan zehaztasun-falta terminologikoa eta zehaztasun-falta kontzeptuala azpimarratuz. Areago, Nybakken-en ustez, zientzi idazlanetan termino bernakularrak onartzeak berba teknikoen eta ez-teknikoen nahasketa desatsegina gauzatzen du, eta, horrenbestez, idaztankera bera itxuragabetzen [44: 14]. Zer esanik ez, Nybakken-ek, termino bernakularren ahuldadeak zerrendatu ostetik, greziera eta latinetikokultur erroez osoturiko terminoen onurak azpimarratu dizkigu, bere liburua horiei buruzkoa da-eta. Abantaila horietariko bat bakarra aipatuko dut hemen: greziera edota latinetikok elementuez eratutako berbak agertzean, une horretantxe igartzen da termino teknikoak direla, eta, hortaz, euren agerpena bera da adi egoteko abisu bat. Izatez, behin baino gehiagotan, arrotz-izate horren, arrotzasun hori edukitzearen desioak ekarri du oso hurbilekotzat jo izan diren latin-errozko terminoak baztertu eta grezierazkoak hobestea (*karniboro*→*sarkofago* edota *zoofago*; *herbiboro*→*fitofago*; *multilingue*→*poliglota*).

tree-climbing rodents/ termite eater/ surface-foraging microgales/ insect eaters/ bird-catching spider/ egg-laying flies/ blood-sucking sand flies/ bee-eaters/ English-speaking world/ population-limiting “checks”/ ocean-voyaging humans/ sea-crossing butterfly/ island-hopping journeys/ surf-diving iguana/ island-dwelling rail/ stupid-looking flightless pigeon/ flesh-eating animals/ beach-loving plant/ sun-loving ferns/ shade-casting trees/ self-sustaining population/ strong-flying species/ weak-flying species/ fig-eating bird/ flyeater/ water-loving elephant/ four-footed creatures/ meat-wolfing gluttony/ ground-nesting birds/ egg-eating predator/ muscle-building exercise/ mountain-dwelling geophiles/ mountain-dwelling carabids/ stream-loving species/ tree-loving species/ dirt-loving ground beetle/ territory-holding male/ head-bobbing display/ dull-looking finches/ sand-digging insect eater/ rock-probing insect eater/ bamboo-eating lemur/ woods-loving tomboy/ thirst-tolerant species/ niche-partioning differences/ fruit-eating birds/ tame-seeming animals/ crab-eating macaques/ fat-bearing domestic beast/ monkey-eating vice/ meat-ripping teeth/ alien-seeming creature/ sheep- and cattle-raising enterprise/ plant eaters/ meat eaters/ newspaper-reading public/ mast-bearing deciduous habitat/ food-seeking flights/ night-flying mosquito/ forest-dwelling birds/ bird-eating tree snake/ ground-lurking species/ nectar-gathering animals/ far-ranging predators/ seed-killing fungi/ flesh-eating beasts/ model-building approach/ theory-testing experiment/ elephant-eating komodos/ shade-loving understory vegetation/ canopy-dwelling creatures/ ant-following birds/ light-loving species/ large-bodied and wide-ranging predators/ swash-buckling herpetologist/ leaf-mining insects/ bird-banding interns/ self-mocking label/ birdwatching skills/ bird-slaving tour/ bird-eating spider/ swivel-eyed and slow-moving chameleon/ French-speaking clients/ animal-breeding literature/ captive-breeding program/ home-loving kestrel/ food-gathering difficulties/ rock-climbing predators/ monkey-eating eagle/ cliff-hugging vine/ doom-threatening convergence/ Portuguese-speaking Brazilians/ earth-moving, cement-slinging crews/ snake-loathing people/ fast-flowing riffles/ fast-maturing creatures/ low-flying plane/ sail-bearing dugouts/ mate-shopping females/ soul-withering biological loneliness/

2. taula: *The Song of the Dodo* liburuan aurki daitezkeen termino (plebifikatzaileetariko) batzuk [43].

Dena dela, alferrik bilatuko dituzu hiztegieta *flesh-eating*, *meat-eating* eta era bereko termino bernakularrak. Ingeleseztako hiztegiek ez diete lekurik eskaini era horretako sarrerei. Argigarria da, guztiz, *Oxford English Dictionary* [45: xxxi] omisio hain nabarmenerako damaigun azalpena: oso nekez bereiz daiteke hitz-elkarketa horiek noraino diren lexikografoarentzako langai edota zein neurritan diren gramatikalak², alegia, ez dute argi hiztegirako “hitzak” ote diren, ala esaldi-zatiak. Edozelan ere, guztiz tautologikoak izaten dira, *self-explanatory* izaten dira, eta ez dute inolako definizio beharrik edukitzen, izatez mikrodefinizioak baitira benetako hitzak bainoago; horrenbestez, ez dute sarrerarik hiztegieta, eta, gehien-gehienez, jasota agertzen dira konbinazioaren lehen elementuaren arabera.

Beharbada, horretantxe datza plebifikazioaren eta teutonizazioaren arteko diferentzia nagusietariko bat: plebifikazioaren kasuan termino plebifikatzaileek nekez eskuratzen dute hiztegien onespina, eta soilik termino kanonikoek dute sarrera bana; teutonizazioaren kasuan, ostera, termino teutonizatzaileak dira hiztegien bedeinkazioa lortu dutenak, eta, areago, termino kanonikoak ezabatu egiten dira hiztegieta. Euskararen kasuan, ez dago esan beharrik, hiztegiek islatzen digutena askoz hurbilago dago teutonizaziotik plebifikaziotik baino: aldeak daude hiztegitik hiztegieta, baina, oro har normalagoa izaten da elementu autoktonoak aurkitzea; berba aloktonoek murriztuta daukate agerpena, eta berori nabarmenago suertatzen da historian atzerantz egin ahala. Testuetan beste horrenbeste gertatzen da, salbuespenak salbuespen.

Hiztegieta agertu zein ez, termino bernakularrak oso-oso arruntak dira ingeleseztako bibliografian. Alabaina, maiztasunaren aldetik

² “There is thus considerable difficulty in determining to what extent combinations are matters for lexicographer, and to what extent they are merely grammatical”

gutxituz doaz testuaren maila gorantz doanaz batera, eta, alde horretatik, *folk-term* dezente gehiago aurkituko dituzu Petöfi eta Hoffmann-en behe-mailei dagozkien testuetan. Oro har, alderantziz gertatuko da termino kanonikoekin: ugariago zenbat eta maila jasoagoa izan. Agertu, edozein mailatan era bietako hitzak ager daitezke, baina, mota bakoitzaren portzentajeak aldatuko dira mailaren arabera. Esaten ari garena kuantifikagarria izan arren, idazlearen izaerak garrantzi handia du bateko edo besteko erabileran, esan gabe doa, eta idiosinkratikoa izaten da ere termino bernakularren eta termino kanonikoen arteko dosifikazioa.

Honaino iritsi garelarik, behar bezain aurkeztuta utzi ditugu, adostutako eredu bat gauzatzeko osagaiak. Amaigabeko eztabaida aspergarria azkenik bertan behera uzteko, nire ustez, ezinbestekoa da izan dugun joera teutonizatzailetik arean urrundu eta joera plebifikatzaile berri baterantz lerratu, baina, bai lehenengoa guztiz abandonatu barik –historiak erakutsi digu ezinezkoa dugula!– eta bai bigarrena ingelesak bezala osotoro besarkatu barik.

Teutonizaziotik plebifikaziora, beraz. Ia automatikoa izan daiteke aldaketa hori, izan ere, gehienbat ikuspegiari dagokio beste edozeri bainoago. Hau da, adostutako eredu berriko termino plebifikatzaileak, izatez, honezkero badauzkagun termino teutonizatzaileak eurak izan daitezke, alegia, gorago aipatu ditugun “laguntzaile eta argitzaileak” erabil ditzakegu, kontuan hartuta noraino egokiak diren. Hala ere, argi eta garbi utzi beharko da termino kanonikoaren lehentasuna, inolako zalantza gabe. Esaten ari naizena da *karniboro* dela termino zientifikoa, eta berorren orbitan mugituko direla *haragijale*, *okelajale* edota *xitxijale* [5]. Gailentasuna, berriro diot, termino teknikoak du, eta diskurtsoaren mailaren arabera-edo erabiliko dira bestelako “laguntzaile eta argitzaileak”, baina, ahaztu barik termino kanonikoa ezinbestekoa dugula. Kontura gaitezen: teutonizazioaren kasuan, termino kanonikoak ezabatu egiten dira hiztegietatik, eta, plebifikazio-

aren kasuan, ostera, berba “laguntzaile eta argitzaileak” dira hiztegie-
tan lekurik ez dutenak. Amaigabeko eztabaida aspergarria gainditze-
ko, bada, teutonizazioaren eta plebifikazioaren arteko hibridoa da
proposatu duguna: bai termino kanonikoak eta bai “laguntzaile eta
argitzaileak” jasoko ditugu euskal hiztegie-
tan, eta, halaber, batzuek
eta besteak erabiliko ditugu zientzia-prosan, hori bai, proportzio des-
berdinetan mailaren arabera. Garbiago esanda oraindik, eta nahitaez
sinplifikatuz: karniboro eta haragijale (eta bai okelajale eta xitxijale)
biak dira euskarazkoak, biak sartu behar dira hiztegie-
tan, biak erabi-
li behar dira euskarazko testuetan, baina, adi, autore arretatsu batek
hautatu egingo du noiz eta non erabili bata, eta noiz eta non bestea,
The Song of the Dodo liburu zoragarrian gertatzen den bezala. Eta,
bide batez, liburu hori euskaratzea mugarri suerta daiteke, proposa-
tzen ari naizen soluzioaren bidean.

Ez da berria azaltzen ari naizena. Alde horretatik, aipagarria da
1988. urtean UZEIk argitaratu zuen *Biologia/4: Zoologia hiztegia*,
berak aurrerratu baitzituen, hemen berriro ere proposatu duguna.
Nire ustez, norabide-aldaketa nabarmena eta esplizitua ekarri zuen,
ordura arte UZEIk berak kaleratutako gainerako hiztegiekin konpa-
ratuz. Horren arrazoia hitzaurreak damaigu:

Hiztegiaren gorputza bi jatorri oso desberdineko hitzek era-
tzen dute; batetik, erdal hitz tekniko mailegatuek edo hitz kul-
tuek, eta bestetik, euskal harrobitik hartutakoek. Lehen saileko-
ak ohiki erabilera unibertsalekoak izanik, hiztegi honetan kon-
trol gisa erabiltzen ditugun hiru erdaretan normalean
berdintsuak izaten dira. Kontua izan da, bi jatorriotako zein ter-
minori eman behar zitzaion lehentasuna: hitz kultuari ala eus-
kal harrobitik hartutakoari? Uste dugu, badela ordua erro kul-
tuez eraturako hitzei beldurra galtzekoa. Hitz kultuak mailega-
tzen baditugu euskara “zikinduko” dugunaren ustea okerra da
eta puntu honetan bat gatoz Kanadako Dalhousie Unibertsita-

teko irakasle den Kocourek jaunarekin, zeinak *La langue française de la technique et de la science* liburuan zera dioen: “Egia da hitz kultua jatorri latino edo grekoa duten elementu ez ohizkoetan dagoela oinarrituta. Baina formazio-modu horren ondorioa frantses teknozientifikoaren hitzak dira eta ez hizkuntza arrotz batenak”. Guk ere sinesten dugu, hitz kultuak, unibertsalak izateagatik, hizkuntza guztien altxorra direla eta baita euskararenak ere, haien baztertzeak hizkuntza teknikoaren pobrezia eta zehaztasunik eza besterik ekartzen ez duelarik.

Horrek ez du esan nahi hiztegi honetan euskal harrobiko hitzak zokoratu direnik. Hauek “halaber” batekin ematen dira kuasi-sinonimo gisa, ezin bait dute kasu guztietan hitz kultua ordezkatu. Arazoa da noiz eta nola erabili behar diren. Puntu hau argitzeko zera eduki behar da kontutan, zientzi gaiei buruzko berbaldia ez dela beti maila berean gertatzen, ez bait da berdin, adib., unibertsitatean eta telebista-irratietan erabiltzen den hizkuntza. Maila bakoitzak, gainera, entzulego propioa dauka. Izan ere, ez dira berdinak zientzilari-kongresu bateko entzulegoa eta dibulgazio-aldizkari baten irakurlegoa. Beraz, maila bakoitzak bere hizkuntza propioa behar du: batzuetan hizkuntza teknizistagoa erabili beharko da eta beste batzuetan hizkuntza apalagoa. Hori hiztegiaren erabiltzaileak erabaki beharko du, kasuan kasu, testuingurua eta jasotzailea kontutan hartuz. [46: 23]

Hiztegiaren planteamendua zuzena bazen ere, atzetik etorri den erabilera, nire ustez, ez da horren zuzena suertatu. Praxian ez dira jatorri bietako lexikoak nahastu. Nonbait, mailak adiabatikoak-edo izan dira, eta, jatorri bietako lexikoak mailaren arabera proportzio desberdinetan agertu beharrean, hiztegiaren erabiltzaileek deliberatu dute, antza, ez direla zientzialari-kongresu bateko partaideak, eta nahikoa eta sobera dutela euskal harrobiko hitzekin euron beharizanetarako. Egia esateko, ezin dut asmatu zein den benetako arrazoa, baina, inpresioa dut era-

biltzaileek oro har aipatu mailak ez dituztela ulertu muga argirik gabeko gradazio baten barruan, baizik eta kategoria absolutu gisa, barruti zeharo itxi modura. Horrenbestez, behe-mailetan dihardutela kontsideratuz-edo, erabiltzaileek ez dute teknolektoko hitz kanonikoetara jo, edo oso nekez. Esango nuke ez dela *de facto* lexiko bien arteko nahasketarik egon, eta, izatez, alternatiba modura ulertu direla: bata edo bestea, ez biak batera. Badirudi erreserba mentalek edo buru-hertsikeriak edo nik dakita zerk ez digutela utzi planteamendu zuzenetik abiatu eta berorrek aldean daramatzen posibilitateak ustiatzen.

Beraz, bada, dagoeneko egin izan da neurri batean, irtenbide modura mahaigaineratzen ari naizena. Hala ere, egiteko modu hori, oraingo honetan, perspektiba berri batean kokatu nahi dut, alegia, joera plebifikatzailearenean, eta hiztegien esparrua gaindituta argi eta garbi aldarrikatu idazlanetarako ere: “hitz tekniko mailegatuek” eta “euskararobitiek hartutakoek”, mota bietakoek, lekua behar dute bai hiztegiaren eta bai hiztegiatetik kanpo ere.

Esate baterako, ikusi 3. taulan unibertsitateko behe-mailako esku-liburu batek –*Fundamentals of Biogeography*– zelan darabiltzan iturri bietako lexikoak ingelesez [47: 125-128]. Hona aldatu dugun testu-lagin hori, izatez, *Interacting populations* deritzon kapituluaren laugarren atalaren hasierari dagokio; ondokoak dira kapituluaren atalok: 1/ *co-operating populations*; 2/ *competing populations*; 3/ *plant-eating populations*; 4/ *flesh-eating populations*; 5/ *biological population control*. Jakina, aurkibide labur horrek argi erakusten digu biogeografiako esku-liburu bat beharbada ez dela lekurik aproposena fintasan eta preziosismo estilistikoetarako, alabaina, 3. taulako lagina irakurtzean ezin hobeto ikusiko dugu zer-nolako konbinazio lexikoak diren posible mota bietako hitzetara joz, eta zelan modula daitezkeen. Alegia, eredu plebifikatzaileak malgutasun handia opesten du berez, eta, berorretatik abiatuta esku egokiek orrialde bikainak ondu dituzte ingelesez, lehenago aipatu ditugun Stephen Jay Gould-ek eta David

Quammen-ek bezala, eredu plebifikatzaile hori zeinek bere erara or(h)atzen badu ere.

Horrela jokatuta, plebifikazioa baliabide estilistiko garrantzitsua izan daiteke, tonu desberdineko eta, beraz, irismen desberdineko idazlanak mamitu ahal izateko. Izatez, Zaitegiren idazkera zurrun eta monokorde begitandu zaigu, besteak beste, hobetsi duen aukera linguistikoak murriztu dio-eta eredu plebifikatzailearen plastikotasuna. Alde horretatik, Etxepare medikuak askozaz zalu eta gihartsuagoa ematen du, naturalagoa.

Euskarari dagokionez, dena dela, badaude zenbait ohar egiteko lehen hurbilketa batean. Orain arteko hariaren azalpenetatik, pentsa daiteke eredu plebifikatzailearen *folk-term* horiek beti izango direla termino kanonikoak baino ulerterrazagoak; izan ere, gorago aipatutako “laguntzaile eta argitzaileei” dagozkie. Kontua, baina, ez da horrelakoa izaten sarri askotan. *Zihilketa* da nire adibiderik gogokoena. Zihilketa hori ingelesezko *budding* da, alegia, *gemazioa* da. Nik dakidan ingeles apurrarekin ezin dut zehaztu noraino arrunt eta zabaldua den berba hori, baina, ingelesezko testuetan duen erabileragatik badi-rudi gemazio baino askoz inteligibleagoa dela. Euskaraz, oster, adin batetik gorakoek bakarrik dakigu patatak *zildu* egiten direla; hori jakin ezean ez dago *zihilketa* gemazio baino errazago ulertzerik, eta, horrenbestez, nahikoa zalantzarria da berba horren izaera plebifikatzailea. Hau da, gurean termino kanonikoa izaten da sarritan termino bernalakarra baino ezagunagoa, eta horrelakoetan ez dirudi oso zehatza denik plebifikazioaz egitea berba, baina, tira. *Eraenketa*, *baresare*, *apax-dun*, *iraitzi*, *hozi* eta beste asko dirateke zaku bereko adibideak.

Ildo beretik, niri oso ernegarri egiten zait euskaraz ez aurkitzea ingelesezko *folk-term* mailako berben parekorik. Kasurako, *hatching* esateko *eklosio* dugu ohiko ordaina. Era berean, ez dugu ordezeko ego-kirik, gure bibliografian hain sarri topatzen ditugun *mating* eta *breeding* eta beste zenbaitzuentzat.

Beste alderaino joanda, *koniofilo* dugu [48: 181]. Botanika alorreko termino tekniko ezinago ezezagun hori alagalakoa suertatzen zait azaldu gura dudana ilustratzeko. Nire lagun botanikariek ere ez dute inoiz topo egin koniofilo delako horrekin neuk galdetu diedan arte, eta harridura-aurpegia izan da euron erantzunik

HUNTER AND HUNTED: CARNIVORY

Flesh eaters

Carnivores are animals that eat animals. **Carnivory** is predation where animals are the prey. Carnivory includes predators eating herbivores as well as top predators eating predators. A predator benefits from interaction with a prey – it gets a meal; the prey does not benefit from interaction with a predator – it normally loses its life. Rare exceptions are lizards that lose their tails to predators but otherwise survive attacks. Predation is plain to see and easy to study. It is evident when one animal eats another, often in a gory spectacle.

Predators come in a variety of shapes and sizes. Highlights from a predator catalogue might be the ‘small but deadly’ – the least weasel (*Mustela nivalis*) is the smallest carnivore ever – and the ‘large and equally deadly’ – the African lion (*Panthera leo*). Some fossil carnivores were awesome in size and possibly in speed. The most famous examples, even before their appearance in Jurassic Park, are the dinosaurs *Tyrannosaurus rex* and *Velociraptor*. But more recent avian predators were just as terrifying. The phorusrhacoids were a group of large, flightless, flesh-eating birds (L. G. Marshall 1994). They lived from 62 million to about 2.5 million years ago in South America and became the dominant carnivores on that continent. They ranged in height from 1 to 3 m, and were able to kill and eat animals the size of small horses.

Carnivorous specialization

All animals, except those at the very top of food chains, are eaten by a predator. The zoological menu is vast, but predators tend to specialize. Carnivore niches include general flesh-eaters (faunavores), fish eaters (piscivores), blood feeders (haematophages or sanguivores), egg eaters (ovavores), insect eaters (insectivores), ant eaters (myrmevores), and coral eaters (corallivores). Omnivores are unspecialized carnivores-cum-herbivores. Scavengers feed on dead animal remains. Coprophages feed on dung or faeces.

../..

A few carnivorous niches are highly specialized and rather unusual. There are few sanguivores, the most notorious (apart from Count Dracula) are the New World vampire bats. The sharp-beaked ground finch (*Geospiza difficilis*), one of the Galápagos finches, obtains some its nourishment by biting the bases of growing feathers on boobies (*Sula* sp.) and eating the blood that oozes from the wound. Coprophagy is more widespread than might be supposed. Several birds eat animal dung. The ivory gull (*Pagophila eburnea*) feeds on the dung dumped on ice by polar bears, walruses, and seals. Puffins and petrels eat whale dung floating on the water. Certain vultures and kites feed solely on human and canine faeces around native villages. Myrmecophagy (ant eating) is found in several species in Australia, South America, Africa, and Eurasia that are adapted to feed upon ants and termites. Extreme adaptations for this diet are seen in teeth, jaws, and skulls. The teeth are reduced to flat, crushing surfaces, as in the aardvark (*Orycteropus afer*), or they are missing, as in the giant or great anteater (*Myrmecophaga tridactyla*). Tongues are long, mobile, and worm-like, with uncommon protrusibility ('stick-out-ability'). Enlarged salivary glands produce a thick, sticky secretion that coats the tongue. Ant-eating mammals also tend to have elongated snouts and powerful forelimbs for digging and ripping open nests.

Some plants are carnivorous, including the great sundew (*Drosera anglica*) and the greater bladderwort (*Utricularia vulgaris*). Pitcher plants of the genus *Heliamphora* (Sarraceniaceae) in the Guayana Highlands of Venezuela have carnivorous traits (Jaffe *et al.* 1992). *Heliamphora tatei* is a true carnivore. It attracts prey through special visual and chemical signals, traps and kills prey, digests prey through secreted enzymes, contains commensal organisms, and has wax scales that aid prey capture and nutrient absorption. Other species of *Heliamphora* possess all these traits except they seem neither to secrete proteolytic enzymes nor to produce wax scales. The pattern of the carnivorous syndrome among *Heliamphora* species suggests that the carnivorous habit has evolved in nutrient-poor habitats to improve the absorption of nutrients by capturing mainly ants. Only *Heliamphora tatei* further evolved mechanisms for rapid assimilation of organic nutrients and for capturing a variety of flying insects. The carnivorous traits are lost in low light conditions, indicating that nutrient supply is limiting only under fast growth.

3. taula: *Fundamentals of Biogeography* liburutik hartutako lagina, kultur erroz osoturiko hitzen eta *folk-term* deritzenen nahasketa posible bat erakusteko [47: 125-128].

argiena. Ba, hala izanik ere, *Biologia/2: Botanika hiztegiak* sarrera horretan “Mantenu-gai bezala hautsa erabiltzen duena. Adib. liken koniofiloa.” diosku. Esan gabe doa, harrigarria suerta daiteke ikastea definizioak zehaztutakoa, baina, neure iritziz harrigarriaren mugak gainditzen dituen da, *koniofiloa* sarreraren eta definizioaren artean “Sin.: Hauts-zalea” ikustea. Alegia, euskaraz badaukagu, eduki, inork ezagutzen ez duen termino tekniko baten sinonimo bernakularra. Ezin dut sinestu, baina, halaxe da. Tira, ba. Adibide horrek gutxienez gauza bi irakatsi beharko lizkiguke. Batetik, teknolektoetako termino batzuen “laguntzaile eta argitzaileak” zeharo alferrikakoak direla, zeren, nozioaren mailagatik beren denominazioek ez baitute erabile-
ra arruntik edukiko, edozein izanik ere. Horixe da *hauts-zale* horren patua, edota beste “zurkaitz” askorena: zenbat eta zenbat ez ote ditugu, ba, horrelakoak! Kasurako, *Natur Zientziak hiztegiak* [36], besteak beste, *bestejale*, *handijale* eta *txikijale* plazaratu zituen, baina, *Biologia/3: Ekologia hiztegiak* [49] ez ditu jaso, ez zaie-eta inolako zereginik ikusten. Koniofilo horren bigarren lezioa prospektiboa da, zeren eta, atzera begira ikasi dugunak etorkizunerako argibideak mahaigaineratu baitizkigu. Esan nahi baita, koniofilorekin –eta beste makina bat!– eskarmentua hartu beharko genuke, begien aurrean jartzen zai-
gun hitz oro ez “euskaratzeko”. Esate baterako, niri asko gustatuko litzaidake jakitea zenbat berba *-jale*dun eratu diren euskaraz teknolektoko hitzak ordeztuko; zenbat izan daitezke denetara, hoguei?, berrogei? Ba, hala ere, interneten bilatuz zerrenda askoz pottoloagoak aurki ditzakezu euskaratzeko; [50] erreferentziako helbidean zenbat-eta 158 (ehun eta berrogeita hamazortzi!) terminoraino kontatzen ditzakezu, eta hala ere bertan ez daude jasota 3. taulako testu-laginean dituzun *faunavore*, *myrmevore*, ez *ovavore*, besteak beste.

Oharrak ohar eta lezioak lezio, badago azpimarratu nahi dudana puntu bat begi-bistakoa dena. Eskuen artean darabilgun gai honetan, konturatuta edo konturatu barik behin eta berriro jo dugu ingelese-
ra; izan ere, plebifikazioari buruz aritu garen bakoitzean inplizituki

ingelesea eduki dugu mintzagai. Nolabait, ingelesea eduki izan dugu itsumutil eta gidari gure ibilbidean. Uste dut, unea iritsita daukagula ingelesaren eredugarritasuna ozenki aitortzeko, eta hori ez bakarrik zientzia-prosari dagokionez, baita prosa orokorrari doakiola ere. Ingelesa eredu hartuta, ni neu konbentzituta nago, askoz errazago suertatuko zaigu testu argi, malgu eta zehatzak idaztea. Kasurako, 3. taulako ingelesezkoak ederto adierazten digu zelan jokatu teknolektoko hitzekin eta termino bernakularrekin, bakoitzari dagokion zeregina esleituz: horrela egin ezean, euskarazko parekoa *jale-jale* erakoa izango litzateke, hots, ezinago jator eta ganorabakoa [7: 61]. Horrela egin ezean, gainera, sekula santan ezin izango dugu guztiz argitu noiz aritu garen maila jasoan (*lurjale* –?–) eta noiz ez (*azpijale* –?–) [1: 146-149].

Areago, zientzia-prosaren alorretik urrunduz eta Amuritzaren kritikari helduta, ingelesaren ildotik hiztegi-planteamendu ahul eta motzak gainditzeko bidean jarriko gara behingoz, eta ingelesaren era-
ra (ia) normaltasunez onartuko ditugu inolaz ere baztertu ezin diren kultura-hitz komunak. Horrela eginez, batetik, *birkolokatu* egingo ditugu neurri batean euskarazko betiko berbak, eta, bestetik, geureganatu egingo ditugu egungo egunean bizi garen mendebalde honetan hil-edo-bizikoak diren kultura-hitzak. Horrela eginez, gainera, erreskatatu egingo ditugu Leizarragak eta beste hainbatek erabilitako hitzak (eta joerak), XX. mendeak ostrazismora kondenatu zituenak, eta inertzia hutsez baztertuta eduki ditugunak. Horrela eginez, euskara homologatzen hasiko gara berandu baino lehen.

4. EPILOGOA: ALTUBE MAISU?

Ezin diot parraplada honi azken puntua ipini, aurretik beste kontutxo bat hona ekarri barik. Oso adierazgarria begitandu zait, eta, dena esateko, etsita utzi nau.

Idazlan honen lerroetan barrena aitzurtu dudan saila, luzaroan ibili dut buruan jira-bueltaka. Aspalditik ahalegindu naiz horren gaineko iritziak biltzen eta irakurtzen, nire inpresio eta intuizioekin kontrastatzeko. Hiztegiaren ardura horregaz bizi izan naiz ia mende-laurdenean, eta hainbat eta hainbat orrialde bisitatu ditut denbora horretan, era sistematiko batean izan ez bada ere. Ba, egundo ez dut inon aipatuta ikusi Seber Altuberen ekarpenik. Gaiari buruzko bibliografian inork ez dakar Altuberen berri. Badakigu: Altube galdegaia da, *Erderismos* da, eta horregatik-edo ez dut inoiz oso begikoa izan.

Kontua da joan den udan txosten honen konpromisoa hartu nuela, eta hor hasi nintzen gerotik gerorako luzamenduetan, jesarri eta idazten hasi ezinik. Horrelakoetan, ez hasteko aitzakia eta alibi “arrazoizkoren” bat behar izaten duzu, ezin aldapatsuago suertatzen baita paper zuriari aurre egitea. Ezinegon horrek, dena dela, gehiago du beldurtasunetik nagitik baino, zeren, idatzi ez, baina irakurri, denetarik irakurtzen baitut, eta burua ere borborrean ibiltzen zait. Halandaze, uda ostean *Euskararen auziaz* [9] irakurtzeko premia “larria” sentitu nuen; izan ere, Pruden Gartzia Euskaltzaindiako Azkue Bibliotekako buruak egun batzuk lehenago aipatu zidanez, Villasantek liburu horretan dioena, euskarak Nafarroan bizi izandako atzerakadaren gainean, megafaunaren sarraski handiaren hipotesiaren postulatuetariko batekin konpara liteke, zelan edo halan. Hor aritu nintzen, bada, aipua bilatzen, eta bide batez liburua irakurtzen. Eta ez idazten, zer esanik ez. Tardantzaren bila, umetan legez.

Edozelan ere, Villasanteren liburua interesgarria da oso, eta xumea, ezinago. Orrialdeak pasatu ahala gero eta damutuago egon naiz udazken honetan, ez nuelako irakurri kaleratu zenean. Zertan ote nenbilen orduan! Bosgarren kapitulua errebelazioa izan da niretzat. Euskararen hitzak ditu gai, eta, besteak beste, euskal hiztegian sortu diren nahasteak kontatzen dizkigu polito-polito, Larramendi, Arana eta, batez ere, Azkue aurkeztuz. Eta halako batean, zer-eta *Harritze-*

koa da zer-nolako itzulingeruak hartzen dituen taiuzko izen zehatza, hitz teknikoa, hartarakoa, ezin utzizkoa ez erabiltzeagatik diost [9: 85]. Hori irakurtzea esangura bereziko izan da niretzat, zeren eta, labur eta zuzen deskribatzen baitu gure letretan gertatutakoa, hain justu artikulu honetara ekarri gura izan dudana autua.

Horren ostetik, Villasantek, nahaste-borrastea gainditzeko Sebero Altubek 1922an gogorarazi zituen printzipioak dakartza laburbilduta, eta, besteak beste, “goi-jakintzei dagozkien hitzak” direla-eta, zera diosku:

Altubek dio Mendebaleko beste herriek bezalaxe, eremu honetako hitzak latin eta grekotik hartu behar dituela euskarak. *Ingelesaren bidea* proposatzen digu berak. Aitortzen du orain arte euskaltzaleek bakar-bidetik eraman nahi izan dutela euskara, baina bide hori, noiz eta orain, inongo kalteginena izango litzaiokeela uste du. [9: 88-89]

Pasarte horrek hainbat iruzkin merezi baditu ere, hemen bizpahiru eginen dizkiogu labur zurrean. Lehenengo eta behin, aipatu behar da letra etzana neuk jarria dela, eta bai, bestalde, isolazionismoa-edo adierazteko darabilen “bakar-bide” hori (izatez Altubek berak dakarrena [35]) gure joera teutonizatzailea dela, noski. Bigarrenik, KO utzi nauena: Altubek ingelesaren bidea proposatu du, noiz-eta 1922an, eta nik neuk, gaian guztiz interesatuta nagoen honek, 2004an eduki dut horren berri, txiripa hutsez gainera. Erantsiko dugun azken iruzkina ere Villasanterena da (eta letra etzana neurea): “Hiztegi-lege hauek *ez ditugu sekula behar adina errepikatuko*, ezen guztiz beste aldera jokatu dugu eta jokatzen dugu oraino euskaltzaleok maizenik. Beste muturrera doazenengatik ere gauza bera esan behar da: harri berean behaztopatzen direla, alegia” [9: 87].

Ezin dut ulertu zergatik ez den errepikatu behin eta berriro, jadanik 1922an Eusko Ikaskuntzaren III. kongresuan Altubek ezin argia-

go predikatu zuena. Ezin dut ulertu zelan gerta daitekeen, neuk horren oihartzunik inon ere ez entzutea. Ezin dut ulertu hain begi-bistako eta ganorazkoa dirudiena gerora inortxok ere ez segitzea eta aldarrikatzea. Salbuespena, antza, Villasante bera dugu, 1963ko artikulua bat “Sebero Altube, iztegi arazoetan maisu” izendatu baitzuen [51], ia-ia haren obituari gisara, eta haren irakatsiak zabalduz, eta, ildo beretik, 1979an “Altuberen maisutza euskal hitzen arazoan” argitaratu zuen [52]; nolana ere, ikusiak ikusi, gai horretan oso ikasle gutxi eduki izan ditu maisuak. Alfontso Irigoienek ere irakurrita bide zeuzkan Altuberen idazlanak, eta begitandu zitzaion ezen “konpentsaziozko zerbeit” dagoela, hitzen purismoaren aurka gehien guduakatu zena, hain zuzen ere sintaxiaren purismoaren bultzatzaile nagusia izatean [53: 335]; zernahi gisaz, aipu zehatz hori aparte, Irigoienek sintaxi-kontuak bakarrik jorratzen ditu erreferentzia horretan.

Jakina, Altuberen artikulua jakituz irakurri beharrekoa da, oso-oso mamitsua baita, eta hori hainbat aldetatik (ikus 3 eranskina; [35]). Artikulu horretan orduko (eta gaurko?) euskal hiztegegintzaren ahuldadeak aurkezten ditu zorrotz, eta garbi erakusten ere zein jokabide hartu behar den. Guretzat bereziki interesgarria da, *jakintza-iztegiari* eskainitako saila, hortxe proposatu baitigu ingelesaren bidea: “...eredutzat edo naurritzat (sic), ingelestar izkeria artu bear dogula deritxogu” [35: 90]. Dena dela, arrunt deigarria da sail osoan bai inplizituki eta bai esplizituki ere eredu teutonizatzailearen kontra diharduela behin eta berriro [35: 88-91]. Ingelesa, alemana eta euskara erkatzen ditu, eta, bakoitzaren ezaugarriak haztatu eta gero, ingelesaren bidea hobesten du. “Bádakigu, neurri au ontzat artzeko, euskal-zale batzuen gogoak urrun agertzen jakuzana. Oneentzako, aleman-izkeria bera ere ezin artu geinke neurri-bidetzat; aleman-izkeria baiño urrunago, zustraitsuago [= erradikalago?], joan nai leukie esandako bakar-bide orretan.” [35: 90]. Hau da, Altube ingelesaren alde eta “gure garbi-zale ase-eziñon” kontra aritu zen, “jakitun-itzak” direla-eta.

Esan dugunez, Altubek euskararen teutonizazioaren aurka egin zuen, bai agerian eta bai gorde-antzean. Ildo horretan, hungigarria iruditu zait sailaren amaieran mahaigaineratutako arrazoa, izan ere, egungo egunean biodibertsitatearen galera izugarriaren kontra egiteko erabiltzen diren argudioetariko bat ematen baitu: “Latin-griegotiko jakintza-iztegijori guk orain ez euskeraratzeaz, aor bada beste *zireungarren* kalte aundi-aundi bat, gure ondorengo euskaldunentzat: euroi, euskeria, izkera orokar orretatik beste erri-izkeraak baiño izugarritz urriñago izateko bideetan iminten deutsegu-ta” [35: 91].

ERREFERENTZIAK

- [1] ALTONAGA, K. 2002. “Saiakera zientifikoa idazteko abiapuntu bat”. *Ekaia*, 15: 127-149. Ikus: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publica/ekaia/ekaia15.pdf>
- [2] ENSUNZA, M.; ETXEBARRIA, J. R. & ITURBE, J. 2002. *Zientzia eta teknikarako euskara. Zenbait hizkuntza-baliabide*. Udako Euskal Unibertsitatea. 458 orr.
- [3] ETXEBARRIA, J. R. 2002. “Euskal prosa zientifikoaren historiaren inguruan”. *Hegats*, 30: 63-75. Ikus: <http://www.idazleak.org/argitalpenak/hegats/hegats30.pdf>
- [4] ALTONAGA, K. 2003. “Gure prosa zientifikoaren lehen urratsak: Albert Constantin jaun medikuaren *Zuhainen eritarzunaz eta haien arraberrikatziak*”. *Ekaia*, 17: 121-137. Ikus: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publica/ekaia/ekaia17.pdf>
- [5] ALTONAGA, K. 2004. “Arnaud Abadia jaun kalonjearen *Sathorra* (1892)”. *Ekaia*, 18: 123-145. Ikus: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publica/ekaia/ekaia18.pdf>
- [6] ALTONAGA, K. 2004. “Pierre Buruzain jaun mediku hazpandarraren *Pasteur jaun zena* (1896)”. *Ekaia*, 18: 147-169. Ikus: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publica/ekaia/ekaia18.pdf>

- [7] ALTONAGA, K. 2001. *Armand David, pandaren aita*. Elhuyar. 251 orr.
- [8] AMURIZA, X. 1996. "Bi euskal hiztegi berri batera". *Jakin*, 97: 11-17.
- [9] VILLASANTE, L. 1988. *Euskararen auziaz*. Gráficas Lizarra. 265 orr.
- [10] REMENTERIA, J. M. 1975. "Euskal «Kristau Ikasbideen» historia laburra". Xvii-xxiv, in: *Kristau Bidea*. Jakin. Arantzazu.
- [11] ZABALA, J. M. (eskuizkribua). "Noticia de las obras bascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi". Fondo Bonaparte. Bibl. Diputación Foral Vizcaina.
- [12] AZKUE, R. M. 1905. *Diccionario vasco-español-francés, I*. La Gran Enciclopedia Vasca. 561 orr. (1969).
- [13] ASTETE, G. 1599. *Doctrina Christiana Aita Gaspar Astete Jesuitac erderaz conpondua; ipiñi zuan euzqueraz Juan de Irazuzta erretore Hernialdecoac... eta añaditcen dio Encarnacioco, eta Eucaristiaco mysterioen esplicacioa, baita ere confesio on baten condicioac*. Pedro Gurruchagaren moldizteguian. Tolosa. 96 orr. (1889).
- [14] MITXELENA, K. 1984. "Atarikoak". I-xiii, in: *Euskal Hiztegia*. I. Sarasola. 814 orr. 1996.
- [15] RUBIO, C. 2003. *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales*. Biblioteca Nueva. Madrid.
- [16] GOROSTEGUI, F. M. & ZELAYA, J. E. 1867. *Nueva edición del Catecismo del P. Astete, en vascuence*. Impr. Mateo Sanz y Gómez. Vitoria. 8 pp.
- [17] ADOREZ 7. 1996. *Diccionario 3000 Hiztegia*. Elkar S. Coop. Bilbo. 677 orr.
- [18] ELHUYAR. 1996. *Elhuyar hiztegia*. Elhuyar kultur elkartea. 698 orr.
- [19] MITXELENA, K. 1997. *Diccionario General Vasco/Orotariko Euskal Hiztegia. X. Jad-Kop*. Euskaltzaindia. 781 orr.
- [20] VILLASANTE, L. 1979. *Historia de la literatura vasca*. Editorial Aránzazu. 487 pp.

- [21] ZAITEGUI, 1933. “Kizkiña”. *RIEV*, 24 (1): 60-70.
- [22] ETXEPARE, J. 1934. “Zelulak”. 75-78, in: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, II. Mediku-solas*. P. Xarritonen ed. 1985. Elkar. 374 orr.
- [23] ALTONAGA, K. 1994. “Teleskopioa, mikroskopioa eta txiki-ikuski-na”. *Berba*, 11: 1-2. Ikus: <http://www.uzei.com/berba/zaharrak-berri.cfm?d=24>
- [24] SANTA BÁRBARA, J. 1827. *Erle gobernatzalleen guidariya, edo erleac gobernatceco modua*. Bizkaiko Erlazainen Elkartea. 109 orr. (1993).
- [25] AZKUE, R. M. 1921. “Euskaltzainburuak Hasparrengo batzar agirian Geo. Lacombe euskaltzainari egindako erantzumena”. *Euskera*, II: 57-63.
- [26] BAHR, G. 1922. “Uaño naiz xirietaz”. *Euskal-esnalea*, 222: 109-110, in *Enciclopedia General del País Vasco. Literatura III*, 262-263. Ed. Auñamendi.
- [27] MITXELENA, K. 1960. “Asaba zaharren baratza”. *Egan*, (3-6) 121. In *Koldo Mitxelena gure artean*, 37-51. Alberdania. 2001. 437 orr.
- [28] ETXEPARE, J. 1928. “Gure gorputza: harresi bat bezala”. 17-18, in: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, II. Mediku-solas*. P. Xarritonen ed. 1985. Elkar. 374 orr.
- [29] ABADIA, A. 1905. “Laborarier: Nola eta zertarateko diren on mahats-arnoaren eta sagar-arnoaren phatsak”. *Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo Almanaka berria*. 27-29.
- [30] KANPAN, F. 1905. “Felitz Kanpan-baithako Bothikarioan”. *Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo Almanaka berria*. 63.
- [31] LAFITTE, P. 1941. “Jean Etxepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas”. 5-21, in: *Buruxkak*, J. Etchepare. Elkar. 1980. 195 orr.
- [32] KEREXETA, M. J. 1987. “Jean Etchepare”. 21-29, in: *Beribitez*. J. Etchepare. Klasikoak, 17.
- [33] LOPEZ ADAN, E. 1985. “Medikuntza hiztegi berezia”. 363-370, in: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, II. Mediku-solas*. P. Xarritonen ed. 1985. Elkar. 374 orr.

- [34] XARRITON, P. 1984. "Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak : aurkezpena". 5-11, in: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, I. Euskal Gaiak*. P. Xarritonen ed. 1984. Elkar. 386 orr.
- [35] ALTUBE, S. 1923. "Euskel-itz barrijak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen". 78-93, in: *III Congreso de Estudios Vascos*. San Sebastián.
- [36] ARANTZADI ELKARTEKO TALDE BATEK. 1976. *Natur Zientziak hiztegia*. Jakin. Arantzazu. 483 orr.
- [37] SARASOLA, I. 1997. *Euskara batuaren ajeak*. Alberdania. 283 orr.
- [38] ALTONAGA, K. 1998. "Ajeak eta aje ez direnak". *Berba*, 26: 1-2. Ikus: <http://www.uzei.com/berba/zaharrakberri.cfm?id=7>
- [39] SALABURU, P. 2002. *Euskararen etxea*. Alberdania. 203 orr.
- [40] PETÖFI, J.S. 1976. "Lexicology, encyclopaedic knowledge, theory of text". *Cahiers de Lexicologie*, XXIX: 25-41.
- [41] ALTONAGA, K. 1997. "Bizkaiera unibertsitatean". 79-91, in: *Mendebaldeko euskara XX. mende goiengan*. Mendebalde Kultur Elkarte. 191 orr.
- [42] HOFFMANN, L. 1987. "Características dels llenguatges d'especialitat". 21-69, in: *Llenguatges d'especialitat*. Hoffmann, L. (1998). Institut Universitari de Lingüística Aplicada. Universitat Pompeu Fabra. Barcelona. 284 orr.
- [43] QUAMMEN, D. 1996. *The Song of the Dodo. Island Biogeography in an Age of Extinctions*. Pimlico. 702 orr.
- [44] NYBAKKEN, O. E. 1959. *Greek and Latin in Scientific Terminology*. The Iowa State University Press. 321 orr. (1985).
- [45] 1989. *The Oxford English Dictionary*. I. Second Edition. Clarendon Press. Oxford.
- [46] UZEI. 1988. *Biologia/4: Zoologia hiztegia*. Elkar. 721 orr.
- [47] HUGGETT, R. J. 1998. *Fundamentals of Biogeography*. Routledge. London. 261 orr.

- [48] UZEI. 1986. *Biologia/2: Botanika hiztegia*. Elkar. 502 orr.
- [49] UZEI. 1987. *Biologia/3: Ekologia hiztegia*. Elkar. 413 orr.
- [50] ROLAND, W. E. 2002. "Glossary of Feeding Habits". Ikus: <http://www.fargoth.com/downloads/feedinghabits.html>
- [51] VILLASANTE, L. 1963. "Sebero Altube, iztegi arazoetan maisu". *Eusker*a, VIII-IX: 293-313. Ikus: <ftp://www2.euskaltzaindia.net/eusker/51266.pdf>
- [52] VILLASANTE, L. 1979. "Altuberen maisutza euskal hitzen arazoan". *Eusker*a, XXIV: 611-614. Ikus: <ftp://www2.euskaltzaindia.net/eusker/51313.pdf>
- [53] IRIGOIEN, A. 1980. "Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren ple-guak". *Eusker*a, XXV: 325-353.

Lehen eranskina (ZAITEGUI. 1933. "Kizkiña". *RIEV*, 24 (1): 60-70). Testua jatorrizko aldizkaritik eskaneatu dugu; hango *r* eta *l* tiletdu-nak, *rr* eta *ll* modura eman ditugu hemen.

KIZKIÑA

I. *Kizkiñ-itza*.—Uda bero ta sargoria da. Basetxe aurreko larrinhoan lanean ari dira. Mutillak, oyuka, ta aiton kolko-beltz arnas estuak, ardo zatoa arinduaz, lanerako bizkortzen dira. Larrain bazterrean aurtxo txikia negarrez dago, garimintzak yo dulako (1).

Larrindu ostean, algotzez bilduta gelditzen dan gari-alea artu ta zuregana urreratzen dan aiton orri galdetu egiozu: Eskuetan dauka-dan gari-ale au nola deritzazute? *Kizkiña*, erantzungo dizu.

Beraz, kizkiña, algotzez jositako gari-alea duzu. Baña, nik izen au, oso egokia zait-eta, doiztarrak «zelle» eta españarrak «célula» deritzatena adierazteko darabilket.

II. *Kizkiña zer da?*—Zeatz-zeatz, argi ta garbi ulertu dezazun txiki-ikuskiña artu ezazu: ainbat arrigarri ta gelgarri darakuskigun tresnaxo ori, ikaste sail ontan bear-bearrezkoa baitzaizu.

Uretan agertzen diran belar izpi orlegiak lenengo ezarri ditzagun. Zer dakuskegu? Belar-izpi bakoitza odi luze bat bezela ikusiko dudugu. Odi ori, solairu batzuk or-emen zearka bereizten dute. Orren atalak seska baten atalen antzekoak dira. Odi daneko guna, atal oyetan egoki banatuta agertzen da. Itxas helar izpia ikusten ari gera: atal oyekek dituzu beraren kizkiñak.

Gero, oroldi apur bat, naiz garo poxi bat artu ta txiki-ikuskiñez ikusi dezagun.

Lenengo begirakadan, atal eder, polit, biribil, luzez jositako lau zapal orlegi ikusiko ditugu. Atal bakoitzak beste atalxo asko ditu. Atalxo oyekek ere, kizkiñak dituzu.

Azkenez, edozer azubil (tallo) lenengo zearka ta gero luzeka, me-me ebaki ta tresnatxo orren bidez atzematen baduzu, ezti-aberaska bai-litzan ikusiko duzu. Berriz ere, kizkiñak ikusten ari zera. Berdin yazoko litzaikageu abereki atalak ebakiko bagenitu ere (2).

Guzti au ikusi ondoren, kizkiña zer dan azaldu dezagun.

Jayo, azkortu ta ugaritzeko gai dan bizidun atalik txikiena, kizkiña deritza (3).

IRUDI-OINA: Lenengoz ezagutu ziran kizkiñak. Bombillen sapots ebaki-ondoetan ikusi zitun Hooke Errobertak (1655)

III. *Kizkiñ-muetak*.—Bizidun guztiak, naiz landare, naiz abere izan, 1) lenengo bizitz-aldian, *kizkiñ-bakarrak* izaten dira (azi-eme ernari-tua); 2) bizidun ainitz beti *kizkiñ-bakarrak* izan oi dira: adibidez, xiria, uañoa, t. a.; 3) beste bizidun enparauak, lokarri bereziz alkartu-tako *kizkiñ-mordoak* dituzu: adibidez, gizakume-soña: dakuskigun gure soñ atal edozeiñ, kizkiña izan zan edo da: baita gure odolean ere, aurkitzen ditugu ta gure mingaña aizto-ezpeañ me ta xorrotzez saratu ezkeru, bat-batean kizkiñak yalgi oi dira (1).

IRUDI-OINA: Mingaiñ azala leunki eraztean yalgitako kizkiñak. Euren kaizua: 80 µ

Kizkiñak ikertu ta aztertzean, kizkiñaren atalak eta eginkizunak ikertu ta aztertu bear ditugu. Oraingoz atalak bakarrik arakatuko ditut.

KIZKIÑAREN ATALAK

IV. *Kirkiñaren neurria*.—Kizkiñaz geienez, begi-utsez ikusi eziñak dituzu. Orregatik, kizkiñak neurtzeko neurria, “mikra” deritza: milimetro baten aneigarrena da ta µ gerkel-elatzaren bidez adierazten da.

Ala ere, badituzu kizkiñ-aundiak: adibidez, saiaren arrautza, aur baten burua beziñ aundia izan-arren, kizkiñ-bakarra duzu.

Giar-kizkiñ batzuk luzez 3'tik 10'cm.rañokoak dira; baña, begi-utsez ikusi eziñak dituzu, xe ta meiak baitira.

Proteo'aren odol-kizkin gorriak; beredin arrayen azi-emeak; igali batzuen kizkiñak; ta itxas-ertz geyentsuenetan dauden aloka ta itxas-belar batzuk begi-utsez ikusi ditezken kizkiñak dituzu.

Beste batzuk ordea, txiki-txikiak dira. Uaño txiki ta biribil batzuk, kaizu edo diametrotzat, 0,2 μ ditute. Beraz, cm.³ baten 125 billoi sartu litezke. Gizakume batek minutuan 5.000 aztertuko balitu, neurritxo ortan daudenak bakarrik ikertzeko, 9.000 urte baño geyago bearko lituke.

Baita badituzu, orain arteko txiki-ikuskiñez ikusi eziñak diran kizkiñak ere (1). Adibidez, elgorri ta naparrerria dakartziten kizkiñak.

V. *Kizkiñaren tankera*.—Kizkiñaren tankera askotatarakoa izaten da. Ari, zil, garranga, izarraren antzekoak, t. a. Bizitz askaldian, ordea, biribil-xamar eta ardatzaren edukoak izaten dira.

IRUDI-OINA: Kizkin batzuen tankera ta esteria. *n*, kirio-kizkiña; *m*, giar-kizkiña; *j*, ii-muiñaren kizkiña (*Scirpus*); *o*, ezur-kizkiña; *t*, *tripanosoma* kizkin-bakarra; *v*, *borticela* kizkin-bakarra; *p*, landare-ile kizkiña; *a*, aloka-izpitsua; *e*, garrangaren antzeko *spirillum*; *c*, uaño-biribilak; *e*, azi-arra; *l*, odol-kizkin zuria; *po*, piñuaren azi-autsa; *h*, gibel-kizkiña; *ep*, estalki-kizkiña.

VI. *Kizkiñaren margoa*.—Kizkiñak maizenik ez dute margorik; batzuk, berriz, margokoyak dira: adibidez, lore gorrien kizkiñak, sapa-buru-isatseko kizkiñ margokoyak, t. a.

VII. Kizkiñak iru atal ditu: *kizkin-azala*, *kizkin mamia* ta *kizkin-guna*.

I- Kizkin-azala

Zugaitz, sagar eta laranja gañeko azala bezela duzu kizkiñaren lekore-aldeko kizkin azala. Beraz, *kizkin-azalak* kizkin-mamia inguratu ta bildu oi du.

Arrautzaren eta intxaurraren azala bitarikoa izan ditekete: gañeko azal gogorra, arrautz-koskoa, intxaur-koskoa, ta barreneko azal me ta gardena, arrautz mintza ta intxaur-mintza deritzate. Oien antzera, kizkiñaren azala bitarikoa duzu: Kizkin-mintza ta kizkin-koskoa.

VIII. *Kizkin-mintza*.– Kizkin-mintza deritzan azal garden eta me-meak kizkin dana batu oi du. Onelako kizkin-mintza, kizkin guztiak ez dutela, diote zenbait jakitunek. Alata ere, guk baietz uste dugu: osterantzean, kizkiñaren barrukoa ixuri egingo litzakelako, bearrezkoa dala dirudi.

IX. *Kizkin-koskoa*.– Kizkin batzuk kizkin-mintza baño azalerago estalki lodixeagoa dute: orixe duzu kizkin-koskoa. Landare-kizkin geientsuenak dute kizkin-koskoa. Baña, adibidez, ermamin-zorroko kizkiñetan ez duzu ikusiko. Abereki-kizkiñak ordea, meatz-meatz edo gutxitan izan oi dute koskoa; ala ere abereen azi-emeak baitute kizkin-koskoa.

Alkar ondo itsatsitako kizkin-kosko lodi mordoa besterik ez duzu zura.

IRUDI-OINA: Aritz-enborrharen zura, zearka ebakita: kizkiñaren ormak beltzez ageri dira. Kaizutzat 210 µ zitun.

Ezurrak ere, kizkin-koskoei esker dira orren gogor eta zailak.

X. *Kizkin-koskoaren egitamua*.– Belarki-kizkiñetan ondo baño obeto ikusten danez kizkin-koskoa orratz-ziritzez bezelatsu batera ta bestera josita ageri da. Gañera, kizkin-koskoa erdoki berbera duten beste azal batzuk osatzen dute. Azal edo estalki oyen kimi-zozkoa ez da bakarra; osterapenetan ageri danez, era batera ez baitute margoa

artzen. Iru dituzu azal oyek: lenengo, bigarren eta irugarren azala barrena.

II - Kizkin-mamia

XI. Arrautzaren barrenean zuringoa bezela, kizkiñaren barrénean *kizkin-mamia* duzu. Erdi-ixurkari, margul eta biziduna da.

Kizkin-mamian alderdi bi berezi ditzakegu: bata, uraren antzekoa, urin eta gantz urtuaren edukoa; beraz, *kizkin-mami uriña* deritzakegu. Bestea, berriz, sendo ta ermoa duzu: gatzatu ta mamitutako esnea, gogortu ta ziatutako odola Lapurdin «pirikorna» deritzate. Guk berriz, kizkin-mamia ageri dan alderdi gogorra *kizkin-mami-pirikorna* deritzakegu.

Pirikornaren egitamua, aztertu dezagun. Irakiten dagon esnea zoratu ta galdu danean, azal-gaña pikor ta aletxoz yosita ageri oi da. Aletxo oyek nere jaioterrian, «lapatsak» generitzan. Pirikornaren egitamua Altmann jakintsuaren iritxiz *lapats-egitamua* da. Bütschli ta beste batzuen ustez, pirikornaren egitamua, *apar-egitamua* duzu. Ikertu al dituzu aparrak dituan utsarte ta sagiñoak? Pirikorna ere, zulotxoz ta sagiñoz beteta dagola adierazi nai du apar-egitamuak. Erlazuloz yositako baso-erlauntzik aritzen batean ez al duzu iñoiz arkitu? Noiz-edo-noiz ogi ta gaztaia ere orrelako begi-zulotxoz ageri dira. Aunela duzu apar-egitamua.

IRUDI-OINA: Kizkin-mamiaren egitamua: *p. g.* lapats-egitamua; *p. e.* sare-egitamua; *p. f.* izpi-egitamua; *p. a.* apar-egitamua.

Udako goiz-aldean armiarmak mastietako kukulorik-kukulo dingilizka utzi dun *sarearen* antzekoa omen da, Carnoy ta beste jakintsu ezein batzuen gardiz, kizkin-mamiaren pirikorna. Flemming'ek, dienez, berriz, pirikornaren egitamuak, *izpi-txorta* iduri du. Izpi oyek, ordea, ez zugaitz-adarraren antzera edatuta, sendorrá bezin bilduta baño.

Baña orain uste danez, kizkin-mamiaren egitamua askotarakoa da: beraz, kizkin bakoitzak berari dagokion egitamua izango du. *Sare, lapats, izpi* edo *aparraren* egitamua.

Kizkin mamian dauden atalak batzuk *bizidunak* dituzu, bestetzuk ordea, *bizi-gabekoak*. Bizidunen artean aipagarriak dira *kizbilla*, *Golgi'ren sare-atala*, t. a.

XII. *Kizkilla*.– Zer-edo-zer txiki, xe ta mea danean *kiza* ta *kizi* dala diogu. Adibidez, ile-kiza, euri-kiza t. a. Kizkin-mamian ere, zer-edo-zer xe ta txiki baduzu: beraz, kiza deritzakegu. Gañera, biribila duzu. *Mendibil* itzak mendi-biribil, opil-itzak ogi-biribilla adierazten duten ezkerro, *kizbil* itzak kiza-biribila adieraziko du. Kizkin-mamian ageri dan aletxo biribila duzu kizbilla. Margo-gaien gurarik ez du izaten eta kizkin-gunaren urbilean izan oi da. Kizkiñaren bizialdi berezietan izarren antzera argi-izpiak yarioan agertzen da kizbilla.

IRUDI-OINA: Kizbila izarraren antzera. *Ascaris megaloccephala bivulvens*: zaldiaren este txitxarea. Kizbilaren kaizua: 0,6 µ

XIII. *Golgi'ren sare-atala*.– Orrela deritza agertzallearen opaz. Kizkin gunaren baranoan egoten da ta este luzearen antza du. Dirudinez, kizkiñaren egostutua-edo da.

IRUDI-OINA: Golgi'ren sare-atala (ag) kui-estearen estalki kizkiñetan: luzeka ebakita duzu.

III - Kizkin-guna

XIV. *Kizkin-guna*.– Arrautz zuringoaren barrenean goringoa bezela, kizkin-mamiaren barrenean kizkin guna duzu. Kizkin bizidun guzietan ageri da kizkin-guna. Kizkiñarentzako garrantzirik aundiena du kizkin-gunak. Demagun kizkiñaren atal bat kizkin-gun gabe ta beste atala kizkin-gun bikoitza: lenengoarentzako eriotza dator eta bestearantzako aziera bikoitza. Gañera kizkin-guna kendu ezkerro,

kizkiña ez da berritzen: beraz, kizkiña ugaritzeko, bere-bizikoena kizkin-guna duzu.

IRUDI-OINA: (Emen ezarri margoz apaindutako orrian duzun Fig. 4. bakarrik. Azalpena or bean duzu euskeraz). Kizkin-gunaren egitamua, «Faba vulgaris(eko-saria) ernemintzen sei egunez egonda gero. Luzeka ebakitako erro-bizarra. *nc*, gun-kiza.

Kizkin-guna, geyenetan, gorringoa bezin biribilla da. Ala ere, ardatz, izar, zugaitz-adar eta perraren antzekoa ere izan ditek.

IRUDI-OINA: (Margoz apaindutako. Fig. 2. Azalpena bean duzu). Kizkin-gunaren tankera. Giza-odolaren kizkin zuriak. Aundienak: 14 μ kaizutzat du.

Kizkin bakoitzean, *kizkin-gun-bakarra* izan oi da. Gibel-kizkiñak ordea, *kizkin-gun bi* izaten ditute ta biak berdin berdiñak; kizkin-gun-bizkiak dituzu. Idoi ta zingiretako ur gelditan izaten diran igelen karkaban abeltxo batzuk izan oi dira; oyen kizkiñak kizkin-gun bi izaten ditute; bata aundia ta bestea txikia. Ta abeltxo oyen mota batekoak, «opalina ranarum» deritzanak eundaka kizkin-gun izango ditu agian.

IRUDI-OINA: (Margoz apaindutako, Fig. 1. Bean duzu azalpena euskeraz). Geziak azaltzen dun alderuntz dijoan “opalina ranarum”. Beraren luzera 150 μ

XV. *Kizkin gun azala.*— Kizkin-mamiagandik kizkin-guna bereizten dun mintz me ta aratza duzu kizkin-gun azala.

Sarea eundu oi duten arien antzera kizkin-gunaren barrenean aril batzuk dituzu. Bata, kizkiña margo bereziz margotzean, margotu egiten da: margo-gai zale itxua baita. Beraz, *gun aril-margokoya* duzu. Bestea berriz, ez da margotzen: margo-gaien egarririk ezpaitu izaten; eta orregatik, *gun aril margula* deritza.

Kizkin-gunaren aril margul eta margokoyaren arteko txuloak betetzen, uraren antzeko uriña duzu: *gun-uriña* da: garden eta margula izan oi da.

Oyek dituzu kizkiñaren atalak. Aztu ez ditzakezun labur-sur eza-
rriko dizkitzut.

	I. Kizkin-azala	kizkin-mintza kizkin-koskoa
K I Z K I Ñ A	II. Kizkin-mamia	kizkin-mami-uriña kizkin-mami-pirikorna kizbilla Golgi'ren sare-atala
	III. Kizkin guna	kizkin-gun azala kizkin-gun arill margula kizkin-gun-arill margokoya kizkin-gun-uriña kizkin-gun-kiza

Y. A. A.

Ara J. L. Olabide'ri jarraiki erabili dedan itz-txorta

ALOKA=alga.

ANEIGARREN=milésima.

ASKAR=múltiple.

AZI-AUTSA=polen.

AZI-EME-ERNARITU=óvulo fecundado.

APAR-EGITAMU=estructura alveolar.

GARRANGA=tornillo.

GOLGI'REN SARE-ATALA=aparato reticular de Golgi.

GUN-ARIL MARGOKOIA=cromatina.

GUN-ARIL MARGULA=linina.

GIAR-KIZKIN=célula muscular.

KARKABA=cloaca.

KAIZU=diámetro.

KIRIO-KIZKIN=célula nerviosa.

KIZKIN=célula.
KIZKIN-ATALAK=anatomía celular.
KIZKIN-AZALA=membrana nuclear.
KIZKIN-GUNA=núcleo celular.
KIZKIN-GUN-KIZA=nucléolo.
KIZKIN-GUN-URIÑA=jugo nuclear.
KIZKIN-KOZKOA=cápsula de secreción.
KIZKIÑAREN IÑARKUNAK=fisiología celular.
KIZ-BILA=centrosoma.
KIZKIN-MAMIA=protoplasma celular.
KIZKIN-MAMI URIÑA=enquilema.
KIZKIN-MAMI-PIRIKORNA=polioplasma.
KIZKIN-MINTZA=película protoplásmica.
KIMI-ZOZKO=composición química.
XIRI=bacilo.
EGOSI-TUTU=aparato digestivo.
EGITAMU=estructura.
ELATZ=letra.
ELGORRI=escarlatina.
ERMAMIN-ZORRO=saco embrionario.
ESTERIA=tamaño.
EZUR-KIZKIN=célula ósea
TXIKI-IKUSKIN=microscopio.
ODOL-KIZKIN-GORRI=hematie.
ODOL-KIZKIN-ZURI=leucocito.
ODI=tubo.
LAPATS-EGITAMU=estructura granular.
IXURKARI=liquido.
NAFARRERIA=tifus.
UAÑO=bacteria.
SARE-EGITAMU=estructura reticular.
SAPOTS=corcho.

Kepa Altonaga

SESKA=caña.

SOLAIRU =compartimento.

ZOZKO=composición.

IZPI-EGITAMU=estructura-fibrilar.

(*Itz-xorta au J. L. Olabidèri geienez jarraiki erabili dut*)

ERABILLI DITUDAN IDAZTIAK: (Bibliografía)

Pujiula, S. J. (P. Jaime).—*Citología*. 1918, Barcelona.

Barnola, Arbeláez, Amozurrutia.—*Tratado completo de Biología Moderna*. tomo 1, «Biología general». 1925, Barcelona.

Cajal (Santiago Ramón y).—*Manual de Histología normal y de técnica microscópica*. Madrid, 1905.

Pi y Suñer (Augusto) y Larín (Rodrigo).—*Tratado de Fisiología general*. (Barcelona).

Carnoy.—*La Cellule. recueil de Cytologie et d'Histologie générale*, Louvain.

Henneguy.—*Leçons sur la cellule*. París, 1896.

Bigarren eranskina (ETXEPARE, J. 1934. "Zelulak". 75-78, in: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, II. Mediku-solas*. P. Xarritonen ed. 1985. Elkar. 374 orr.)

ZELULAK

Eskualdunaren irakurleak badaki, elgarri lotuak diren izpika batzuek egiten dutela gure gorputza. Izpika horiek deitzen ditugu zelulak, bertze mintzai gehienen ara bertsurat.

Aitaren eta amaren ganik dira lehenbiziko biak. Haukien bien batasunetik da pizten jendea.

Ordu beretik, amaren odolak doi hazkurri emaiten badako, zelula bakar hura erditik zatitzen da; zatiak laster beren aldian zatitzen dira, beti elgar sorkatuz; eta emeki emeki egiten da horrela gorputz bat.

Lan horren abiatzetik seigarren eguneko, zelula batzu beren lagunetarik desbardin agertzen dira, erakusterat eman ez dituztela ondoan hek eta heien lagunek egiteko berak gorputzean.

Guneka, eta gunetik gunera beren itxuraz, moldeaz daukaten eremuaz berexak dira zelulak, hala nola harresi batean harriak. Berexak dira oraino beren egitekoaz: larrukoek ez dute lan edo eginkizun bera ukanen, nola buru-muinetakoek.

Arras izpika ttipiak dira zelulak. Mikroskoparen arartekoz baizik ez ditzazkegu ikus. Milimetra bat zonbat den badakigu orok; asma ere dezakegu zombatekoa ditaken milimetra baino mila aldiz ttipiagoko zer bat. Jendearen baitako zelula gehienek, milimetraren milagarren partean hamabortz alditarik ehun alditaraino daukate bako-txak, nunbait han.

Jakintsu zombait lehiatu izan dira eta bermatu jakitera, zonbat zelula ditaken bada jendearen soinean, zangoetako eri puntetarik

hasirik ile puntetaraino. Ez dituzte, ez, bederazka kondatu: puxka batzuetan zirenak kondatu dituzte hala-hulaxe; gero, zonbat ere puxka hetarik gorputzean izartuak baitzituzketen, eta bertze hainbertze zelula-andana elgarretaratu dituzte, xifrek nolazpait erakutsiko ahal zutelakoan soma.

Bainan ikas dezagun lehenik kondatzen: mila milek, miliun bat; mila miliunek, miliar bat; mila miliarrek, biliun bat; mila biliunek, triliun bat.

Bada, gure jakintsuak heldu izan dira 28 triliunetaraino!

Nahi den bezain makur arizan badira ere beren lanetan, erakustera bederen eman daukute zer izpika-keta gaitzak duen egiten gutarik bat-bedera, eta nola den purpuratzen, nolako ume ketaren gei den, doakon hazkurria baduenean, begiz ikus ez dezakegun hazi ñimiño bat.

Nolakoa da zelula baten barnea, eta zer da barne hartan?

Iduri luke barne bat baino gehiago ere badutela batzuek, arte-murruak bezalako pareta mehe-mehe batzu ageri baitituzte. Xoko bat edo bertze hutsak aurkitzen ere zaizkote zonbaiti.

Halako leka batez dute egina barneko mamia, erran baitzinezake lehenbizian muku lodi bat dela; bainan, hobeki behatzearekin, ohar-tzen zira badirela leka hartan pikor xehe batzu, mikroskoparik azkarrekin ere doidoi ezagun direnak.

Hanitz geiez egina da leka hura. Nehork ez daki xuxen zonbat den, ez jakinen nihoiz.

Segurki erran ditakena da, gei hoitarik hogoi-ta zonbaitetaraino hautemanak edo ezagutuak ahal izan direla, eta diren horiek guziak, lurraren barnean aurki ditazkela.

Andana bat izendatuko ditugu hemen: fosfora, nunnahi delako lekak guti edo aski badaukana; gisua, hezurretako zelulek gehienik

biltzen dutena; arsenika eta sofrea, ile eta azkazalak hautatzen dituztenak gehienik egoitzatzat; magnesia, buru eta bizkar-muinetan ausarkisko kausitzen dena; burdina eta ioda, kotsu bat han-hemenka; potaza eta ioda, orotan kokatua; ausarkiago oraino oxigena, azota eta karbona. Hots, laborari edozonek landaretan, abereetan, lurrean, ongailuetan badirela dazkien gei hek berberak.

Bainan nola dira hoinbertze gei elgarri lotuak, leka guri baten egiteko? Zonbat da bakotxetik zelula bakarrean? Zer gunetan bakotxa, han? eta zeri buruz? Nehork ez jakinen sekula, halako izpikak ez baititazke bederazka ikus ez hazta.

Bi gauza badira guziz gogoetagarriak, gorputzaren abiadurako lehen zeluletan.

Orok badute erditsutan bihotzño bat, frantsesez *le noyau* deitzen dutena. Jakintsuek diote fosfora hutsez egina dela. Dena den, zelula zatitzera doalarik, hura da lehenik zatitzen, eta haren ondotik da erdizkatzen zelularen mamia. Berantxago galtzen dute bihotzño hura zelula hanitzek.

Bigarren aipagarria hau da: buru-muinetako eta bizkar-muinako zelula askoren gorputz bitxia. Iduri dute ile xehe batzuez estaliak, eta hotarik bat bada bertze guziak baino luzeagoa; hain luzea non bizkar-muinetatik zangoko eta eskuko eri-puntetaraino heltzen baita, bere iduriko batzuekin egiten duela korda xuri bat, euskaraz, zaintxuri deitzen dena. Adar luxe harek igortzen ditu bidenabar aldaska batzu. Sendimendua eta indarra hetan barna dabilta gure gorputzean.

Bada oraino bertze harrigarriko hanitz. Huna bat.

Amaren sabelean piztu-ta ordu beretik laster, zelulek, zatitzearekin, halere elgarri sorkan daudelarik, ez deramate gerokotzat sail bera: andana batek eginen dituzte hezurak edo bederen hezur-makilak; bertze batzuek, burumuinak, hirugarren andana batek begiak, lauga-

rren batek giltxurrinak. Berexkuntzazko lerrokatze hori, bakotxak geroko lanaren arabera moldea eta itxura hartuz, ez doa beti xuxen-xuxena. Arras haur guti da sortzen, osoki ontsa egina denik.

Aitaren eta amaren ganikako abiadura nolakoa zen, eta gero nola diren zelulak hazi amaren odoletik, hortarik ditazke on-gaitz guziak. Sortu-ta, hazteko moldeak, bizilekuak, aireak eta lagunakilako guduak dute finkatzen gutarik bakotxaren izaite berezia.

Dezagun erran bi hitzez nola diren hazten zelulak. Amaren odoletik ari dira behin; eta odol hau bera, amak hartzen dituenetarik.

Sortu ondoan, odol bera emendatzen da, haurrak barnerat deramatzanetarik: jan-edan, airetikako hats, iguzkiaren argi eta beroki.

Jan-edanetarik, hertzeak barnez-barne bere paretako zelulekin berexten du odolerakoa. Eta odola igortzen du bihotzak «tuido» batzuetan gaindi, gorputzeko xoko guzietarat.

Gero odola bertze «tuido» batzuek berriz ekartzen dute bihotzerat, xokoak ontsa busti, hazi eta garbitu ondoan. Odol beltza da, zikina, gibelerateko hori.

Gure gorputza berehala andeatua litake, ez balute odol tzar hura bide-nabar irazten giltxurrinek, bai eta larruak, bai eta biriek. Urtxuriak, izerdiak, gibelerat botatzen dugun hatsak, dakote gehienik kentzen bere zikina.

Ez uste ukan haatik zelula bakotxak badituela bi «tuido», bere zerbitzuko. Ez, multzoka dira bustitzen zelulak, esponja bat bezala, eta esponja bat bezala beren huskinetarik hertzen.

Hirugarren eranskina (ALTUBE, S. 1923. “Euskel-itz barrijak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen”. 78-93, in: *III Congreso de Estudios Vascos*. San Sebastián). Testua jatorrizko argitalpenetik eskaneatu dugu; hango *r*, *l*, *t* eta *d* tiletdunak, *rr*, *ll*, *tt* eta *dd* modura eman ditugu hemen. Jatorrizko orrialde-zenbakiak gorde ditugu, kortxete barruan adieraziz.

[78]

EUSKEL-ITZ BARRIJAK

Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen

Altube'tar S. Jaunak

Euskaltzaiña

Andrak, jaunak: Iragarri deutsuedan gai ori, Gernika-ko Batzar oneetarako itzeikizungarri' Mosen Antoni Griera (1) izkuntzalari jakitunaren eskabidez imini zan, eta Euskaltzaindijak' (2) neuri leporatu eustan lan ori; baña ez Euskaltzaindijak berak gai oni buruz zein eretxi daben nire agoz agertzeko, neuk neurez esan neikean deusezkerijia agertzeko baiño.

Neure laburtasun oneri batetik, eta bestetik gaijorri begiratuta' bildur naz neure lantxoau askori atsegingarrijegi ere ez ete jakon izango.

Izan ere, aintxiñatik Euskalerrijon zabal ta edaz bizi diran itz eder eta bear-bearreko askori, erderatikoak dirala ta beste barik, bekozko illunez begiratzan deutsenak' gaitz iruntsi daike, itz-barririk eraltzeko' iñoiz erdereetara jo bear izateori.

Itz-aldi onen lenengo atala, bada, orretariko bekozko illunok al daigun bestean arindduteko izango da.

Bigarren atalean gure iztegiaren utsuneak beteteko, erriak bereganatu eztituan erdel itzetara noiz jo bear dogun eta noiz ezko gai astun eta saillari ekingo deutzagu.

Eta parkatu gauza oneek nik baiño obeto dakizuezanok; bádakit, batez ere lenengo atalean esan dagitsuedanik asko, entzutez, irakurtez eta jakitez aspertu ere egindda zagozeena-ta.

— . —

Sarri entzun eta irakurri izan dogu: guk euskaldunok, askok beintzat, euskera-ikaste-irakaste lanak, izkuntza-jakintzatik urrun zamar-tuta erabili oi-dittugula (3).

Eta egi-egija da. Euskaltzale geijenok' beti geure buruz gabiltz euskel-gauzetan; izkuntz-jakintzarik ezpaltiz bezela. Eta ortixek sortu jakun orrako jakintziaz kontrako sunde orren barruan aurkitzen gara, geuk eztakigula.

Eta oker-sunde ori geure artetik nekez urrundu ta aijenatuko dogun antza ere báda.

Beste jakintzeetan, euren jakituriz ta buru-argittasunez, goittik agertzen jakuzan euskotarrik asko

(1) «*Lexicografía y Geografía Lingüística*» gaijaz, Bilbo'n, 1921'gko Urtarrillian emon zittuan beronek iru konperentzi. Ordutixek-eta-ona batez ere, ezagun dogu Jaun ori, geure izkera lanetan. (Konperentzi orreik, «*Eusko-Ikaskuntza*»k eraldu ta argitaldu ere egin zittuan.)

(2) Lan onen gaija, astuntxua izan jaku, euskera erreztxuz eta argi azaltzeko. Neke-pide ori txikitu naijez, *koma* klase bi darabilguz idazki onetan: bata *gorutz*-koa ta bestea *berutz*-koa; iñoiz beste irakurgai batzuetan ikusi izan dogunari jarraituz jo dogu argi-bide orretara.

(3) Letra txikijagoaz imintten dan guztija, etzan irakurri Gernikan, irakurtaldija luzeegi ez egitearren.

[79] kusi oi-dittugu, bear litzatekezan bideetatik ekinda, euskel jakintziari laguntasun aundija egin bearrean' alperriko lanetan euren buruak nekatzen.

Diñogun au onduteko' izentau giñaikez emen, oraindik azken urteotan agertu diran liburu ta idatz-lanik asko; euroetan egundo iñok bururatu ezittuan mailetaraiño eragitta agertzen dira, gaitz orren ondorenak.

Euskal-aditza (adibidez) etxeko ta kanpoko izkuntzalari ororen eretxiz, (bádakizue) aberats, eder eta argija izan da ezpai barik; geure izkera onen alderik bikaiñ eta gurena. Bada orain, aittatu dittugun liburu ta idatz-lan barri orreek dirauskuenez' oso bestetara da egija: gure aditz ori, gure *verbo* edertzat geunkan ori' guztiz iruli, aldatu ta barristau ezik' ez ei da ezetarako ere gauza.

Erdi-izentau dittugun liburu-idazle orreetarik batek, izugarrizko itz beeragari ta sokondoragarriak ezarten deutsoz, gaur bizirik ezagutzen dogun euskal-aditz oni (1).

Eta ez uste izan (au biotz-biotzez agertzen dogu) itz orreek, euskieria zapaltzearren dirianik; geure Erri ta izkera au maitte-maitte dittu euren idazleak-eta. Fedirik onenez, baiña izkuntz-jakintza oker eta bidekatuak bultzatuz eldu dira, au ta onen antzeko beste euskaltzale aittugarrijok, uste gabeko ondoren eta asmokeri orreek ontzat emoteragiño.

Bide oker orreek ekarri oi-dabeen itsutasun ikaragarriak jota, ona noraiño eldu garian:

Neu itzaz, erderazko *yo* aitzen dogu euskaldun orok. Bada, ez ei da ori sentzunezko; ta *Neu*, yotzat barik, *Neu, tu (mujer)* tzat erabili bear ei-dogu; ta *Neu naiz, tu eres (mujer)* tzat (2). Eta orreexen antzera beste edozenbat asmokeri.

Baiña, gure ustez, barrikeri onen asmagilleak eztau erru andirik orretan; gora-go esan dogun, eta euskaltzale geijenok gitxi-asko maite dogun eskola okerraren irakatsijak bide ontzat artu' ta euroetatik sortzen diran ondorenak, azkenengo maille-etaragiño zuzen eta artez eroan baiño eztau egin berak.

Eta, gure eskola oker onen alde nagosija zein ete da? Nire uste makalez urrengo auxe:

Izkeria' geuk nai daigunera biurtu giñaiken gauzia dala, *larregi* uste izatea.

Eta uste orregaz, or gayabilkoz geure izkera oni, batak ziki, besteak miki; arek au aldatu bear jakola; onek aldakuntza txiki batzuk naikoa

dittuala, orrek txiki batzuk al badira aundijagoak ere bardin ezarri leikeozala, eta abar ta abar. Eta arteetan alkar aittu ezin; egin bear geunken lana (euskeria dan legez, bizi dan bezela, ondo, zeatz ta zustraiz eza-gutu, lenengo beintzat) ori' iñok egin nai ez; izketiau eragitteko, goratzeko, eskuetan dittugun bide jakiñ eta errezak' artu nai ez; itz batez, alperriko lanai ekin itsu-mustuz, eta bear-bearreko ta onuratsuak' lo.

Izkeria barriz gauza bizija bezelakotzat artzekoa dogu. Argizerizko santuari, edo giza-irudi bateri, egin leijo, emen zatitxu bat kendu, an imini; gorago arraijatu bat egin, beerago azpilduratxu bat atara, zintzel, formoi, ezten edo beste edozetariko erremintta edonun eta edozela ezarririk. Baiña izkeraak etxakuz orrelakoak; azur, mamiñ eta azala, odol eta izardija dabeen benetako bizikijen antzeko baiño. Eta etxagokoe eurai iñor zirrika ta zati-iminka ibiltterik.

Baldin geure izkeriau ba, sendatu ta inddartu nai badogu' egualdijak zugatz, ortukari ta beste landaraki orori bezela emon giñeijo laguntzia; landarakija, eguzki-eurijak onuratu oi-dabe; izkeria, ekiñaren berotasun eta beti agoan erabilijaren bus-tittasunak. Orixe dogu guk ere bide BAKARRA, asko ta askori nekez burura sartzen bayaku ere: atara aixetara geure izkera maittiau, erabili beti-ta-beti, edo-nun eta edo-norekin; emon orretaraxe bizija ta inddarra, eta orduan errez izango dogu bear dan neurritz garbittu ta txukuntzea, alboko bedar txar ta gauza eztranak kenduz; beste asmokeri ta barrikerizko bideok, alperriko ta kaltegarri baiño ezтира.

Esandako barrikerijoi eskubide-antza emoteko' bide-txigor sasitsu ta illun batera eroan oi-dittugu euskera autuok. Eztirala eurok (barrikerijok) geuk asmaurikoak, esan oi-dogu. Ain tokitan edo ain denporatan, itzen bat edo itz atalen bat onetara ta bestetara esaten dan edo esaten zan agerki andi edo txikiren bat bá-ei-da; eta ortik zuzen-zuzen ataraten ei-da (zentzunak berak ei-diño-ta), barrikeritzako ori, ontzat artu bear dogula.

Naste-borraste oneen deuseztasun eta makaltasunaren zustraija' izkerakijen *zabalgoa* aintzat ez artzetik sortzen da.

¿Zer da *zabalgo* ori?

Bádakizue: itz batzuk' (euskeria adibidetzat artuta) Euskalerrri oso-osoan ezagunak eta erabilijak dira: *Ni, Zu, Aita, Ama* eta abar beze-

la. Beste itz batzuk' euskalkiren baten baiño eztira entzuten: Bizkai'ko *Erru* (culpa) ta Gipuzkoa'ko *Garai* (sazón, época) bezela. Bádira erri baten, auzo baten eta iñoiz etxe bakarren baten baiño entzuten ezti-ran itzak ere. Bardin gertatzen da izki, itz-atal, esakera ta beste izke-riaren agerkun guztijetan ere.

Itz bat era orretan gitxi edo asko zabaldua bizi dala agertzeko' erdel-dun izkuntzalarijak erderazko *area* itza erabili oi-dabe; «*voz de mucha area*» zabal bizi dan itzari, toki askotan ezaguna danari. Guk *area* erdel-itza orren ordezk' zabalgo euskal-itza erabiliko dogu irakurgai onetan.

(1) *Ensayo de la Unificación de Dialectos Bascos.*—P. SOLOETA.—Dima (1922).—90 gn. orr.

(2) P. SOLOETA. Ait. lib. 58 ta 59 gn. orr.

[80] Esandako bide illun eta nasteetarako laguntasun ederra auxe dogu: zabalgorik txikijena dabeen itz edo izkerakijak, naiz aundijena dabeenak' neurri baten iminttea, garrantzi bardiñekotzat artzea. Zabalgo orren ordezk' eretxikizuna, geuk gauza batzui baiño beste batzui polittago edo egokijago eriztea imintten dogu; baiña onako eretxijok, (jakiña) zenbat buru, ainbat aburu: bata' au dala polittena, besteak' ori dala aintxiñakoena, urrengoak' a dala zentzunezkoena.

Oker-bide orreekaz geure izkera oni zenbateraiñoako kalteak erakarten deusaguzan, eretxiratzen ere gaitz da. Alkar aittu eziña gitxi ezta' alperriko lanetan aldija emotea; zeruetako edo aingeruen euskeriaz amesetan ibiltten ikasi ta lurrekoau ezagutu ta ikasteko zaletasunik, ez gogorik, ez izatea; iñok (edo gitxik baiño) ulertu eziñezko euskeraz, liburu eta idatz lanak egin' eta onetara irakurlerik asko uxatu ta zalegetzea. Benetan, euskeriak burua jasoteko dittuan eragozpenai lagun egitteko' ezin zittekean gaur bide obarik autu.

Izkera gauzetan zabalgo orreri bear dan lotsia ta garrantsija emoten ikasi ezpadaigu' eztogu zekula lan ganorazkorik egingo; eztogu euskeriau inddartu ta goratzeko arloan aurrerapiderik lortuko.

Bestetara barriz' eztiñogu guztija egindda legokenik, baiña onetarako bear-bearreko dogun bidea artu bai. Eta lenengo egunetik oartuko geunkez onurarik asko: sortu bear etziran eztabaida asko bertan-bera ildda geratzea; beste ezta-baida geijenak beingo baten eta bear dan legez amaitzea; aldi bakoitzean nortzuentzako idazten dogun begiratu, ta euron artean zabalgo andija eztaben itz eta izkeraki gitxi edo bat ere ez erabilirik' beti euskera samur eta gozoa irakurlien begi aurretara eroatea, eta orrela irakurteko zaletasuna zabaltzea. Eztira gitxi ta muxin egitekoak oneek eta beste jaritxiko geunkezan onuraok.

— . —

Aittatu dittugun izkuntziaz kontrako gure buru-bideok' iztegi arazoetan ere aurrez zabaldu jakuz.

Izkeria nai bezela aldatzeko gauzia dala uste izanik' jakiña, geure euskera oni, erdera useiñik dabeen itz eta izkeraki guztijak kentzeko asma, ustez, eder eta aberkoiaz ames egin dogu.

Olantxe ere, izkeriaren gauzarik barruko ta kutunena gramatika dan ezker (1), garbikerizko asmo edo ames orretan ere' euskal-gramatika aurreren eta beiñen imini bear geunke. Baiña eztogu ori egitten.

Itzak, iztegiya, izkeriaren alderik azalekoen eta aldakorrenak baiño eztira. Baiña zuzen ere, azalekotasun orrexegatik, itz askok agiri-agiri izaten dabe, erderatikoak diranean, euren erdel-useiña. Edonor gara maixu igarte orretan, sekula euskeriaren gaingo ikaste txikijenik egin eztabeen euskaldunak ere bai. Eta ortixek sortu da, ta errian errez zabaldu, onako eretxi oker-okar auxe: «Euskerarik onena' zuzenena' jatorrena' erderatiko itzik gitxien darabillanena dala.» Eretxi oin-bako, zustraibako onek, amaikatxu izlari ta idazle ganora gitxikori estaltzen deuskue geure ez-jakiña. Euskal-gramatika agintzen daben arauz lau itz soiltxu erreskadan imintten eztakigun asko' or ibili oi-gara panparroi, *botilla* esateko *bonbill*, *tximinijaren* ordez *kezulo*, eta oneen antzeko beste bost edo sei jakinkeri erabilijaz, euskeraz ederto dakigula erakutsi nairik.

Besterik da gure baserritar askoen euskera samur, gozo, itzez aberats eta esakun politzez jositakoa; alako jakinkeri ta beste barrikeri barik azaldu oi-deuskue eurok edozer, bear danean (mundu guztiko izkera-legeai jarraituz) erderatiko itz gure artean zabal zamar bizi dirianak, kezka barik eta egoki-egoki bittartuten dittuela. Ortze dau euskalzaleak, geure aberriko izkeria ondo nun ikasi, ez gure geijenoen idazkijetako euskera margul, gaza, txepel, otz eta murrjetan (2).

Oraingo euskal-idazleok, erderatiko itzai artu deutseegun iguin neurritz kanporako orren sortze-bide bat' lengo gizaldijetako liburu-idazle batzuen bestalderantzeko gatxa ere izan da, urrean. Orain berreun urte inguru, *Juan Irazusta* eritxon *Hernialdeko erretoreak* euskeraldutako Aita Asteteren Dotriña kartillia eredutzat artuta edo, ordutik eta ona idatzi diran erderakadaz jositako ta euskerazko izenik ere merezi eztaben lotsagarrizko liburu batzuk' gura nai ez sortu-erazo bear eukeen, bestalderantzeko gogo larregiko bat; eta sortu da, ta gogor, igaro diran urte batzuetatik eta onuntz.

Irazusta-tarrok euren itxitasuna eta erdalkerijia urrun eroan bae-ben, ez gara gu orain geure garbikerija orregaz ere urrago geratu; egal batetik bestera joan gara, ertz batetik bestera.

Irazustak «*prinsipioa ta fiña*», *asija* ta *amaijaren* ordez erabilirik' izkera legeai, bi eratar

(1) Ikusi, RENAN, *Histoire des Langues Sémitiques*, V liburua, II buru-atala.

(2) «Les gens du peuple ont de leur langue une idée généralement très précise; ils sentent avec une rare délicatesse les moindres infractions á la règle». J. VENDRYES. *Le Langage*, p. 284.

[81] uts egin eutsen: lenengo, euskerazko itz egokijak utzi ta erde-razkoetara joteaz; bigarren, euskaldunen artean zabalgo andija dabeen itzak baztatu' ta iñungo euskaldun jatorrek aittu eziñezko itzak

imintteaz. Baiña bigarren lege oni, bardiñ uts egitten deutsoe oraingo garbikerizaleok ere, arako *pekatu*, *fede* eta oneen antzeko itz argi, esan-guratsu ta zabalgo aundikoak sokonduratu, ta euron ordezkotzat, iñok edo gitxik baiño ondo aittuten ezittuenak erabiltteaz.

Utzi daiguzan larregikerijok, naiz batetarikoak naiz bestetarikoak izan eurok.

— . —

Erderatiko itzen arerijook talde bittan berezi ei-giñaikez. Lenengo, zustraitijak: erderatiko itzik bat ere ontzat emon nai ezittuenak; bigarren, biguntxoagotijak: erderatiko itzok ontzat artu geinkezala diño oneek, baiña euskera bizijan ikurpen bardiñekorik ezagutzen ezteanean bakarrik (1). Lenengotariko arerijooi, zustraitijoi, len esan dogunez gaiñera, itz bi baiño ezteutsegu zuzenduko: munduko izkuntzalari oroen eretzijak eta Erri aurreratu oroetan (alan ere gureau bezela aundijagoz inguratutakoetan) gertatu dan eta gertatzen danak, guztijak, eguzki-argittasunaren indarrez bezela agertzen deuskula asmo orren lortu-ezin, atzerakarittasun eta bide-gabetasuna (2). Gure izkeraonen erijotzarik loratsu ta aberkoiena ustez, baiña benetan ziurren ta bizkorrena' bide ortatixek billatu geinke: ekin danok geure iztegi gaixoaren erderatiko itzai tiroka, eizean... Baiña ¿zergaittik ez erreztu euskeriaren bizi al izatea? ¿Eztirauskue bada izkuntzalarijak eurak, erderatiko itzok gora-bera, iztegiyen arrotz-tasuna gora-bera, izkeraak ezabela galtzen euren nortasunik? (3) ¿Zerk garoaz bada maitte dogula diñogun izkeraoni, erijotz-bideetarutz bultza eragitten?... Aurrean daukaguna ez ikustearren ezteiguzan geure begijok itxi. Euskeriari deusagun maittetasunak berak ekarriko al gaittu bide onuragarrikoetara, orok bidez lanean ekindda ere bádogu zeregiñik asko berari laguntzen-eta.

Bigarren taldekook nai dabeena, larregikeri barik eta erderatiko itzen kontrako mukerkerijaori kenduta' artu lei neurritzat. Baiña one-

tara artu ezkeru, geijenetan beintzat, ezlegoke erderatiko itz zabalgo andikorik zeitten baztatu. Ikurpen bateko, esan-gura bardiñ-bardiñeko itz bi' gitxittan eta aldi laburren baten baiño ezin bizi izaten dira izkereetan. Errijak laister ezbardinndu ta erabikotu oi-dittu orretariko itzeen ikurpenok. Benetako euskeldunak, arin asmauko dau (adibidez) *pixutsu* erderatiko itzak eta *astun* euskerazkoak agertzen daberen bardiñeztasuna. «Gorputz *astunø*» gorputz-aldi txarra daukagula adi-erazoteko ere esaten dogu, baiña «gorputz *pixutsuak*» eztau ori iñoiz ere esan gura, *benetako pixu* aundija daben gorputza baiño. «Pekatu *astunø*» erderazko «pecado grave» adierazoteko' ederto esanda dago, baiña ez «pekatu *pixutsua*»; onetara eztau iñok esaten. Erderatiko *pixutsu* itzaren ikurpena' laburragoa, estuagoa da ba; gauza batek *benetako pixu* andija dabela adi-erazoteko baiño ezta egokija. *Astun* itza barriz, gogo, zentzun, arima eta *benetako pixurik* eztaben gauzetarako ere erabili leitteke; baitta *astuntasuna* irudi-bidez artu nai dan aldi guztijetan ere (4). Itz bi oezaz gertatzen dana jasoten da beste asko ta askoezaz ere: eta iztegiaren zeatz-tasun eta aberastasun-bide ugari-ugarija da (5) erderatiko itzok orrela ekarri oi-daben ikurpen banantze edo erabikotze ori.

Orrez gaiñera, erderatiko itzoen kontrako burrukea irabazi al izateko' gaitz-tasun berezi-berezijak ere agertzen dira sarri.

Ikusi daiguzan onetariko gertakun batzuk.

(1) AMÉRICO CASTRO, *El elemento extraño en el lenguaje*, 48 gn. orr. Conferencias de «Eusko Ikaskuntza».

(2) Ikusi, AMÉRICO CASTRO, *ibid.* 43 gn. orrialdetik eta 60 gneraiño. MICHEL BRÉAL, *Essai de Sémantique*, 282 gn. orr. ta urrengoak. J. VENDRYES, *Le Langage*, 269 gn. orr. ANT. GRÉGOIRE, *Petit Traité de Linguistique*, 148 gn. orr. ALBERT DAUZAT, *La Philosophie du Langage*, 102 gn. orrialdetik eta 109 gneraiño. ALBERT DAUZAT, *La Géographie Linguistique*, 119 gn. orr. EUSKERA, *Euskaltzaindiaren Lan eta Agiriak*, 1920-1921, 1-go zenbakia, 28, 32, 33 ta 34 gn. orr. Eta abar.

(3) A. HOVELACQUE, *La Linguistique*, 10 eta 53 gn. orr.

(4) Ikusi J. VENDRYES, *Le Langage*, 261 gn. orr. «La création d'un mot nouveau ne détruit pas nécessairement l'ancien, mais le rejette souvent dans une partie spéciale du vocabulaire.».

(5) MICHEL BRÉAL, *Essai de Sémantique*, 289 gn. orr.

[82]

LENENGO GERTAKUNA

Erderatiko itzak zabalgo andija ta zustraiikide asko izatea

Erderatiko itz bat ontzat artzeko, aurreneko zegaitija' zabalgo andikoa izatea da. Itz batek bere zustraijak, bere erpeak, zenbat eta sakonago ta gogorrago errijan sartuta dittuan' ainbat gaitzago izango da orpotik atara ta bazterreratzen. Zabalgo ori, zustraitasun ori, neurri aunditxu batera eldu ezkerok' alper-alperrikoak (eta kaltegarriak, beraz) izango dira bere kontrako idazleen alegiñak; errekan bera datorren ur-jola bizi ta itsuari, umeak olgetako egin oi-dituen ugeska ta uxetak aurrean iminttea bezelatsu. Eztogu ezer lortzen idazleok orretara ekindda, irakurgaijak illundu ta zan-bakotu baiño.

Erderatiko itzak, baldiñ zabalgo andijaz gaiñera, senide edo zustraiikide asko (zustrai bardiña dabeen beste itz asko) badittu' alperrikoago izango da oraindik bera baztatu nairik ekittea. *Santu* erderatiko itza (adi-bidez) euskeraan zabalgo aundija dabelako' oso gaitz litzateke baztarteza; bada gaitz-tasun ori asko geittuten da oraindik, urrengo imintten dittugun bere itz zustraiikideok zabal bizi dirialako: onako *Santutasun* (erderaz, *Santidad*), *Santutu* (*Hacerse santo*), *Santularijo* (*Beato*, *Santurron*) *Aitta-Santu* (*Papa*), *Santutxo* (*Humilladero*) ta abar. Eta bardin gertatzen da beste ainbat erderatiko itzez ere. Orretara alde guztijetatik errihari euren erpeak sartuta bizi dirian itzak ¿zelan azpiratu beste makal batzuk euren arerijotzat imiñitta? *Dauzat*

izkuntzalari jakittunak dirausku oneri buruz itz egoki-egokiz: Izkuntza-gudakeetan, giza-gudakeetan bezela, gudarozte aundi ta ugarijenak urten oi-dabeela garaitzaille (1).

BIGARREN GERTAKUNA

Erderatiko itz baten ordezkotzat' ikurpen edo esan-guraz antzeko baiño eztan euskerazkoa imini nai izatea

Gaitz da bide orrez ere, garbikerizko asmoetan, ezer jaristen.

Orretaraxe baztatu nai izan dira arako *Pekatu*, *Arima*, *Santu*, *Fede*, *Eletrika*, *Dotriña* ta beste bear-bear dittugun itz zabalgo andiko ta ikurpen balijotsukorik asko. Euron ordezkotzat imini oi-diran euskera utsezkoak' bádakizue zeintzuk diran: onako *Oben*, *Gogo*, *Guren*, *Siñiste*, (edo *Siñiskintza*), *Tximista*, *Ikasbide* (edo *Jakinbide*) ta abar.

Gauza bakoitza izen bereziz aittatzeko, erriyak beti agertu oi-daben jokera bizizak' eragozpen gogorra jarkiko deutse idazleen garbikerizko asmo orreeri. Errijarentzat *Oben* eta *Pekatu*, itz bi guztiz bardiñezak dira; bakoitzak bere ikurpen berezi ta garbija dau. Bardiñ gertatzen da *Arima* ta *Gogo*, *Eletrika* ta *Tximista* ta abarregaz ere. Txirotasun eta atzerapide aundija litzateke, beraz, orretariko itz-bikook, bat baztartzuz, batetaraztea (2); gure izkeriau, beste inguruko guztizak baiño beragoko mailleetan ezartea baiño ez litzateke ori. Gure *Arima* ta *Gogo* itzeen orde (berbarako), or dauskuez inguruko izkeraok euren *Alma* (*Anima*), *Espiritu*, *Mente*, *Animo* (3) ta abar, eta bat ere baztartzeko asmorik (errazoi-az-da) eztabe agertzen iñoiz; gu gara, iztegi txiroagoa dogula, oraindik murrijagotzeko adorea dogun esku-zabalak.

Beste alde batez, *Siñiste* eta *Fede* bezelako itzak agertzen daben ikurpen-bardiñetasuna, ta beraz bakoitzak bere zustrai berezizkoaren jabe bear izatea, landaraburu (ta ez bata bestearen aijen edo

(1) Ikusi DAUZAT'en *La Géographie linguistique*, 53 eta 66 gn. orr.

(2) JUAN JOSÉ MOGUEL'ek bere *Mayatz-illeraco Berba-aldijaac* deritxon liburuaren 2 gn. orrialdean, auxe diño: «...beti aurreneengo dirala ARIMAKuak (premiñaak) GOGUan ondo eukirik...». Gure garbi-zaleok, eztakigu zelan esango leuskijon, esakuntxu ori, erri zee ta ez-jakiñari, Mogel-ena baizen argi, txukun ta ulertze-errez izan dakijon beintzat. J. A. DE URIARTE'k *Marijaren illa*ren 144 gn. orr.: «PEKATUra OBENdu ta makurtua...» idazten dau, itz bakoitzari bere ikurpen berezija politto ta egoki ezarten deutsela. Goratxoago, 138 gn. orr. auxe diño: «O, eta zelan kondenetan daben Jesusen OBENTasun onek gure mukertasuna». OBEN, PEKATUtzat artu ezkeru, Uriarte'ren azkenengo esakun au ez litzate santu-santua.

(3) Ikusi itz oneen bardiñeztasunari buruz, R. BARCIA'k bere *Diccionario General Etimológico*'n diñoana.

[83] adar) izateko dabeen eskubidea ere' erderaak eurak erakusten deuskue ederto; eureetan, orretariko itz bakoitza, beronegandik sortutako beste adar-itz askoren ondo edo zustrai bezela agertzen da. Ikusi espaineraz, adibidez, gure *Fede* ordezko euren *Fe* itzaren senideak: onako *Fidedigno*, *Fiducia*, *Fideicomiso*, *Fehaciente*, *Perfidia* (*Pérfido*, *Pérfidamente*), *Fiel* (*Infiel*, *Fidelidad*...), *Fielato*, *Fiar* (*Fianza*, *Confiar*, *Confianza*, *Desconfianza*...) eta abar, alde batetik; eta bestetik gure *Siniste* ordezko euren *Creer* itzaren senideak: onako *Creído*, *Creencia*, *Creíble* (*Increíble*, *Creíblemente*, *Credibilidad*...), *Credo*, *Crédulo* (*Incrédulo*, *Credulidad*...), *Crédito* (*Acreditar*, *Desacreditar*...), *Credencial* eta abar. Gure goragoko itz-bikook batetartzeaz' aor beste kalte bat: itz-eratorpide ugari ta sakon-sakonak, orpo-orpotik atara ta ondatzea.

Gertakun guzti orreetan eta beste antzeko orotan bada, erriaren berezko-zentzuna, len esan dogun bezela, ikurpen bardiñezak itz berezijeiz izentau bear izatearen indarrak bultzatuta' nekez obenduko da erderatiko itzoi jareiten. Erriaren berezko-zentzun orrek, eztaki (eztau jakin iñun ez iñoiz) itz batek bere sortzerea onetariko edo bestetariko dabela-ta, baztartzea ala goratzea merezi leikeanik. Beste toki batzuetatik sortzen dira, ez ortik, izkerai zirkiñ eragitten deutseen inddarrak.

Eta izkereen berezko-indar sendo, ur-jolatsu ta ezi-eziñezkoen kontrako bideetatik geure euskeriau eroan eziñik, ezteigun alperriko alegiñik egiñ, diñogu barriro ere.

IRUGARREN GERTAKUNA

Erderatiko itza ordeztzeko, euskera utsezkoa, laburra izatea

Erderatiko itz bat luzetxoa, izki askotxo dittuana baldin bada, ta euskera utsezkotzat dogun ordezkarija, labur zamarra' gorputz txiki-koa' gaitz izango dau onek a azpiratzen. Orixe oartu giñaike izkuntz-jakintziaren irakatsijetatik, batez ere, *Gilleron* ospatsuak, Prantzi-izkereetako *Atlas linguistique* deritxon lan aundiya agertuz, jakintza orreri geittu deutzazan argi-bidez berori aberastu danez gero (1).

Izkera orotan errijaren jokeria, itzak apur-apurka esate-erreztu ta laburtzekoa izan oi-da. Alperkerizko jokera orrek, itz asko, len luze, berezi ta eder zirala' gero, labur eta txatxar izten dittu; eta euren soiñua, beste itz batzuenaz, zein zein dan ezagutu ezindako moduan bardinduta sarri. Ta au gertatu oi-danean' erriyak berak egiñ oi-dau alegiñ, etxean edo kanpuan (bere izkeraan edo erdereetan), orretara illundu ta naste-bidean sartu diran itzeen ordezkarijen billa (2).

Bada, euskal-idazleok iñoiz nai izaten dogun bezela, erderatiko itz luze ta soiñutsuak baztatu ta euron ordez euskera utsezkotzat dittugun laburtxo batzui lurra artu eragittea ere zein gaitz dakikegung' garbi agiri da izkuntz lege orrek irakasten deuskunaz.

Orretariko itz labur bat, adi-bidez, arako AT (edo ATE), erderazko *Fuera* ikurpenakin berbiztu nairik darabilguna da. Euskal-itz labur ori, oso alde gaitzean aurkitzen da *Kanpo* erderatiko itzaz (3) burrukan ekitteko:

Lenengo. *Kanpo* itza zabalgo aundi-aundikoa dalako, ta AT (naiz ATE) oso txikikoa (bapezekoa ez esatearren).

Bigarren, *Kanpo* itzaren aldean AT itza' laburra, soiñuki gitxikoa dalako.

Irugarren, itz eta izkeraki laburregijai sarri jaso oi-jakoen bezela (4), AT (edo ATE) itzak ere' soiñuz beronen antzeko beste itz batzu-

kin, naste gogaikarri ta jasan eziñezkoa sortzen dabelako. Beste itz orreek ATE (erderaz, *Puerta*), ta ATE (erderaz *Pato*) dira (5).

Ikusi daigun itz onei jagokoen erderazko esakun bat:

«EL PATO ha salido FUERA de la PUERTA»

Euskeraz ¿zelan esango dogu? erriyak argi ta bizkor erantzungo deusku:

«PAITTIAK, ATetik KANPOra urten dau»

(PAITTA ta KANPO erderatiko itzak izan arren). Euskera garbiz (edo *garbitzakoz*), barriz ¿zelan esango geunke?

«ATEak, ATetik ATEra urten dau»

(1) Ikusi DAUZAT, *La Géographie linguistique*, 53 ta 66 gn. orr. Eta J. VENDRYES, *Le Langage*, 250 gn. orr.

(2) DAUZAT, *Géographie linguistique*, 68 gn. orr.

(3) Euskerazko *Kanpo* ta erderazko *Campo*, eztira bardiñak ikurpenez; euskerazkoak *Fuera*, esan nai dau: *Kanpora* (*a fuera*), *Kanpotarra* (*forastero*).

(4) DAUZAT, ait. lib. 89 gn. orr.

(5) ATE euskel itzau berau ere erderazko ANADE (edo latín ANATE) tik eii-dator. Ikusi C. C. UHLENBECK, *Phonétique comparative des Dialectes Basques*, 49 gn. orr. Ta BONAPARTE, *Le verbe basque...* XXIX orr. 3-gn. oarra.

[84] Erriyak azkenengo au ta onen antzeko naste ta esakun illunik ezin eukean jasan eta bear bada orrexegaitik jo eban erderatiko *kanpo* ta *paitta* itzakana ta euron bidez aijenatu dittu zeatz eta ederto naste irunsi ezin zitekezanok. Eta ezteutse jareingo itz orrei ezetatik ezeta-
ra ere, idazleon ekiñai gorabera.

Eta onen antzeko gertakunak asko aurkitu geinkez euskeraan, beste edozein izkereetan bezela (1).

Ta sarri, premiña dan baiño urriñago juan oi-da errija olako osagarri billa. Bizkaitarron ITXI itzak, adi-bidez ikurpen bi dittu: espaiñarren *Cerrar* eta *Dejar*. Naste orretatik iges egin nairik eraldu dabee, erri batzuetan, *Dejar* esateko erderatiko LAGA itza, beste euskalkijetako UTZI itz argi ta bikaiña alboan utzita.

Itz laburrok ezittue beti orretariko nasteak erasortzen, baiña alan ere erriyak sarri jareitten deutsee ta ordeaz luzeagoak artu. Balitteke arako ZIN eta LER euskel-itz polit-polittak utzi, eta *Juramentu* ta *Piñu* erderatiko itzok toki askotan zustraitzen ere, itz laburren kontrako lege orrek zerbait lagundu al izatea, ta orain eurok bazartu al izateko, kalte ere egittea.

LAUGARREN GERTAKUNA

Erderatiko itza ordeztzeko' euskerazko ikurpen bardiña eztaben bat, zerbait soiñuz aldatutakoa izatea

Euskaltzale batzuk, nai izan dittue bide orrez ere erderatiko itzak ordeztu. Batzuen ustez, len esan dogun *atE* itza erderazko *Puertatzat* utzi' ta *Fuertatzat*, *atA* erabili geinke. Beste batzuen ustez, *Ontzi* ta *Untzi* erderazko *Vaso* ta *Barcotzat* banandu leikez; *eskEr* eta *eskAr*, *Izkierda* ta *Graciatzat*; *Burni* ta *Gurni*, *Hierro* ta *Acerotzat*; guztiotan, letra baten aldakuntziaz, ikurpen aldakuntzia jaritxi nai dalarik.

Baiña izkuntz-jakintziak, aldakuntza txiki orreeri buruz oartzen deuskuna ikusitta' bálitteke bide orrez ere onura aundi-aundirik ezin lortu al izatea. Izkereen jokeria, bestetara dala irakasten deusku jakintza orrek: itz bi, soiñuz antzeko diranean' batak bestea erakarri ta bijak bardin-bardin geratzeko arriskuan izaten ei-dira (2).

Alkar-erakarte lege orrek lagunduta dirudi, len esandako *Utzi* ta *Itxi* itz alkarren antzekook bizkaitarron agootan bateratu (bigarrene-

ratu) dirala; bardiñ antza danez, *Oratu* (*Agarrar*) eta *Goratu* (*Levantar*) ere, Bizkai'ko erri batzuetan: euroetan *Agarrar* esateko ere *Goratu* esan oidabe-ta.

Baita *Jesarri* (Sentar) eta *Jarri* (Ponerse), eta (Gipuzkoa-aldean au) *Irakatsi* (Enseñar) eta *Erakutsi* (Mostrar) ere.

Lege orrek eta beste fonetikako lege batzuk, pozik alkarrerri lagun egiñ oi-deutsee, ta bitzuon artean alperrik galdu ere bai itz ederrik asko.

Onetariko jasokun irakasgarri bat, euskerazko EREILLE itzak agertzen deusku; itz orrek, euskaldun askoen agoetan, eztakigu zer esan nai daben: ala *erAille* (asesino), *erEille* (sembrador), *eragi(N)lle* (removedor) ala *eraGille* (levantador, edificador). Ementxe, naste onetantxe daukagu, ziur-ziur, lau itz orreetatik bijen makaltasun edo erijotziaren zegaitija: galdutzako itz bijok, *Eraille* (asesino) ta *Eragile* (levantador) dira, dakizuen bezela.

Izkereen jokeria orretara dala' gaitz geunke bada aittatu dittugun itz bikoitzoi (*atE-atA*, *Untzi-Ontzi* ta abar) eta euren antzekoai, askok nai dabeen eraz (bakoitza bere ikurpen berezijaz) lurra artu erazotea: zuzen ere, egiñen ori lortutea ikusi dogun alkar-erakarte lege orrek nai daben iruntsi-aldera izkeriari jokatu erazotea litzateke-ta. Izkerak, barriz, ezin eroan giñaikez eurak agertzen dittuen berezko inddarren kontra; irakurgai bidez, eskola bidez, jarispen asko lortu geinkez: baiña izkera-inddarren arira ibilitta, berezko inddarrok onura-bideruntz al daigunez zuzenduta izango da, bestetara ez. Ezteigun bada idazleok orretariko itz-bikoitzik sortzen alegiñik egin; erriak berak soiñuz-urreratzen dittuanoi guztiz bardinndu barik eutsiten alegin egittea ere, naikoa dogu zeregiñik.

— . —

(1) Ikusi DAUZAT, *La Géographie Linguistique*, 68 gn. orr.

(2) DAUZAT, *Géog. Ling.* 54 ta 72 gn. orr.

[85] Iztegijaren aberastute edo txirotze, itz batzuen jaijote, beste batzuen iltte, eta izkeriari jagokozan onetariko gora-bera guztijak' izkuntzalari begi-zorrotzenari ere sarri ondo ikusten gaitz jakon aintbateko txiki, ta adimen-argijenari ere zeatz zenbatuten nekez litzakijon besteko ugari diran inddar berezijen ondorenak dira (1). Orixe eragertzearren (izkuntz-ikasteetatik urruntxu dabiltzan euskalzaleai orixe oartu erazotearren) aittatu dittugu, adi-bidezko lau gertakunok; eta eztittugu izkuntz-jakintziak irakasten deuskuzan orreen antzeko beste gertakun geijago ta geijago eragertzen, naikoa dira lauok argi-izpi batzuk adimeneratzeko-ta.

Erderatiko itzok ere (asko ta asko beintzat) eztira bada, arako geijagoko barik, beingo baten, geure iztegira, moltsoan eta pilloka irulittako atzerritar lapur, kalte-gille ta bake-apurtzailleak. Sarri ta sarri' aberastasuna ekarri deuskue, argittasuna, zeatz-tasuna; gure iztegiko itzeen alkar-erakarte, trill-egitte, laburregitze ta beste naste-bide batzuk sortutako marapilloak azkatzea ta euren arteko bakea ere, ekarri leikeguen, erdel itzok, mundu guztiko izkerai eroan oi deutseen bezela.

Ezteiguzan bada eurok itsu-mustuan gorrotau, asko ta asko guztiz maitagarri baiño eztittugu-ta.

Onetan ere, jakiña, mundutar gauza orotan bezela, goi-beiak bear dabe. Erderatikoak dira, adi-bidez, arako aintxiña-aintxiñatik geure-erritaratutako ta gorengo mailakotzat artu geinkezan *Kipula* (edo *Tipula*), *Pago*, *Urki* eta abar itzak; ta erderatikoak, Irazusta Erretoreak, gorago esan dogun bezela, euskeriari ezarri nai izan eutsazan beerengo mailako *Prinsipioa* ta *Fiña* ere. Aor dittugu eskillara luze baten buru-oiñak; bittarteko maillok, asko dira.

Erderatiko itzok bada mailla askotan imini geinkez; batzuk beste batzuk baiño eskubide andijagoa dabe, euskeriak ontzat artzeko. Eskubide onen neurri eder, garbi ta zuzena' itz bakoitzak euskeldun jatorreen artean lorturik daben zabalgoa da, gorago esan dogun bezela. Neurrijau, lenengotzat, nagusitzat artuta, ziur-ziur goaz, len aittaturiko izkera-inddarren alde, euren arira: naiz-eta ezagutu ez ondo (ezta errez ere ta) inddarrok eta euron legeak. Beste neurri-bide guztijak, lenengo orren urrengo ta berorren laguntzailletzat artzekoak baiño eztittugu.

Arinddu daiguzan bada kanpotiko itzoen kontrako bekoki illunegijok: itxi daijogun, alegiñez, geure errijaren iztegi zabalgo andikoari bakean, eta emon geure inddarrok beste lan onuratsugoko baten: iztegiyorrek (erdel-itz zabalgo andikoak ontzat emon-da-gero ere) agertzen deuskuzan utsuneak al-baitt ondoen eta lege-bidez ornidu ta beteten.

Ta lan auxe dogu, itzaldi onen asijeran esan dogun bezela, urren-go atal onen gaija.

II

Euskeriak, berau uri askotan eta baserri geijenetan bizi dan bezela artuta' gauza errikoi ta samurtxuen gain itz-egiteko naiz idazteko' idazle askok uste dogun baiño iztegi aberats, zeatz eta zabalgo aundi-jagokoa dau; auxe, bene-benetan sinistuta diñogu, euskaldun lauai, erritarrai, sarri euren izketia entzuten pozik egon-da-gero. Euskeria geuk ere eurak bezela bagenki' orain arte erabili dittugun irakurgai geijenetan, ez geunkean zeitten itz-barri ta beste zabalgo txikiko askogaz geure irakurgeijok illundu, zanbakotu, makaldu ta gauzaeztandu.

Baiña, lenago ere askok oartu eragin izan daben bezela, ortxe dago bada untzea; orixe, erderaak gitxi kutsau ta eztittutako euskaldunen izketaori errez eta txairo erabilttean; euskal-idazleontzat, batez-ere: bakotxaren jakintza edo eskolautza aundijago edo txikijagokoa, erderazko liburu ta maixuakin ekiñian ibillita geureganatu dogunez gero.

Gai arin eta errikoi orreetarako, eztau bada euskal-iztegiak utsunerik; utsunok, geure ez-jakiñak erasortzen dittu. Errijarentzako idazten dittugun liburu, izparringi ta beste irakurgaijetan, naiz berari zuzenduta jaurtitteko itz-aldi ta sermoietan' ez-geunke bada iñoiz ere maixu-sundezko euskerarik erabili bear: berari ikasitako ta berak aurrez darabilzan itz ugari, bizi, esanguratsu ta argijetatik iñora urten barik aurkittu geinkezan utsez ornidutakoa baiño.

Baiña gai errikoi orreetarako ezpada ere' agertzen jakoz gure iztegiari, sori-txarrez, utsunerik asko, gai astun eta gaitzago diran beste

batzuk azaldu bearrean aurkitzen danean. Orduantxe ugari: gure itz-barri-eraltze lan atsegingarrijari, beti gogoz jardungo leuskijoenok eurok ere, ase ta aspertzeko lainñ ere bai.

— . —

Onako utsuneok eta bete-uneok zeintzuk dittugun zeatzago eragertzeko, izkuntzalarajak irakasten deuskuen izkera-atalkatze egoki-egoki batek lagun egingo deusku.

Atalkatze ori ona emen zer dan:

Izkera bat mintzatzen dabeen gizonak, euren bizimodu, biargin-tza, opesijo, zeregin, zale-

(1) Ikusi J. VENDRYES, *Le Langage*, Troisième partie, Chapitre III.

[86] tasun eta abar bidetzat artuta' pillo edo talde askotan berezi geinkez. Eta onetariko pillo bakoitzian batu geinkezan gizonak' euren alkar-arteko *izkera berarija* izan oi-dabe, batez-ere iztegiari jagokonez (1). Orrako *izkera berarajok*, mota askotarikoak dira: eleiz-gizonak, erlijioñoko autuetan erabili oi-daben lotsa ta errespetugarrizkotik asi' ta amak umetxuai zuzendu oi-deutsan samur eta biotzetikoragiño; juezak auzi ta epai-arazoetan mintzatu oi-dabean zorrotz, garratz eta zuzenetik asi' ta ijittuak euren azerikeri ta satorkerijetarako eraldurik dabean zearkariragiño; bere baso, solo, landa, zelai, ta etxeko gauza ta arazo guztijen izenak zeatz eta garbi berezten dittuan gure baserritarrenetik asi' ta orretariko gauzen izenik umetxo batek baiño geijago jakintzeka' zentzun, gogo, uste ta arima naiz gorputzari jagokoezan beste gauza gurenena, berezi, izentau ta eragertzeko, itz bikain eta sakon guztijak buruan dittuan fillosofilari jakitunareneragiño; itz

batez, langitza, jolasgintza, jakintza ta gizonaren beste ekin-bide orok dabe euron iztegi berarizkoa, ekin-bide bakoitz orreetan oittu ta ekandutakoak baiño ondo ezagutzen eztabeena.

Onetariko iztegiyen aberastasun berezija, uste izan leikean baiño gorago eltzen da sarri. Azkue jaunaren iztegi naguzijan ikusi daikeguz, adi-bidez, *Gaztaiña* itzari jagokon irakurgaitxoan, jaki onen ainbat mota, bakoitza bere itz egokijaz izentauta; izen guzti oneek, geure baserritarrak eta gaztaiña-ondo edo igalijari buruzko lanen bateri ekitten deutsan beste norbaittek baiño ezittue ondo ezagutzen (2).

Onetariko iztegiyen zabalgoa, gorago erakutsi dogunez-beste era batera aittu bear dogu. Gorago esaten izan dogun zabalgoa, ITZArena izan da; orain aitatzen dogunau, GAUZIAREna. Izkera berarizkoe-tan' *gauzia* izaten da bada beroni jagokon lagun-talde bakoitzak baiño zeatz ezagutzen eztabena; ta jakiña, *gauza* orren izena ere, lagun-talde orrezaz kanpora, gitxi entzutekoa izan bear; baiña orregaittik ezin esan giñei izen ori, itz berarizko ori, zabalgo txikikoa danik; *gauzia* ezagutzen dan neurrijan bere *izena* ezaguna danean' *izen* au zabalgo osokoa da. *Barautz* erreminttia, adi-bidez (erderazko *broca*), burdiña ta zur langilleen artekoa baiño ezta; onetariko langille euskeldun askok ezagutzen dabe *barautz* itza, eta naikoa da orixe itz orren zabalgoa ere aundija dala esan al izateko. *Piñu* (erderazko *Pino*) barriz, GAUZA ezaguna dogu euskaldun orok; baiña ez, gitxik baiño, landara orren euskel-izen garbija, *Ler* deritxona; orregaiti ITZ garbi au zabalgo txikikoa da, *Piñu* erderatiko itzak kendu deutso zabalgo orre-ri zati andi-andi bat-eta.

Izkera berarizko orreen iztegiyetako *itzak'* ezagutu oi dira iñoiz, bakoitzari dagokion lagun-pillo ingurutik kanpora ere, baiña geijene-tan, *gauzia* ez, bear dan zeatztasunaz. Euskaldun orok dakigu, *Elorri*, *Zumar*, *Urki* ta abar, landara edo zugatzen batzuk dirana; baiña ezta-kigu orixe baiño, baserritar, arotz eta euron antzera zugatz-lanai andik edo emendik lotuak dagokijoezan beste norbaitzuk izan ezik (3).

Itzoen eta *gauzoen* zabalgoari buruz, izkuntz-jakintziak irakasten deuskuzan oarrok gogoan eukiz' begiratu daijoegun bada orain, euskal-iztegijaren esandako uts-une ta bete-uneai, izkera berarizkook bide-laguntzat artuta.

LENENGO KLASETAKO IZKERA-BERARIZKOAK

Euskalerrijon aspalditik bertokotuta dittugun erlijioñotza, lan-gintza, jolas-gintza, dendaritza, etxe-arazo-gintza ta abarrerri jagokoezanak

Ekin-bide guzti oneen iztegi berarizkoai burez ere' gauza errikoi ta errextxoen gaiñ esan dogun ber-bera bir-esaten dogu: euskeriak, andik edo emendik erasortutako itz ugari, zeatz eta zabalgo andiko ta ondo zustraittuak dittu errijagan, eta eztogu idazleok eskubiderik (al-izaterik gitxiago) iztegi berarizko orreek aldatzeko; arazo orreetan, ikasle izan bear dogu ta ez maixu; ikasi, euskeldun lauak euren izkera berarizkoetan darabilleen benetako zabalgodun iztegi, ta agiri-

(1) J. VENDRYES, *Le Langage*, 293 gn. orr.; DAUZAT, *Philosophie du Langage*, 128 gn. orr.

(2) Lituani-erriko baserritarrak, bertako aberien ule-koloreai, zenbat eta zelako izen berezijak ezarten deutseezan, ikusi J. VENDRYES, *Le Langage*, 263 gn. orri-aldean.

(3) Ikusi J. VENDRYES, *Le Langage*, 222 gn. orr.

[87] agiriko bidegabekeriren bat izan ezik' idatzi ortiko itzok ardura barik; eztago munduon, orretara idatzi daikegun euskeria txartzat emon legijan izkuntzalaririk: benetako euskeria dala autortu, ta ego-kijenentzat etsiko eztabenik.

Onetarako, bear-bearra dogu erri-itz-iztegi berarizko bat eraltzea; iztegi berarizko au' Euskalerra osuon zabalgorik geijen daben itzak (erderatiko naiz euskeratiko) zeintzuk diran jakiteko asmoz egin bear da; ez itz garbijak bakarrik (edo erdi-bakarrik) pillokatzeko asmoz, orain arte egin izan dan bezela. (Onegaz eztogu esan nai, orain arte-kook, beinena eta bear-bearreko ere izan eztittugunik.)

BIGARREN KLASETAKO IZKERA BERARIZKOA

Atzerritik orain agertzen jakuzan makiña, erremintta, jostailu, soiñeko ta komertzijotako naiz arezaz kanpoko beste tresna ta arazo guztijai jagokoezanak

Ekin-bide ta agerpide onei jagokoezan iztegiak' mundu guztiko izkereetan izan oi dira erderatiko itzez jositakoak (1), eta eztago orren kontra inundik-inora ere ezer egitterik. Atzerritar gauza orreek, gizonik-gizon, komertzijorik-komertzijo igaro oi-dira eritik-errira; eta orrako gizonok, gauza bakoitza, bere jatorri-eritik dakarren izenaz izentatzen dabee, zelabait egin bear dabe alkar aittuteko-ta. Azkenengo bittarteko edo dendarijak' izen orretxekein artu ta, euren aldiz, olantxe ezagutu-erazo ta saldu ere egitten dittue gauzok, errijan-errijan; eta orretaraxe, inor konturatu orduko, gauzia ezagutzen doan neurrijan berean, jatorritiko arrotz-izena ere zabaltzen eta zustraitzen doa erririk-erri; ta itzok bein zustraittu ezkerok' jakiña da, joan zan garbijak ezarteko era ta ordua. Bear-bada izkel-zaiñ eta idazle garbi-zaleak dira, sarri, orretariko gauza barri ta euron arrotz-izenak ezagutzera beranduen eltzen diranak. Ameskeri barreikarrija litzateke barriz, atzerri-itzok zustraittu eztaitez, arako muga-ate edo aduana antzeko gauza bat imini nai izatea; aizeari ateak iminttea bezelatsu.

Orretariko itzeetan idazleok lortu geinkeena ta lortzeko alegiñ ere egin bear doguna' urrengo auxa da: arrotz-itzok, euskaldun jatorren

belarri ta agoetarako egokittu ta samurtu, orretarako errijak berak zainddu oi-dittuan itz-ots lege ta jokerai lagundu ta jarraituz (2).

Arrotz-itzok euskeraltzeko *gaur bizija* dabeen legerik ezagunen eta errikoienak, ona emen zeintzuk diran:

1-o Espaiñeraz (adi-bidez) *R* letriaz asten diran itzai' euskeriak beronenganatzeko *E*- letria aurre-ezarri oi deutse. Ikusi adi-bidez, *ERRamu* (Ramo), *ERRenta* (Renta), *ERRifa* (Rifa), *ERRoma* (Roma), *ERRuperto* (Ruperto) ta abar.

2-n Espaiñeraz *D* ala *R* letriaz amaitzen diran izen orokarrai' euskeriak -*E* atze-ezarri oi deutse geijenetan. Ikusi, *mezeDE* (merceD) ta *abaDE* (abaD), *umoRE* (humoR) eta *koloRE* (coloR).

3-n Espaiñeraz *L*, *R* ala *N* letriaren urrengo *S* ala *Z* datorrenian, euskeriak azkenengo bijok *TS* ta *TZ*tan biurtzen dittu. Ikusi, *poLTSa* (boLSa) ta *aLTZau* (aLZar), *beRTSo* (veRSo) ta *baRTZelona* (baRCelona), *peNTSatu* (peNSar) eta *daNTZa* (daNZa).

4-n Espaiñeraz -*ON* itz-zatijaz amaitzen diran itzai' euskeriak itz-zati orren ordez -*OI* (3) imini oi-deutse. Ikusi, *jabOI* (jabON), *algadoOI* (algodON), *orfeOI* (orfeON) eta abar (4).

Espaiñerazko -*ON* itz-zatijorrek bere aurretik *NI*, *ZI*, *JI* ala *SI* baleroa' orduan euskeriak

(1) DAUZAT, *Philosophie du Langage*, 104 gn. orr.; MICHEL BRÉAL, *Essai de Sémantique*. 283 gn. orr.

(2) Ikusi DAUZAT, *Phil. du Lang.* 117 gn. orr.

(3) -*OA*, -*OE* ta -*OIN* ere imini oi-deutse iñoiz eta iñun.

(4) Gernikan gagozan ezkerro, bertoko izkera-gertakun polit bat eragertu bear deusuet. Uri onetan ere, erderazko -*ON* amaiki ori, euskeraz, -*OItan* biurtzen da. Baña iruntzi-aldetara ere bai, itz baten beintzat. Emen, jostun edo sastreren batek soñnekoa, oker-uneren bategaz josten dabenean (esker-aldetik, eskuma-aldetik baiño laburrago edo luzeago: alde baten tuntur edo bestean apal, naiz beste edozein

bardiñetasun edo oker-unegaz josten dabenean) oker-une oneri euskeraz ALDEGOIa esan oi-deutse, gernikar emakumeak. Ta erderaz diarduenean ere, izkera onetan itz egokirik aurkitu ezin dabelako edo, euskerazko itz polit ori erabili oi-dabe; baiña gure -OI amaikeria, -ONetan biurtuta. Onan, euskeraz «Soiñeko orrek *aldegOI* andi bat deko» esan oi-daben bezela, erderaz «Ese vestido tiene un gran *aldegON*» esan oi-dabe.

[88] -ON itz-zatijorren ordez -O (1) utsik imini oi dau, (bizkaieraz ÑO.) Ikusi adi-bidez, *komuNIñO* (comuNION), *oraZIñO* (orACION), *erleJIñO* (reliGION), *okaSIñO* (ocaSION).

5-n Espaiñeraz -O letriaz amaitzen diran itzai, euskeriak, geijenetan, azken letra ori -U tan biurtzen deutse. Ikusi, *gubernU* (gobierNO), *bixigU* (besugO), *pixU* (pesO) ta atar.

6-n Espaiñeraz I letriaren urrengo L ala N datorrenian' euskeriak (tokirik geijenetan beintzat) LL ta Ñtan biurtzen dittu azkenengo bijok. Ikusi *ILLara* (hILera) ta *eskILLoi* (esquILón), *makIÑa* (máquI-Na) ta *pIÑu* (pINo) (2).

7-n Espaiñerazko aditzai, eurok euskera-antzekotuteko, bádakizue zelako aldakuntzaak eraso oi-deutseeguzan: espaiñeraz -AR itz-zatijaz amaitzen diran aditzaak' euskeriak -ATU (bizkaieraz -AU) gaz azkentzen dittu. Ikusi, *kontAtU* (contAR), *ernegAtU* (renegAR), *errezAtU* (rezAR) eta abar. Espaiñeraz -ER ala -IR itz-zatijaz amaitzen dirianak barriz' euskeriak -ITU (bizkaieraz -IDU) gaz azkentzen dittu. Ikusi *mobITU* (mover) eta *kombentzITU* (convencER), *prijITU* (freIR) eta *sentITU* (sentIR) (3).

Lege izenaz agertu dittugun zazpi aldakuntz (4) orreezaz gaiñera, beste asko ta polit-polittak egitten dittu erriajak, arrotz-itzok euskerazkotukeran: baiña ez tira errez eurok lege-peeana ezarten eta orrexe-gaitik eztittugu emen eragertzen; baiña idazleok belarriajak zur euki bear dittugu olako aldakuntzaok, erriajak bein zustraittu ezkeru, geu-

re idazkijetara eroateko: eurok emoten deutse sarri izkerai euren kolore berezi ta kutunena-ta. Arrotz itzok beraganatzeak, euskeriari txukuntasun eta bitxitasunik kendu leikionen bilddur larregikoa dabee-nak' aor dabe ordain-bide ugari ta politta; ta izkuntza legeai jarraituz, izkeriaren berezko inddarraren arira ibiliz jariztekoa gaiñera, ez orgeuk geure buruz ibilitta, geure ikaste-gelatik atara geinkezan asmo-keri alperrikoen antzekoa.

IRUGARREN KLASETAKO IZKERA BERARIZKOAK

Errittar arazoez goittikoak; goi-jakintzai jagokoezanak.

Izkera berarizko oneexen iztegiak dira, euskeraan, utsunerik aundijeneakoak; eurok dira beraz garrantzitsuenak ere, irakurten diardugun lan onen gaijari buruz.

Jakintza-iztegiok, zabalgo gitxikoak dira edo-nun; gizon jakitunak baiño ezittue zeatz ezagutzen, eta jakitunok lagun gitxi batzuk baiño ezтира mundu-erri bakoitzian.

Mundu-erri bakoitzeko jakitunok barriz, erbestekoakin alkar-aitu bearra dabe beti; jakintzia, munduko jakitun oroen ekiñez eragi ta aurreruztutzen dan lan eten-bakoa da-ta (5).

(1) -ONE ere bai, Prantzi-aldeko euskaldunak; ta Bizkai'ko erri batzuetan -ÑOI ta -ÑOE ere bai.

(2) Ta oneexen antzera ezarri oi-deutse erriak, toki askotan, *izpijakera* izenaz ezagutzen dittugun beste aldakuntza geijenak ere.

(3) Agiri danez, euskeriak erdel-aditza, eztau *infinitivo*-eratik artzen *participio*-eratik baiño: erderazko contADO tik *kontATU*, movIDO tik *mobITU*, sentIDOtik *sentITU*. «KomenI» ta «merezI» euskel-aditzak, infinitibo-eratik erakarriak dirudije: onegaittik «merezI det» *merezco* (presente) da; bardin «komenI yat» ere, *me conviene* (presente); «sentITU det, mobIDU yat» ta abar barriz, aldi-igarokoak dira.

(4) Lege edo arau oneek bete barik utzi edo aldatu ere egitten ditte erriajak iñoiz, baña gitxitan. Ona emen orrako arau-izte edo aldatze batzuk:

LENENGO LEGEARENAK. a) ERRELijiño izan bearrean, ERLijiño; bardin ERLekija, ERLoju, ERLuz, ogERLeko, ERNegau, ta abar.

b) ERRAza izan bearrean, ARRAza; ta antzera edo bardin ARRAtoi, ARRAbijo, ARRAija, ARRAijo, ta abar.

d) URRUfiña (ta ERRUfiña), IRRIngolada (ta ERRIngolada), IRRItta, ta abar.

BIGARREN LEGEARENAK. Españaeratikotik edo D Gernika-aldean edo TE esan oi-da, latiñetikotik birtute, boronda TE ta abarren antzera. Madrid barriz, Madril LE esan oi-da euskeraz edo-nun. Eta abar.

LAUGARREN LEGEARENAK. Lagun izenak ez tittu lege orrek barruan artzen; onegaitik, erderazko *antON* izena, erriajak euskeraz ere bardin esan oi-dau; ta olantxe *ilariON*, *melitON* eta abar ere. Toki izenak barriz, geijenetan barruan artzen ditu: aragON = *aragOI*, mondragON = *mondragOI* (edo *mondragOE*, *mundraUE*).

BOSKARREN LEGEARENAK. -IJO ala -IÑO gaz amaitzen diranak dira utzi oi-daben geijenak: *presillJO*, *eskuplarIJO*, *enterrarIJO*; *demonIÑO*, *liÑO*; ta beste banakaren batzuk.

(5) Ikusi MICHEL BREAL, *Essai de Sémantique*, 286-287 gn. orr.

[89] Orixe-dala-ta, antxiña-antxiñatik ezagutu izan dira munduon «izkera-jakitunak» eritxoan izkera orokar eta goitiarrak; eurok jakintzeetarako izkera bakartzat, erri askotan artu izan dira; mota askotariko izkeradunen errijetan. Grezitarrena bat, sortz-alde guztijak jakitun-izkeratzat artua, Josu-Kristoren jaijotzia baiño irureun urte lenagotik asi' ta Kristotar aldijaren azkenetararte; latin izkeria beste bat, Europako sartz-alde guztijon, erromatar alditik asi' ta orain bi-iru eun-urtekorarte. Eta bardin gertatu da munduko beste erri aurreratu oroetan ere (1).

Europako sartz-alde onetan, jakintzeetarako latin izkeria bakarrik erabilteori bertan bera utzi zanetik' gauzok beste modu batera eral-tzen dira; eta era-bide barrijau, atsegin izan bear litzakigau, zabalgo

gitxiko izkeraak dittugun errijo. Orain, jakintzeetarako, latin eta griegotiko zustraijakaz, iztegi orontzako bat eraldu da ta eraltzen da; ta berau, Europa-alderdi onetako izkera orok eurontzakotu dabe: bakoitzaren nortasunarentzat ezetariko beerakuntza barik, eta erritza askotako jakitunen alkar-aitzea, bide orrez, ederto erreztuten dalarik.

Ingelestarrena, ezta latiñetiko izkeria, ta gure euskeraonek bezela arek ere erreztasun aundija dau itz-alkartze bidez itz barrijak eraltzeko; baiña alan-eta-guzti ere, iguin barik batzen da bere 115 milloi ta geijago lagunekin, Europa-alderdi onetako jakintza-iztegi batasun orretarako: euskaldunoi (ain lagun gitxiko izkeradunoi), ikaspide ederra orretaraxe emoten deuskula. Erri aurrerakari ta egin-giña ei-da Ingeles-errija; agiri dau, arazu orretantxe ere.

Europa-alderdi onetan, euskaldunok, geu bakarrik, batasun orretatik kanpora gelditzea' eztirudi zentzunezko ta onuratsu litzakigunik. Bestetara egin bear geunkeala deritxogu: geuretzakotu guk ere, jakintza-iztegi-jori, itzai euskera-antza emoteko gorago aittatu dittugun aldakuntza legeak bear danean ezarririk.

Esandako jakintza-iztegi-batasun orretan' alde batetik erromatiar izkera-taldea (prantzitar, italiar, espaiñar, portugaltar eta abarrenak), eta bestetik ingeles-izkeria sartzen dira; guztitara ija 300 milloi lagunen jaijotza-izkeraak. Alemantar izkeriak ere, ondo jagokonean bide orrexeri jarraitzen deutso, baiña sarrijagotan, lendik beretzakotzat dittuzan itzak zustraitzat artuta eraltzen ditte jakintza-itz-barrijok (2).

Itz-barrijok eraltzeko gaittasun eta izate-erriari begiratuta, gure euskerau (len ere esan dogu), ingeles eta aleman izkereen antzeko dogu: oneek, gure ori bezela, itz-alkartze bidez (itz bi, iru, naiz geijago bata-bestieri ezarritta) itz barrijak erasortzeko gai dira-ta. Erromatiar izkeraok, gaittasun eder eta balijo aundiko ori oso neurri txikijagotan dabe eurez.

Ingeles eta aleman izkeraokin, bádu gure euskera onek beste antz-alde bat ere: erromatiar izkeraakin gramatikazko senidetasunik ez izatea; iztegi barriz, errijok alkarrekin dabeen artu-emon aundijago edo txikijagoak erasota, gure ta ingeles izkeraok askoz dira erromatiarrakin adiskideago alemanterrena dan baiño. Batez ere gureau, nai-ta-nai-ez izan bear, alde guztietatik erromatiar izkera orreez inguraturik agertzen jaku-ta.

Dana dala, ingeles izkeriak eztau alegiñik egitten bere jakintza-iztegija, esanda-ko itz-alkartze bidez aberastuteko ta garbitzeko; orretarako oso gai izan arren, utzi bide ori ta, gorago esan dogun bezela, erromatjar izkeraokin bat egitten dau bere-burua.

Era-bide berera ta erreza ingelestarrenau; ta onura aundikoa ere bai: esan dogun bezela 300 milloi lagunuen izkeretako jakitun-itzak zustrai bardifiez eraldurik' mundu guztiko gizon-jakintsu askori, jakintza-autuetan bakoitzak bere izkeria erabilitta ere, alkar-aittuteko bidea erreztuten deutse-ta.

Alemantarrak barriz, ikusi dogunez, onura orreri ezteutso ainbeste begiratzen, eta sarri, jakintza-itзок, bere izkera-zustraijez eraltzen dittu. Alemantar izkeriaren jakitun-itзок, zabalgo aundija dabe alan-da-guzti ere; izkera ori umetatik ala gero ikasitta dakijenak, asko diralako (75 milloez gora) alde batetik; eta bestetik, bere inguruko eslabitar izkerai (polonitarrari batez ere) (3) itz asko artu erazo deutsezalako. Gaiñera alemantarrori, Europan, eslabitar eta erromatjar izkera talde bijen erdijan agertzen dalarik' egoki jatorko alde guztijetatik, jarraitzen daben erdi-bakar-bideori.

Euskaldunontzat, alemantarren era-bidea ala ingelestarrena aukeran bagenduz, alemantarrenori litzakigu, noski, bijotzekoen eta atsegingarrijen; baiña ez, iñundik iñora ere, bidezkoen eta lortugarrijen. Ona emen orretarako geunkezan eragozpenak:

1.º Euskeldunok gitxi gara orretariko jakintza-iztegiyai geuk bakarrik bizitza-izardiya emoteko. Itzaak, erabili berotasuna bear dabe; jakintza-iztegiyok barriz, eztira erri lauaren agoetara jatxiten; eta erri lauaz kanpora, gure jakitunak, bakarrik, gitxi dira jakintza bakoitzean, euroi jagokoezan iztegi berarizkoak eraldu ta, batez ere, zustraittu erazoteko. Jakintzeetako GAUZAK eurenez dirala zabalgo txikikoak esan nai dogu, ta jagokoezan itzak bizi al izateko' erri aundi ta askotara luzatu bear erroak. Aor ingelestar izkeria, gure onen aldean 300 bidar lagun geijagoena izan arren ere, jakintza-itзок eraltzeko, len esan dogun bezela, beste izkera batzukin zergaitik batzen dan.

2n. Alemanitar izkeriaren era-bideari jarraitzeko dogun bigarren eragozpenak ere' lenengoorren zegaitija dau itur-buru. Gure errijonek, ezin argittaldu leikez, alemanitarrak bezela (4), munduko jakintza

(1) A. MEILLET, *Les Langues dans l'Europe Nouvelle*, Chapitre XII.

(2) J. VENDRYES, *Le Langage*, 269 gn. orr.

(3) A. MILLET, *Les Langues dans l'Europe Nouvelle*, 240 gn. orr.

(4) A. MILLET, *Les Langues dans l'Europe Nouvelle*, 294 ta 295 gn. orr.

[90] orori, euron aurrerakuntza guztijetan egunetik-egunera jarraitzeko bezenbat liburu, errebista ta abar; onexegaitik, euskaldun jakitun ta jakin-zaleak, euskerazko irakurgaijez gaiñera, beste izkera zabalgo aundikook ere sarri izango dittue irakurri bearra; ta izkera oneek eta gureak, jakintza-itzak zustrai bardiñezko ez izateak' asko gaiztuko leuskijoe egin-bear ori.

3n. Alemanitar izkeria, tokiz, bere-biziko ondoen agertzen da esan dogun bakar-bidetzarako; baiña gure euskeriau, erromatiar izkerezaz alde guztijetatik inguratu-ta dogula' uretan buzti barik egotea baizen gaitz litzakigu, jakintza-itzeetarako eura-kin bat ez egitea (1).

Jakintza-iztegi orretarako bada, eredutzat edo neurritzat, ingelestar izkeria artu bear dogula deritxogu; baiña jakiña, aundiz-aundi ta ez itzez-itz eta zeatz-zeatz, au ezin lei iñoiz onetariko arau zabaletan-eta (2): ingeles izkeriak, beronen itz-zustrai bidez eraldutako itzaz gauza bat izentatzen dabenean' guk ere or-or egin geinke beste orrenbeste; baiña, utzi etxeko zustraijok eta erromatiar izkerakin burua bat egindda eraltzen dittuan itzak' guk ere artu geinkez ardura barik, geureak eraltzeko zustraitzat. Gorago ikusi dogun bezela, onegaz eztau ezer ere galtzen gure izkera onek, eta irabazi barriz' bizi al izateko gura nai ez bear daben osagarri nagosijenetariko bat, urrean.

Bádakigu, neurri au ontzat artzeko, euskal-zale batzuen gogoak urrun agertzen jakuzana. Oneentzako, aleman-izkeria bera ere ezin artu geinke neurri-bidetzat; aleman-izkeria baiño urrunago, zustraitsuago, joan nai leukie esandako bakar-bide orretan.

Urrengo agerkai onetan ikusten dogu, aleman-izkeriak berak ere, esandako bakar-bide ori utzi ta beste europar geijenakin bat egindda beretzakotzen dittuan itz-eralketa batzuk, adibidetzat. Bada itz orreexek ere (ta euron antzeko oro be bai noski) euskel-zustrai eraldu bear dirala uste dabe, gure garbi-zale ase-eziñok. Iku-si:

Kepa Altonaga

Españeraz	Prantzeeraz	(3)	Ingeleseraz	Alemaneraz	Euskeraz
Barómetro	Baromètre	...	Barometer	Barometer	EGURAZTI
Academia	Académie	...	Academy	Academie	-ZAINGO
Anarquismo	Anarchisme	...	Anarchism	Anarchismus	LEKABETASUN
Anarquía	Anarchie	...	Anarchy	Anarchie	“
Almanaque	Almanach	...	Almanac	Almanach	EGUTEGI, EGUNDI
Calendario	Calendrier	...	Calendar	Kalender	“
Máquina	Machine	...	Machine	Machine	LANGAILU
Altar	Autel	...	Altar	Altar	OPALARRI
Museo	Musée	...	Museum	Museum	TXEGU
Maná	Manne	...	Manna	Manna	OSTARI
Literatura	Littérature	...	Literature	Literatur	IDAZKINTZA
Metro	Mètre	...	Metre	Meter	NEURKIN
Matemáticas	Mathématique	...	Matematics	Mathematik	ZENBAKIZTITZA
Aritmético	Arithmétique	...	Arithmetical	Arithmetisch	ZENBAKIZTIAR
Antropología	Anthropologie	...	Anthropology	Anthropologie	GIZATZAZKUNDE
Músculo	Muscle	...	Muscle	Muskel	ZOZKO, GIAR
Biceps	Biceps	...	Biceps	Biceps	ERRO-BIKOITZ
Electricidad	Electricité	...	Electricity	Elektrizität	TXIMISTA-INDAR
Eléctrico	Electrique	...	Electrical	Elektrisch	TXIMISTA
etc.					etc.

Alemantarroi alan-ere, izkuntzalari askok (4) bota oi-deutse arpegitara euren izkereazko bakar-bide zaletasuna, larregikoa dala-ta.

Bada, guri, euskeldunoi, eztakit zer esan leikiguen!

Ezteigun gure iztegi-eraltze lana, jolas-pidetzat, aldi-igaro-garrizat artu; ta ¿ez litzake orixe, ain zabalgo gitxiko gure izkera onegaz, ez ingelestar ez alemantar ez inok jarraitzen eztaben neurrizko bakar-bide otz eta txirotik zear, itz-barri eraltzen panparroi ekittea?

Bakar-bide ori artzea, inoizkorik kaltegiñena, oraintxe litzakigu zuzen ere. Mun-duon gauzak

(1) A. MEILLET, *Ibid.* 212 ta 318 gn. orr. ikusi, bakar-bide orrek berorrenez agertzen dittuan alde-on eta alde-txar batzuk ere. Baita ikusi gai orreri buruz, CH. BALLI, *Le Langage et la Vie*, 74 gn. eta urrengo orr. ere. Eta AMÉRICO CASTRO-ren gorago aittatutako idatz-lanaren 47-48 gn. orr. Eta J. VENDRYES, *Revue Celtique*, Vol. XXXIX–N.º 1, Chronique... IX. eta abar.

(2) Orraitiño erderatiko itzok, sarri, bardin zamarrak izaten ei-dira munduko izkera askotan. Ikusi J. VENDRYES, *Le Langage*, 268 gn. orr.

(3) *Puntu* oneek, ITALIERA, PORTUGALERA eta erromatiko beste izkera oro esan nai dabe. Eztittugu imini euroi jagokoezan itzak, Prantze-Españerazkoen zustrai bardiñez eralduak dirana edonok daki-ta.

Eta bardin gertatzen da erromatiko eztiran europatar beste izkera askogaz ere: «QUANT AU VOCABULAIRE DES LANGUES EUROPÉENES (diño A. Meillet'ek-*Ibid.* 320 gn. orr.), IL COMPTE UN NOMBRE IMMENSE DE TERMES COMMUNS SOIT A TOUTES CES LANGUES, SOIT A BEAUCOUP D'ENTRE ELLES...»

(4) MICHEL BREAL, *Essai de Sémantique*, 286-287 gn. orr.; A. DAUZAT. *La Philosophie du Langage*, 114 gn. orr.; A. MEILLET, *Les Langues dans l'Europe Nouvelle*. 294 gn. orr.

[91] daroen bide-erriari begiratu ezkerro, bear-bearreko izango da (*A. Meillet* jakitunak iragarten daben bezela) (1) mundu-erri-arteoko izkera orokar laguntzaile bat: jakintzeetarako batez-ere. Izkera orokar orren iztegiya barriz, latin eta griegotiko zustraijez eraldua izango da. (2)

Latin-griegotiko jakintza-iztegiyori guk orain ez euskeraratzeaz, aor bada beste *zireungarren* kalte aundi-aundi bat, gure ondorengo euskaldunentzat: euroi, euskeria, izkera orokar orretatik beste erri-izkeraak baiño izugarriz urriñoago izateko bideetan imintten deutseegu-ta.

Michel Breal izkuntzalari aundi ta ospatsuak oartu erazoten deuskunari jarraituz (3), eztogu nastau bear onako gai ta arazo buru otzez erabagitekoetan, erri-zale-tasun eta beste biotz-berotasunetiko gurari ta maitekeririk; aberri-zaleok, erri-zaleok, gure biotzeko sua, aberri-izkeria zabaldu ta sendotu erazoteko biztu bear dogu; ta utzi munduko izkuntzalari jakitunenai, izkuntz-jakintzeetako maixutasuna; izkeraok landu ta zaintzeko irakaspideak emoteko ta zuzen-bideak marketako jaubetasun eta eskubidea.

Jakintza-iztegi orreen artean, bádira darabilgun arazo onetarako berezi bear dittugunak ere: eurok' kimika, botanika, zoolojija ta abarreko itz batzuk dira. Jakintza oneetan, egunero estalgetzen dittue, jakitunak, izen barrija bear dabeen gauzak (4): gorpuzki, landara,

abere, izar eta abar; eta gauzaoi estalgetzailleak ezarri oi deutseezan izenak' ontzat artu oi-dira munduko jakintza-izkera oroetan. Baiña oso-osorik, izkera bakoitzaren fonetikiak eskatzen daben aldakuntzarik ere eraso barik. Orretariko itz gejenok, eztira gitxitan baiño erri-ratzen; eta eleuskigu euskaldunoi ere iguiñik emon bear, gure jakintza-idazkijetan izenok oso-osorik erabiltteak; eta, orretariko gauzaren batek euskeraz izen errikoia dabenean' imini berau, egoki danean, bestearen alboan, beste izkereetan oi dan lez.

LAUGARREN KLASETAKO IZKERA-BERARIZKOA

Literatura-izkeria

Eztago esan bearrik ere: egijazko literatura-izkeria, bene-benetako berarizkoa da (5). Literatura-izkeriaren berarizkotasuna' izkera osoa, aberastasun eta edertasun bidetik al dan geijen beti aurrera eroateko berak agertzen daben jokera berezija da. Literatu-larija' izkeria zeatztuten, zuzenduten, aberastuten eta argitzen beti alenginka diarduan langille zintzo ta balijotsua da ba. Baiña lan orrek, erri-izkeratik larregi urten, ez urrindu egin barik izan bear dau; bestela, izkera bijoen alkar-arteko bardiñeztasun larregikoak berak makaldu ta gauzaeztanduten dau, literatura-izkeriak erri-izkeriaren gain izan leikean eragitte-indarra. Literaturiak izkeriarentzat' imanak galtzaiduarentzat bezela dau erakarte ta beraganatze inddarra; baiña erakartzailleok, erakartekoen ur zamar imini ezik' eztabe eragitte inddarrik, erasote-inddarrik.

Iztegijari buruz, semantika-aldakuntzeetan, erri-izkeria nagosi dan bezela' itz-barrijak (itz-alkartze bidez naiz itz batetik beste bat eratorriz) eraltzen' literaturia bálitteke geijago izatea; baiña onetarako ere literatura-izkeriak' erriak ija elduan, ija bigunduta, ija umauta dittuan arnari-aleak eratxi ta agertu baiño eztau egin bear. Arnari-ale barrijok, orretara lortutako itzok, eurok ere, denporiaz, errikoí egin oi-dira; ta orduan euron aldiz, itz-erakarpidetzarako gai izan daittekez barriro. Eta orretaraxe, errija, literatu-larija ta *denporia* lagun dirala (ta ez bestela), aberastu oi-dira iztegiak.

Aor bada zegaittik euskaldun literatu-larijak, erri-izkeria lenengo, dan bezela, baiña sakon, zabal eta zeatz ezagutu bear daben; euskaldunok eztoгу, ikaspidetzat beste erri askok dabeen bezela, aintxiñatiko literatura benetakorik; eztoгу aukeran, erri-izkeria baiño, ta beronen iztegiya artu bear oin bakartzat. Literatu-lari otza ta murrija daite bada, gaur, erri-izkeriaren mamin, azur eta arimiaz bat egindda eztagoken euskalduna; erri-euskeriaren iztegi garbi naiz erderatikoa, euron zabalgoaren aundittasun edo txikitasuna, guztija asmau edo sentidu bear dau argi literatu-larijak bere belarri, gogo, adiñ ta bijotzian; bestela bere idatz-lanok, eztagikee errijaren gain ezetariko erakarte-inddarrik, eragitte-inddarrik; urrin geratu daittez errijagandik, guztiz otz, guztiz arrotz, sarri gertatu oi dan bezela.

Literatura bidez erasortu daikeguzan itz-barrijok, errez lurra-artu al izateko' ona emen zein kondiziñotzuk edo baldintzatzuk lagun egin oi deutseen:

(1) A. MEILLET, *Les Langues dans l'Europe Nouvelle*, Chapitre XXV eta Conclusión, 318 gn. orrialdetik eta 334 gn'eraíño.

(2) A. MEILLET, *Ibid.* 323 gn. orr.

(3) *Essai de Sémantique*, 282 ta 290 gn. orr.

(4) Ikusi DAUZAT, *Philosophie du Langage*, 115-116 gn. orr.

(5) J. VENDRYES, *Le Langage*, 321 ta 328 gn. orr.; CH. BALLY, *Le Langage et la Vie*, 51 gn orr.

[92] Lenengo: itz-barrijaren bear-izana benetakoia izan daittela; eztaittela lendik zustraittuta bizi, itz-barriztat agertu nai dogunaren ikurpen bardíñeko besterik; naiz itz-garbi, naiz erderatiko izan berau.

Bigarren: itz-barrija eraltzeko aukeratzen dittugun itz-zar, izki ta beste gaijak' zabalgo aundikoak izan daittezala.

Irugarren: orrako gaijok, argi ta sare agiri daittezala eraltzen dogun itz barrijagan; fonetikatiko aldakuntza ta laburpenak, eztagijezala gaijok illundu edo ezagun-gaitz biurtu. Itz bat, jaijo-barri dogunean'

asmatzailleak argijen eretxi arren ere, beti izan oi da uler-gaitza irakurle askorentzat; eta orrexegaitik, zustraittu arte' inddartu arte' garbi agiri bear dittu bere zatikin edo atalkiñak; gero, itzori errikoitzen asi daittenean, ainbesteko argittasunik bear-ez-izatera elduaz-elduaz' erriyak berak ezarriko deutsoz, erruki barik, aldakuntza ta laburpenok, itzori esan-errez eta entzun-gozo bear dan neurriragiño biurtzeko. Lugiñak eta ortulauak euren lan oro, lurra eta egualdijak onuratuکو deutseezan asmoetan egin oi dittue; antzera literatu-larijak ere; eta izkeriaren lurra ta egualdija barriz, errija ta beronen gogoia dirala diñogu barriro.

Aor bada euskaldun literatu-larijak aurrean daben lan aundija; euskera eder onegaz, esakun barri txukun eta asmotsuak eragertzeko itzak ain garbi ta politto alkartzen dakijan izkera bikaiñ onegaz. Baiña, beti erderatiko itzak, itzez-itz ordeztuten ekindda ez: esangai barriyak, irudigai barriyak, gogogai, asmogai ta argigai barriyak (sarri beste izkereetan ez tiran bezelako itz berezijak) euskal-iztegijarentzat asmau ta irabasten alegindduta baiño. Zabalgorik bako itz-garbiz iztegija eraltze ta betete utsez, ezta lortzen izkeriaren aberastusuna; bizitzia daben iztegija bera, (al danik aldakuntzarik gitxienez) gai astun naiz goitarrak, errez, eta ulerkor erazaltzeko, ganoraz eta jasez erabili, bijurtu, astindu, bizkortu ta gaittuta baiño.

— . —

Itz bi amaitzeko.

Gaur, euskal-iztegijazko naiz euskera osoazko ekin-gaijak, agertzaldea bi dittue: euskeriak orain daben aberastasunari eutsittea da bata, ta bestia' gaur-eguneko bizitza barritarronen aurrerakuntzeetarako gaitasuna lortu arte, euskal-iztegiari aberastu ta zeatz-tutea. Baiña, egiñean, ekin-gai bijok batetara datoz: gaitasun ori jaristeko aurrerantz sendo jo ezpadaigu' itxitasun ori bide dala, euskeriau berez-berez gauza-eztandu ta bertan-beratan illda geratuko da.

Guk, gaurko irakur-lan onetan, alegiñ egiñ dogu esandako gaitasun ori euskeriak zelan errezen lortu leikeango gure eretxi makala al-bait argi ta zeatzen eragertzen. Beste izkeraak, orain gureau bezela agertu izan diran orduan, zer egin izan dabeen eta zerk on egin izan deutesen otz-otzez azterkatze ta ikusteak eroan gaittu, eretxi ori bidezkoentzat artzera. Bide ori jarraituz, eztoqu uste euskeriaren garaipena gauza gaitza litzatekeanik, izkeriau landu ta zainddute lanari jagokon aldetik beintzat.

Baiña ezta naikoa, urrik emon ere, euskal-zale ta euskal-jakitunak, alde ori ondu ta beteteaz. Gureau bezela agertzen dan izkera batek, berantz egin barik gorantz, bere agertze-alde guztijetan aurrerantz egitteko' goi-sundez, aundiki-sundez inguratu ta ezkotuta agertu bear dau (1); ta ori' euskotar aberats, jakitun eta aundikijak emon leijoe: euskeriari sor jakon maittetasuna ta lotsia opa izanda, ta egiñen orotan, edonoiz eta edonun ori eragertuta.

Zori-txarrez, gitxi-batzuk izan ezik, euskotar aundikijok, orretan, errijari, ikaspide txarra emon oi deutsoe; euskera arazoai jaramonik egin ezaz, eta sarri, baitta (lotsagarririk aundijenez eta gorrotorik iguingarrijenez) ostikoaz sokondoratu ta zapalduaz ere. Gertakun tamaltsu onen ondorenak, or agiri dira gero: euskaldun lauak eztau alegiñik egitten, gurasoak ezarri deutsoen, amaren altzoan ikasi eben izkera gozoa ondo mintzatzen, eta beragan eta ingurukoetan iraun-erazoten. Bestetara bai sarri: erri lauak, erri zeiak, zer guztijetan bezela onetan ere, aundikijen gauzak antzeztu narik' (2) al dabenean, sokondoratu egitten dau euskeria; ta au ezin badau'

(1) A. MEILLET, *Les Langues dans l'Europe Nouvelle*, 146, 147 ta 149 orr.

(2) A. MEILLET, *Les Langs. dans l'Europe Nouv.* 147 orr.

[93] euskal-itz garbijak erderatikoez ordeztuten alegintzen da (2); ta orretaraxe, euskeriari bear ezittuan erderatiko itz asko ezarri ta euskera garbizko beste ugari eratxi ta galdu erazo egiten deutsoz. Aunen kontra barriz, gorago esan dogun bezela, ezin gauza aundirik lortu, ez gure idazlarijen alegiñak ez izkera-zaiñen ekiñak; erriaren jokera edo jauskera nagosi, orokar eta zabalén kontra, lagun gitxi-batzuen lanak eztabe erasote inddarrik-eta.

Aor bada euskotar aundikijak, euron guraso-izkeriari deutsen maitekabearen ondorena.

— . —

Eta aittu-eziñezkoa da euron maitekabe ori: aundikijok, euron jatorri-odol garbija ta abizenaren argittasuna eragertu leijoezan agiri-bideak, beti maite izan oi dittue-ta. Ala ¿eztakije euskotarron jatorri-izen eta jatorri-odola, euskeriak, iñungo pergamiñu ta arma-arri goitiarrek baiño eragijago, altuago iminten dittuana? Euskeriak, izkuntzalari goren-goto ta beste jakitun oren aburuz' euskotar errija, Europako jatorrena, etxagunena dala eragertzen dau. European gaur itz egiten diran izkera oro dirala-iñok ezarrijak, kanpotarrak ekarrijak (dirauskue jakitunok) euskeria izan ezik; orok dittuela, euren jatorri-zustraijak, Europaz kanpotiko; euskeriau dogula bakarrik, beronen erroak, beronen zustraijak, beti ta beti, (gizonaren ezaupidea eltzen dan aintxiñengo denporeetatik eta gero), iñoiz aldatu bako lurreri itsatsi ta erpetuta European agertzen dan izkera soil-soilla. Europa zaarreko beste izkera oro, euskeriak aintxiñatasunean lagun zittuan, oro iltten ikusitta bizitziaz geratu dan bakarra, gure izkeriau dogula: gure guraso bulartsuen eutsitte-inddar eta buru-jabetasunezko gogo azpiratu-eziñezkoari eskerrak.

Eta au, guztijau, munduko jakitun orok, munduko jakintza osoak erakusten deuskue; geu euskotarrok agertzen gara, goitartasun ori, jatorrtasun ori, geure gurasoen azkatasun-gogo sakon eta gogorraren agerkai eder ori aintzat artu nai ezik, edo ezagutu nai ezik.

Euskeriau dogu, beste alde batez, geure erriaren erlejiño, oittura-garbi ta izate-alde on guztijen eusle ta zaintzallerik zintzoena, milla bidar esan izan dan bezela ta begijen aurrean orok ikusten dogun bezela.

Eguzkija, bere suzko argittasunaz edoi ta laiñoak urratuz ta aijenatuz gureganatu oi dan bezela' euskeriaren jatortasun eta onbidetasun orrek ere aurrean agertzen jakozan illunpide ta otz-pideak apurtu ta uxatuz, biztuko dittu noiz-edo-noiz euskotar oroen adimenok; berotuko dittu gure biotzok, eta eusko seme danoen artean eragiko dogu, dagokijon toki jagi, goitiar ta aberatseragiño, gurasorik-guraso eldu jakun etorki ederrau: mundu-aldijaren aintxiñenetatik sendo ta buru-jaube agerturiko gizon goitiarrenakin lotzen gaituan urrezko kate eder eta luzeau.

(2) Ikusi J. VENDRYES, *Le Langage*, 266, 261 ta 333 gn. orr.

